


IPUIÑAK

ERROSE BUSTINTZA

«Mañariko»



GERO



**ERROSE BUSTINTZA,
«MAÑARIKO» (1899 - 1953)**

Oiartzuna lotatzen dan Mañarian jaio zan azken eunkada agortzen ari zan egunetan eta Kirikinoren iloba izanik bere etxean bizi izan zan leukemiak 1953ean eroan eban arte.

Isil eta beargin, mañaritar guztien adiskide, ikutu egiz olerkitsua emon eutson euskarari, erriaren ipuiñak erriko euskara samurrean idatziz. Bere ipuiñ bakoitzak ogi egin barria dirudi, etxekotasun eta leentasunez gainezka.

Ez eban liburu osorik idatzi baino an emenka argitaratutako ipuiñ, olerki eta abesti berbak bilduz nolakotasun garaiko liburua osatu daiteke.

Emen, argibidetzat, bere euskal ipuiñak leen bider multzotuta.

Errose Bustintza
«Mañariko»

IPUIÑAK

Antolatzailea: Jaime Kerexeta

Irudiak: Mikel Unzueta

GERO 
EDICIONES MENSAJERO

ITZ BI

Ederrak, eder bada, ez dau eder-apaindura geiagorik bear. Liburu onek, ori bera, ez dau nik uste apaingarri geiagorik bear. Jaime Kerexeta, euskal letren erraldoia, alan be, arren eta arrenez, orretan datorkidan ezketiño, beioaz emen oar pitiñok.

Errose Bustintza'ren ipuiñak, urteak dirala, an-emengo egunkari ta aldizkarietan etozanak, oso atsegin jakuzan. J. Kerexeta'ri esker, sarri argitara emonak izan ziran, eta gaur be, oraingo gazteak zelako idazleak —gozo ta errazak— jakin dagien eta guk aspaldi danik izandako atsegin-aldiak, eurek be izan dagiezan, sarritan irakorlatzea merezi daben idazlanok emon nai dauskuez janari on-gozo, eta guk ez dautsegu iñoiz be bear aiña eskertuko.

Ipuin-sail bikaña da, erreka-to-beera datorren ura bailitz, berez-berez bape indartu barik irakurten dan sailla, eurak dauken gozotasuna geuri be ixuri ta itsatsi nairik. Irakurri ta ausnartzekoak dira, aspaldiko eusko-asabak, guraso ta seme-alabak —gaur telebista aurrean edo— batek konta ta besteak entzun, ordu benetan zoragarriak igaro ei ebezan legez. Euskal-famili askorentzat gaurko txolinkeriak baiño gogotsuago irakurri ta ausnartzekoak, ezpairik baga.

Euskaldunak, lur ta ur, toki menditsu onetan bizi dalako bearbada, aitz-zulo, arpe, troka ta baso zugaztitsuetan antxiña-antxiñatik bizi izan dalako —gaur ez ainbeste,

baña leengo mendeetan— misterio-zale izan jatzu; eta olan soiñeko ñabarrez estaldutako elezar, leienda ta ipuiñez txirulikaturiko irakurgaiak eder be eder jakoz beti ta nunnai.

Eta jakiña, ezbai ta zalantzarik baga, olakoxeak dituzu Errose neskatillearen asmamenak sortutako lanak. Aren erria, Mañaria, orduan eta gaur, misterio ta ezkutuz betea dozu; gaur, alan be, Mugarra ta Untzillaitz bitartean tirotik ba-danarren, sorgin, lamiña, ireltsu, papao, txitx eta gau-argiak dardaran jarteko beste.

Errose'ren egunetan, egia esan, baketsuagoa zan inguru biribil au. Eta gure ipuinlaria Untzillaitz magalera, San Martin ermitarantz abia oi zan, idazkortza ta papera zakutoan zituala; edo beste egun baten Doniane baselizara, inguruko zugazpe gozatsura. Edo Ezkubaratz azpitik zear, errekonoz-errekondo, Sabigain orporaiño, edo-ta Oba'ranta, aitz-arte ta pagadi berde-oriz, Aita Kurutzekoaren ermita-ondotik barrena.

Oneitan, ibilliz ibilli, aurkitu oi eban gairik naikoa bere ipuiñak itxuratu ta ñabartzeko. Leengo aldietan, toki orreitan zear ebiltzan neska ta mutil gazteak erraz itsumustu egiten eben bide crakusle gau-zaleekin, lamiña, ireltsu, papao ta olakoekin. Geienak onak ziran, eta on-egiteko prest egozanak.

Or, beraz, berebiziko gaia ipuiñak eio ta aroa emoteko. Maitagarriak zirala, epotxak zirala, zudua polito biztu daroen jardun-gaia.

Nik askotan esana: emakumeak ba-dabela, idazle diranean, zerbait berezi-berezia, giza-semeak ez daben zeredo-zer apartekoa izaten dabe euren liburuetan. Beste orrenbeste diño mugaz bestaldeko Itxaro'k be. Orregaitik-edo, Errose'tzaz duinkiro idatzi izan dabe aipatu dabenak. Mikel Zarate'k onela: «Aberatsak dira bere idazlanak etnologia aldetik».


Andima Ibiñagabeitia elantxobetarrak: «Trebea duzute Mañariko Errose Ipuiak idazten, gure artean garaienetakoa nik uste oraingo ontan. Ba dizu irudimena, eta da dizu batez ere biotzondoa».

Eta Juan San Martin'ek beste au: «Mañariko'ren liburua ikusteko pozarren nago. Asko gustatu iataz bere ipuiñak. Bere osabarenari (Kirikiño'renari) ez dautse zorrik».

Eta nik: «Mañaria izan ere, tokiz eta jendez, orri dagokiona duzu, aukerakoa iñolaz ere, Untzillaitz, Mugarra, Urkulu, Ezkubaratz, Saibigain, sorgin-lamiña ta maitagarriz beterik, egokiak dira, berezkoak noski, elezar-gaiak eskeintzeko, leize beltz, saguxar eta baserri-jende misteriotsuz gaiñezka.»

Txalogarri egiaz J. Kerexeta, lanok batu, sailkatu eta argitara emoteko dauanagaitik. Sor begiskue ipuiñok, irakurleoi, poza ta ezitia, Errose'k eukan poza zabal ixuriz guregan .

Larrea'n, 1.990-III-12
AITA ONAINDIA



1. DIMA-KO PEDRO DEUNA

Pedro Deunaren aurreguna zan. Egun aretan, Dima-ko elizan, bertako neskatilla sasoiko batzuek euren erri-zaindari andiaren altarea apaintzen ziarduen.

Neskatillak, Pedro Deunaren irudia loraz eta adarrez iñoiz baiño dotoreago apaindu bear ebela-ta, pozik eta urduri ebizan. Ango lorak eta argiak azkenik ez eben. Ikusgarri be ikusgarri jarri bear eben.

—Oi!, biar erriko guztiak ikaratuta geratuko dira, elizea onen txukun eta dotore ikusita —esan eban Mainton neskeak.

—Olanxe izan be —erantzun eutsan Maipatxu-k—. Sekula baiño dotoreago agertuko don gure santu maitea. Eta beronegandik lortu bear yonaguzanak! Il naitenean, zeruko atea zabalduko daustan ustea ba-yonat, beintzat.

—Nik, ostera —esan eban Andonetxu-k—, Oba-ko Ilipon mutillak amarretako meza-ostean egingo dauan aurrekua neuri eskiñi daistala eskatzen yautsanat. Ai, ori lortuko ba-neu...!

Iru gazteak, olako barriketaz pozik ebizan artean, Pedro deunaren irudia, neskatillen eskuetan laprast eginda, altaratik beera jausi zan; dana zatituta geratu zan.

Neskak, euren erri-zaindari andiaren irudi ederra apurtuta ikustean, negarrez eta zarataka asi ziran. Eta arein zaratetara eliz-zaiña (sakristaua) beingoan elizaratu zan. Eta aurpegi illunez,

—Zenteillea! —esan eutsen—. ¿Zer jazo da emen? Neska arraiook, orra zuek egin dozuena! Orrenbeste barriketaz Santuari be gogait eragin dautsazue-ta! Oraintxe gagozonak santu bagarik... Biar erri onetara etorri daitezanak, ¿zer esango ete-dabe? Ene...!

Berba larri orreik amaitzeaz batera, Mañari-ko Atximo zapataria sartu zan eliza aretan; eta, ango zoritxarra ikusi ebanean, errukitu egin zan; eta erriko jaia igaro arte, Santuaren soiñekoakaz jantzi eta Pedro Deunaren lekuan, altaran, bera jarriko zala esan eutsen neskai ta sakristauari.

Bereala, ba, Atximo zapatariari Santuaren jantziak jarri eta, itxurea aldatzearren, aurpegia ta eskuak ezti ziriñez igurtzi eutsoezan. Eta, altarearen erdian ipiñita, lora politez eta argi ederrez apaindu eben.

Guztia ixillean egin ebenarren, sakristauaren semeak, ortik eta emendik, jazorikoaren lurruna laster artu eben.

Biamaronean, elizea lagunez beterik zala, amarretako Meza nagusia asi zan. Eta meza-bitartean, abade jaunak, Santuari buruzko berbaldian, olanxe iñoan: «San Pedro santu andia! Gure erri-zaindari maite ta miragarria! Zeruko atezain bizkor eta arduratsua...», eta abar.

Abadeak onetan ziarduan artean, sakristauaren semeak, altaran santuaren antzaz egoan zapatariari, erle pilloa jaurti eutsoen aurpegi-ingurura; eta erleak, zapatariaren eztiz betetako aurpegian eztenak errime sartzen asi ziran.

Orduan, Atximo berealaxe zutundu zan, eta deadar andiz «dimatarrok, or konpon!; ni ba-noa ta kitu» esanez, altaratik beera salto andi bat eginda, elizatik ariñeketan urten zan.

Jazopen oneaz, dimatar zintzoak ikaraz jarri ziran: Pedro Deunak errian jente txarra egoalako egin ebala alde, uste izan eben geienak-eta.

Abadeak, barriz, ango larrialdi ta estutasuna ikusi ebanean, berbalditxo baten bidez, arrentza edo errogatiba bat egiñaz, santuaren billa joatea ondo izan zeitekela adierazo eutsen. Eliztarrak abadearen asmo onari ederto eretxi eutsoen eta lagun guztiak batera Letaiñiak abesten urten ziran.


Abadearen etxe-ondora eldu ziranean, abadeak, bere ortuko baba-lasto artean zapataria gordeta egoala ikusi

eban. Eta kantatzeko eran, abots itzelez, «emen dok onen baten», esan eban; eta erriak be, era bardifnean, «babatzaren baten», erantzun eutsan.

Berbok entzutean, Atximo larritu egin zan, eta bere kolkorako «oraintxe galdua nok» esanda, Oba-rantz abiatu zan; eta andik tximistea baizen arin Mañari-ratu.

Ganeko egunetan, zapatari entzutetsuak ango auzokoai auxe esaten eutsen: «Dimatarren artean bein larri, baiña geiagotan ez». Eta aren anka-azurrak ez ziran iñoiz geiago Dima-ko errian sartu.

Dimatarrak, barriz, ille batzuk barru, Pedro Deunaren irudi barri eder-eder bat ekarri eben. Eta santua goratzeko, jai andiak ospatu ebezan.



2. AMARGARREN AALEGIÑA

Bein, Larrabi-ko etxekandra maratzak, bere seme gazteenari, arto-zorro bat bizkarreratuaz, auxe esan eutsan:

—Oa errotara, maite, oa salto baten; eta ekarri egidak arin zorro oni yagokon uruna, taloak egiteko esku-artean oraintxe bertan bear yoat-eta.

—Ene, au da zorroa! —esan eban mutillak—. Sorta au niretzat astunegia dala esango neuke. Arri-koskorrezkoa ba-litz be... Zorro au, bidean noala-edo, jausiko ba-litzakit, ¿zelan arrano jasoko neuke lepora barriri? Ene, au da au...!

—Ez adi egon orren bildurrez; zorro ori orren astuna be ez dok-eta. Orrelakorik jazo ba-lekik (jazoko ba-litzakik), barriz, besterik ezean, bearbada ire zorro ori «amargarren aalegiñak» edo leporatuko leuskik-eta.

—¿Amargarren aalegiñak? ¿Nor da, gero, «amargarren aalegiña»?

—Amargarren aalegiña, ik iñoiz ezagutu ez doan ezezagun begiko bat dok. Oa arin errotara, bai, eta, bearbada, ezezagun begiko ori bidean bertan ezagutzeko zoriona izango dok. Oa, oa arin, maite...

Eta gure mutilla, amaren esana egitearren, beste bagarik, errotarako bidean jarri zan. Eta bide-zati bat igarorikoan, zugatz-erpiñean txirulika ziarduan txori kantariagana begira geratu zan.

Atan-orretan, mendian-beera, bei gorri bat, erri-bei bat, ikotika agertu zan; eta gure mutilla, «ene, gure auzoko bei okerra!» esanez, adarkaren baten bildurrez, zorroa lepoan

ebala ariñeketan asi zan; eta yoiala, bide-ertzeko erretenean larrapast eginda, anka-z-gora jausi zan.

Zutundu zanean, arto-zorroari ikututxo bat be egiteke (egin bagarik), bide-ondoko landan, bedartzan, patxaraz-patxaraz jarri zan, andik noizean bein «aalegiñari» deadarrez ekiteko.

—«Amargarren aalegiña», ator ona! —iñoan—. «Aalegiña», ator arto-sendor au nire lepora jasotera: bakarrean nik ezin jaso naikek-eta... «Aalegiña», ator arin-arin!, gure amak uste yokanez, i morrosko indartsuren bat-edo az-ta...

Alan, deika ta deadar baten, ordu luzeetan egon zan, nonbaitetik zerbait edo norbait agertuko zalakotan. Baiña, bai zera! Olakorik arean be ez zan jazo. Txoriak, ardiak, auntzak, beiak eta beorrak baiño ez ebazan an ikusi gixajo andiak. Eta, orduak-ordu, eguzkia ostentzen eta eguna illuntzen be ikusi eban... ¿Zer egin? Estualdi aretan, zutundu ta arto-zorroa ikutu ta emen ikutu asi zan... Alako baten, soiñean eban indar guztiaz, zorro a arri-mokil baten ganera aldatu eban; eta, gero, beingoan lepora jasota gero, errotara joan zan.

Errotara-osterea eginda, etxeratu zanean, amak ikaraz esan eutsan:

—A, mutil! Ba-ator, orraitino! Errotara-ostean egun guztia egiteko, ¿zer jazo yak? Olakorik, egundo...!

—¿Zer jazo yatan? —erantzun eutsan semeak. Eta jazorikoaren barri, au ta au, eta ori ta ori, zertzelada guztiakaz emon eutsan.

—Zuk aitaturiko morroskoa, barriz, lozorroan-edo egon da, antza: nik egin dautsadan beste deadar eta zarata eginda, iñondik be ez agertzeko, illik edo lo egon bear, nai ta nai ez...


—Eta zorro ori, ¿zelan jaso dok, gero?

—Nire deadarretara iñortxo be etorri ez dan ezker, neuk jaso bear izan dot. Putz eta putz, soñean dodan indar guztia atarata, leenengo arri-mokil batera jaso dot, eta gero andik beingo baten leporatu. Nire izerdiak!

Ori entzunda, amak, barreka-barreka,

—A, kokolotzar ori! —esan eutsan—, «amargarren aalegiñak» jaso daua-ta...! Norbere indar guztia eta egin-gura osoa, orixe dok benetako «amargarren aalegiña»... Jaungoikoak emoniko aalmena, erdizka bagarik, osoro erabiltea...

Oi, gauza onak egiteko, geure aldetik dagoan guztia ipiñiko ba-geuke, orduan bai mesedeak eta irabaziak lortuko geukezala! Jaunak osoro bedeinkatuko gendukez.



3. AZERI GAZTAE-ZALEA

Gure aitaita zaarren aldietan, Iñungane-mendian, mendi erpin-erpiñean, azeritzar bat bizi zan. Azeri ari, janari guztien artean, ardi-esnez egiñiko gaztae gozo-gozoa izaten yakon atsegiñen; gaztae-zale andia zan. Gaztaea non eta noiz jango ete-eban pentsatzen ziarduan beti; egunez eta gabez, gaztaeaz bakarrik egiten eban ames. Alako gaztae-zalerik!

Ori zala-ta, bere jangurea asetearren, artzain-txaboletatik eta basetxe-inguruetatik sarri-sarritan igaroten zan. Eta, iñon gaztae-usaiñik somatzen ba-eban somatu, surra astin eta buztana astiñago ebalá, antxe bertan geratzen zan, agorako janari gozoaren zain.

Illuntze baten, gure azeria, Urtsule etxekandrearen basetxeko atarte zabalera eldu zan; eta, begi ta belarri, barrura adi-adi jarrita, atarte aretako jesarleku-azpian patxaraz-patxaraz jarri zan. Eta alan egoala, abesti baten durundia etorri yakon belarrira; barrutik etorren abots gozo au zan:

Baso baltzean okilla,
solo landuan mokilla;
lanaren ordain
jan daigun orain
emen daukagun opilla.

Ori entzunda, «¿Nor ete-dok abeslaria? —esan eban azeriak—. ¿Urtsule, ala beronen alabea?»

Eta barriro be, belarriak adi-adi jarri ebazan. Une baten alan egonda, abeslaria Urtsule zala ezagutu eban.

«Arraio! —esan eban azeriak—; andra au gaur alai yabik, pozarren yabik. Orren pozez egoteko, ¿ze barri on ete-dok bertan? Kortako bei gorriak txal barriren bat ekarri ete-yok, ba? Ala..., ala... artaldeko ardi bakotxak bildots biña ekarri ete-yautsezak? Oi, olako bat ba-litzok, orraitíño, esne ta mesne, emengo gaztae pilloak!»

Eta gaztae-usaiña somatuz, «Ene!, eta gaztaea egiten ziarduk oraintxe be! —iñoan berekautan—. Bai, orretantxe ziarduk ekin be... Barrutik datorren usain gozoak argiro diñostak... Nik egin bear yoat sabelkadea! Iru-lau gaztae oraintxe berton eskatu bear yautsoadaz...»

Eta, pozarren saltoka asita, abestiz eskatzea erabagi eban:

Urtsule ta alaba
ama-alaba onak,
mendi-basoetako
larrosa ederrak.

Zuen biotz onetan
maitasuna ugari;
goserik dagoanaz
zaitetze erruki.

Janari gozo orreaz
ase nagizue:
gaztairik ederrena
emon eidazue.

Urtsule ta alabeak, azeriaren abestia ixil-ixilik entzun eben. Ama-alabok abesti-abotsaz ikaratu egin ziran, atean egoana nor edo zer zan arean be ez ekien-eta. Eta zana jakiteko, Urtsule andreak atartera urten bear izan eban. Eta atartean zanean, Iñungane-ko azeri gosakilla ikusi eban. Zeren billa etorren itandu eutsanean, gaztaeak eskatu eutsazan.

—Gaztaeak, gaztaeak bear dodaz nik! —zirautsan.

—Ez yagok emen gaztaerik —erantzun eutsan Urtsulek.

—Bai, ba-yagozan... Ortik datorren usain gozoak ezetara be ezin iruzur egin. Ba-yagozan...

—Egia esateko, ba-yaukoaz euki; baiña ez iri ta ez iñori emoteko. Biar goizean merkatura eroateko, guztiak otzara zabal baten ipiñita yaukoaz-ta...

—¿Zenbat daukazan, ba?

Eta Urtsulek, apur baten pentsatuz, auxe esan eutsan:

Iru ta iru, sei
eta iru bederatzi,
eta amar emeretzi,
eta bat ogei;
zirkillu ta mirkillu,
irurogei.

—Jasaus! Ori don pilloa! Irurogei gaztae! Batzuk, orraitino, emongo yaustazan.

—Ezin emongo daikeat bat be, ba...

—¿Bat bera be ez?

—Ezetz, ba...!

Urtsule-ren zekenkeria ikusita, azeriak asarre iges egin eban. Buztana berantz ebalá, Iñungane-mendira joan

zan. «Andra zeken ori merkatura joan baiño leen, gaztaen batzuk arrapatuko yautsoadaz, ba; bestela, azeria be ez nok izango...» —iñoan bidean yoiala.

Biaramon-goizean, egunsentia bere argia emon orduko, Iñungane-ko azeria bidera joan zan; eta antxe, bidearen erdian, abarka bat ipiñi eban: ume-abarkatxo polita zan. Onetan, Urtsule andrea gaztan-otzarea buruan ebalá agertu zan; eta bide aretan berreun oinkada egin orduko, bidearen erdi-erdian ume-abarkatxo ikusi eban.

—Emen abarkatxoaren polita! —esan eban—. Baiña, tamalez, lagunik ez yaukon; bakarra-edo don... Bestela, gure neskatoarentzat alagalakoak izango litzakezan...

Eta ori esanda, abarkea, aurkitu eban lekuan bertan itzita, bidean aurrera egin eban. Azeriak, baiña, Urtsule-k esan eban guztia, bide-ertzeko zugazpetik belarri-zur entzun eban: zer jazoko, be, antxe gordeta egoan-eta.

Eta azeri maltzurak, leen berak bidean itzi eban abarkatxo artuta, bide-zidorretik aurrera joanda, emakumea igaroteko zan bidean leengo abarkatxo bera ipiñi eban.

Urtsule, abarkatxo bigarrenenez ikusi ebanean, bestearen laguna zalakotan, poz-pozik jarri zan; eta auxe esan eban: «Onakorik! Emen beste abarka bat! Eta berau or bidean ikusi yonadaren laguna dala esango naieuken... Bai, arexen laguna don, izan be, bardin-bardiña don-eta. Baiña, auxe tamala! Leen aurkitu izan yonadan abarkatxo, ¿zetako ez yonat jaso, baiña? Ni lako lelarik iñon ez yagon egon be... Leengoa artu izan ba-ñon artu, orraitino, orain gure neskatoak abarka biko ederra eukiko laieuken. Egin-eginean be, oiñetako batzuen bearra ba-yaukan... Noian, noian leengo bideetatik beste oiñetakoaren billa.»

Eta Urtsule andrea, gaztan-otzarea bide-erdian bertan-beera itzita, beste abarkatxoaren billa joan zan. Eta azeri gaiztoa, orduan be, emakumeak egiten ebanera begira-begira egoan; eta, aren poza ta poza gaztan-otzara andia bide-erdian ikusi ebanean!



AZERI GAZTAE-ZALEA

«Eta Urtsule, azeriaren zarartetara jagita, sua egoalakotan izututa kortara joan zan; eta, kortako atea edegi zaneko, astoak, azeri maltzurra lepoan ebala, lauoinka iges egin eban».

Arrapalada baten bidera jatsirik, otzarako gaztae guztiak atz-miazketan jan ebazan. Aren ekiña orretan! Ase ta bete egin zan.

Gero, barriz, gaztaeak janda gero, egarri andia sortu yakon; egarritz ito-bearrez egoan. Eta «Inpernu-erreka»ra joanda, bertako ur guztia edan eban. Eta urez «putxi-putxi» eginda gero, basetxeko solora joanda, lotan geratu zan.

Alako baten, barruko urak parrastaka urteten asi yakozan. Urten eta urten... Alako uriolarik! Ur ugari arek soloko gari guztiak tatarras eroan ebazan.

Soloko garia urak ondatu ebanean, inguruan zan mutiko zoli batek Urtsule andereari dei egin eutsan:

—Urtsule!, urak daroa garia...! Urtsule!, urak daroa garia...!, azeri maltzuraren urak...

Orduan, Urtsule etxekandrea, mutiko zoliaren deadar errimeak bizkortuta, zer jazo ete-zeitekean ikustera urten zan; eta, azeri gaiztoak basetxeko soloan egin eban triskantzea ikusi ebanean, asarre-bitsetan jarri zan.

Azeri zirtzil arek, abarkatxoaz polito-polito atzipetuta, leenen otzarako gaztae guztiak jan eutsazan, eta gero, soloko gariak ondatu.

Urtsule-k, azeria solo-munan lozorroan ziardua aurkitu eban; eta, buztanetik oraturik, zartada galantak emon eutsazan; eta makillaka ta makillaka sekulako edertoen astinduta gero, basetxeko kortara eroan eban, eta antxe, kortako giltzape illunean sartu eban.

Kortan, bei bat, txarri bat eta asto bat egozan. Azeriak, arto-garaua lako negar-arpuluak isurten ebazala, negar eta negar egiten eban. Aren uluak eta garrasiak Mugarra bera bigundu zeikean. Alako negartirik...!

—Azeri, ¿zer dala-ta egiten dok orrenbeste ulu ta negar? —itandu eutsan astoak.

—¿Zegaitik egiten yoadan negar? Ire etxekandra okerrak emoniko zartada errimeak eragiten yaustek negar, eta ez bestek... —erantzun eutsan azeriak.

—¿Zegaitik jo au, ba?

—Urak soloa ondatu yautsalako jo naiok... Urioleak garia eroan yautsalako... Olakorik, orraitño, iñon ez dok jazo... Ire etxekandra zirtzillak egiñkoari, ¿zer deritxak, astoko? Urak egiñko kaltea neure bizkar gaxoari ezartea, ¿gauzarik okerrera ez ete-dok?

—Olantxe dok, izan be: urak egiñko kaltearen errua euri ezartea, bidebagekeriarik baltzena dok... Laiñoan-beera datorrena ¿nok atzeratu? Goitik beerakoari, ¿zein besok eutsi? Eta euriaren errua, urak egiñko kaltearen errua, eure lepoari ezarri...! Gauza bakan ori, edonok ez yok ulertuko... Erruki aut...

Astoa ta azeria barriketan ziarduen artean, beia ta txarria, an, korta- baztarrean, ixil-ixilik egozan. Iñungane-ko azeri andia aspaldian ezagutzen eben ezkerro, aska utsaren ertzera bada-epada be musturrik ez eben eroan, zerbait jazo zeitekearen bildurrez egozan-eta.

—I, astoko —esan eutsan azeriak aurpegi tamal-tsz—: ire biotz ederreko errukia bear danez agertzeko, mesede andi bat egin bear daustak gaur. Begira: Urtsule-k kortako atea edegi dagianean, ortxe eure lepoan jesarrita nagoala, ariñeketa baten Iñungane-mendira eroan bear nok... ¿Eroango ete-nok?... Mesede andi ori egiten ba-daustak egin, gura-añña lasto ta gura-añña arto emongo dauadaz...

Eta astoak, gura-añña arto ta lasto jatearren, osoro baietz esan eutsan.

Aretan, gaberdi-aldean, azeria zarata baten asi zan: «Sua, sua! Etxea erreten!», iñoan. Eta Urtsule, azeriaren zaratetara jagita, sua egoalakotan izututa, kortara joan zan; eta, kortako atea edegi zaneko, astoak, azeri maltzurra lepoan ebalá, lauoinka iges egin eban.

Iñungane-mendira eldu ziranean, baiña, azeria, astoari ez esker eta ez ezertxo be esan bagarik, «rrast!», bere zuloan sartu zan. Astoa, osterá, azeria atzera agertuko zalakotan, zulo-ertzean zain geratu zan, lastoa ta artoa jateko gurariz egoan gaisoa-ta.

Baiña azeria bere zulotik iñoiz be ez zan urteten-eta, gure astoa estutu egin zan. Eta orduan, astoak, bere burua zuloruntz jarrita, abots tamaltsuz,

—Azeri —esan utsan—: ¿noiz emongo daustazak artoa ta lastoa? Ala... ¿nik egiñiko mesedearen gomutarik be ez ete-dok?

—Ajaja! Oraindiño be or ago, astoko? —erantzun utsan azeriak—. Orain be or? Nik emoniko artoaz eta lastoaz ire zilbota bete bear ba-dok, orraitino, ez ago orren txarto be...! Barriro be egon bear izango dok, bai, belarri-luze ta buru-andi, txantxetan-benetan negar-kantari! Beiñolako «zereko zeren» esakun au, ¿ez ete-dok buruan?

Agindua bat, emona bi;
aginduaz poz-pozik izan adi.

Eta orduan, astoa, destaiñezko berba lakarrak entzunda gero, arrantza baten asi zan. Barriro be azeriak, barre-santzo luzeak egin ebazan; eta gero, asarre-antzean, auxe esan utsan:

Ze arto ta ze lasto;
oa etxera, astoko!

Astoaren tamala ori entzundakoan! Eta azeriaren eskertxarraz ikaratuta, asto gaisoa alako baten mendian-

beera abiatu zan. Bide guztia negarrez egin eban. Eta, atan-orretan, etxera eldu zanean, korta baztarrera joanda, bere sabel-gosea ase gurarik, «garragarra» irabazten asi zan. Orretan zala, Urtsule etxekandrea adaki bat eskuetan ebala urreratu yakon; eta, makilleaz emon-emonak eginda gero, «Or dozak artoa, lastoa ta garagarra be —esan utsan—. Azeri gaiztoaren laguntzaillerik onena eu izan az, ¿e? Etxean egoteko beste be ez az, astotzar ori...


Eta asto gaisoak, an buru-zuriketean astea alper-alperrekoa zala konturatu zanean, belarri biak zapal-zapal ebazala, auxe esan eban:

On-egiñaren saria
ate-ostean makilla.
An makilla ta emen makilla,
astoarentzat beti makilla.

Iñungane-ko azeri zar andiak, emakume bakunari ta asto gaisoari, ortik-emendik, lakoratzta iñongo ondoen sartu eutsen.

Kontuz ibili azeriaz. Gogoan izan esakun au:

Azeria, bere ongarri
eta besteen kaltegarri.



4. MARI URRIKA TA ARTZAIÑA

Bein, «Aldrabasketa»ko artzain zaarrari, Anboto-ko Mari Urrika-k ilinti biztua eskiñi eutsan. Artzain zaar arek, baiña, emakume bakan arek eskiñi eutsan bezuza (erregalua) ezetara be ez eban artu nai izan.

Orduan, Mari Urrika-k, bezuza ez artzearen zegaitia jakin gurarik, artzain zaarrari auxe itandu eutsan:

—Ilinti polit au, ¿zegaitik ez dozu artu nai?

—¿Ilinti polita ori? Bestelako gauzea! —erantzun eutsan artzaiñak—. Amaikatxo orrelako ba-dago gure supazterrean... Ez, ilinti ori ez daroat iñora...

—Oker zagoz, artzain: onelakorik ez dago zure etxean. Artu ta eroan egizu, ba, eta zeure etxean ikusiko dozu ondo, au dan gauza ederra. Ilinti berezia da... Tirozu, croan egizu...

Esanen-esanez eta ekiñen-ekiñez, alako baten, Mari Urrika-k artzain zaarra ilintia artzera jarri eban. Eta gure gizona, ilintia eskuratzeaz batera, mendian-zear eta basoan-beera etxerantz abiatu zan. Etxeratu zanez, bere emazteari arnas-oska esan eutsan:

—Ona emen Mari Urrika-k egiñiko bezuza...

—Ori bezuza! A lelotzarra! —esan eutsan irriz emazteak—. Ilintia da-ta! Oraindiño olakorik! Eskaratzeko supazterrean amaika olako ba-dago...

—Olakoa ez dala esan daust berak, baiña... Gauza berezi bat dala-ta, artzeko ta artzeko esanez, nai ta nai ez artu-crazo daust.

—Mari Urrika-ren maltzurkeriak... —erantzun eutsan emazteak.

—Maltzurkeria edo zera... ez dakit nik zer izan daiteken be —esan eban arduraz gizonak—. Ea, ba, eutsi ilinti au, eta zelakoa dan zeure eskuz eta begiz ikusi.

Eta beste bagarik, ilinti bakana, gizonaren esku gogorretatik emakumearen esku bigunetara igaro zan.

Eta, zer izan zan orduan! Ilinti bakanak, emakumearen eskuetara eldu zanez, erre-diruak parrastaka jaurti ebazan eskaratzaren erdi-erdira. Alako dirutzarik!

A ikustean, emaztea, pozaren-pozez zoro bat eginda, «au zoriona, au zoriona!» esanez, arterik artu ezinda, deadarka ta zarataka asi zan.

—Ilinti miragarri au dala-ta, zoriontsu gara, gizon! —iñoan pozarren—. Dana dirua ta dana urrea! Olako aberastasunik eta olako zorionik! Orain, baiña, ene gizon, gure zoriona andiagotzeko, biar goizean Anboto-ra joanda, Mari Urrika-ri berau lako beste ilinti bat eskatu bear dautsazu... Orduantxe bai izango gareala benetako aberats eta zoriontsu...!

—¿Naikoa zoriontsu ez gara, ba? —erantzun eutsan gizonak—. Leenari begiratu ezker, aberastasunik asko daukañ bai, arranotan! Zetako diru geiago?

—Ez, ez eta ez... Ez dogu naikoa... —esan eban andreak negar-muskurioz—. Oraindiño askozaz aberatsagoak izan gaitekez-ta... Zoaz biar Anboto-ra; zoaz

andrearen esana egitearren be, eta Mari Urrika-ri ilinti bat eskatu egiozu. Eta berak ezer itauntzen ba-dautsu, emaztearen esana egitearren joan zareala esango dautsazu...

Geiagoko bagarik, Aldrabasketa-ko artzaiña, emaztearen esana egitearren, biaramon-goizean Anboto-atxera joan zan; eta bertako txuntxurrean Mari Urrika-ri beste ilinti bat eskatu eutsan.

Anboto-ko andereari, artzaiñaren eskabideak barre eragin eutsan; eta andera bakan arek, irri-barreka ta txantxetan-benetan, artzain zaarrari auxe esan eutsan:

—¿Zer, artzain? ¿Zer dakazu? Leengo eguneko ilintia nekez baten artu... ¿eta orain zeu zatoz beste baten eske? ¿Zer dala-ta?

—Entzun, ba, Mari: atzoko ilintia atsegin be atsegin izan ebala-ta, emazteak leengoa lako beste baten billa bialdu nau... Beraz, andrearen esana egitearren etorri naz.

—¿Eta andrearen esana egitearren etorri zara? A, gizon oilloa! —esan eutsan Mari Urrika-k begirakune zorrotzez—. Andrearen esanak egiten ba-diarduzu, ez diarduzu txarto be, zeure andrearen andigurakeriak galduko zaitu-ta.

Eta Mari Urrika-k, esanak esan eginda gero be, artzain zaarrari ilinti andi bat eskuratu eutsan; eta artzaiña,

bestea lako ilintia izango zalakotan, mendian-beera ezti-bitsetan joan zan.

Bitartean, Mari Urrika-k abots itzalez auxe abestu eban:


Andrea etxean agintari,
gizona etorri mandatar; izarrak goian ager orduko,
damutuko yako berari.

Aldrabasketa-ko artzaiñak, ilinti a be, aurreragokoa lez, emaztearen eskuan ipiñi eban, urre-diruak parrastaka urtego ziralakotan.

Baiña orduan jazo zan jazo zana! Ilintiak ikutzeaz batera, emakumearen eskuak sapoz eta sugez bete-bete egin ziran: ilintiaren barrutik urteniko sapo-suge iguingarriak ziran. Aldrabasketa basetxeko baztarrak be, pizti bildurgarriz bete ziran.

Alako zoritxarra ikusita, senar-emazte gaisoak negar baten asi ziran; eta bildur-ikaraz egin ebezan urrengo egunak be.

Azkenez, erriko abadeari dei egitea erabagi eben. Eta abadeak, etxeko baztarrak ur bedeinkatuaz bustita gero, pizti guztiak jaurti ebazan.



5. MUTILLA TA MUSKERRA

Domeka-goiz baten, «Oxintxueta»ko mutil gaztea, ez mezarik entzun, ez ur bedeinkaturik artu, ezetariko kristau-eginbearrik be bete bagarik, patxaraz-patxaraz basora joan zan.

Mutilla, joan eta joan yoian bidean; eta aurrera ta aurrera egiñaz, mendi-gaillurrerantz egiten eban beti. Eta bide-zati andia orrela igarota, zastraka-arte batera eldu zanean, pisti narrasti batek ezkerreko oiñean, «zart!», min bizi-mingarria egin eutsala konturatu zan. «Ai ene!» andi bat egiñaz begiratzen dau, eta musker andi batek bere oiñean agoa ezarrita eukala ikusi eban.

Estutu zan, larritu zan; eta esku-makilleaz zartada errimeak emoten eutsazanarren, muskerrak ikararik be ez, gogor bertan.

Ori ikusita, mutilla, inguruetara begi luzez begiratuta, laguntza-eske deadar baten asi zan.

Bere deadar zolietara, atsotxo bat agertu zan. Eta atsotxo zaarra, mutillaren oiñean alako musker andia ikusi ebanean, arrituta geratu zan. Eta zur eta lur eginda, bere esku biak buruan ebazala, mutillari erruki andiz auxe esan eutsan:

—A, mutil! Ederra daukak aldean! Gaur, domekaz, ¿mezarik entzun dok?

—Ez, ba, ez dot entzun —erantzun eutsan mutillak negar-muskurioz.

—¿Eta ur bedeinkaturik artu?

—Ezta...

Kristau-eginbearrak ez ebazala bete ikusi ebanean, atsoak barrero be bere esku biak burura jaso ebazan; eta alan luzarotxoan egonda gero, tamal-tamalez esan eutsan:

—Ire galdua, mutil! Ori orrela ba-dok... orain pisti orren agoa ire aragitik aldentzeko, iru erritako elizetako kanpaiak amar miñuturen barruan jo bear izango yoek. Bestela... ire zoritxarraren zoritxarra! Muskerra oiñean dokala, or egon bear izango dok betiko...

Berba bildurgarriok entzunda gero, mutillak garratzago egiten eban negar: amar miñuturen barruan iru erritako kanpaiak jotea, gauza gatxa izango zala-ta.

Negar ugari eginda gero, bere begiak begirakune itunez zuzenduta, atsoari abots illunez auxe itandu eutsan:

—Eta... amar miñuturen barruan, iru errietako kanpaiok, ¿nok joko dauz?

—Besterik ezean, neuk joko yoadaz, mutil... —erantzun eutsan atsoak errukiz beterik—. Ori egiteko, eure pekatuetaz damututa agoan ala ez jakin bear, baiña... Damu az, ¿eztok?

—Bai, damu naz —erantzun eutsan mutillak bular-joka.

Orduan, atsoa «ondo yagok» esanda, iru erritara joan zan; eta areitariko elizetako kanpaiak gogo beroz jo ebazan.


Leenengo erriko kanpaiak, bere otsaz batera, auxe esan eban: «Talan, talan: mezarik entzun ez daualako, muskerra oiñean.»

Bigarrengoak, barriz: «Txilin, txilin: ur bedeinkaturik artu ez daualako, muskerrak min egin.»

Irugarrengoak, oster: «Tolon, tolon: txarto egiñaz damutu dalako, oraintxe bertan zorion.»

Eta azkenengo kanpai-otsaz batera, muskerra mutillaren ondotik arrapaladan aldendu zan; eta, bidezidorretik arin-arinka joanda, sasipe baten sartu zan.

Olan, mutilla muskerraren agotik askatuta geratu zan, eta oratuaren ezaugarririk be ez yakon geratu.



6. TXIKITAKO IPUIÑA

Bein, «Bidekurutze»ko mutilla, aizkora zorrotz bat eskuan ebala, zugatzak iñhausteko asmoz, basora joan zan. Eta eldu ta bertantxe, pago andi baten ganera igo eta zugatzaren adarrik sendoena aizkoreaz joten asi zan; berak oiñak ezarrita eukazan zugatz-adarra ebagi bear ebala otu yakon.

Orretan ziarduala, basoaren erdiko bidean gizon txiki-txiki bat otoz-otoan agertu zan; gizon txikia, astotzar baten ganean, alai-alai kantatzen etorren. Gizon txikiak, Bidekurutze-ko mutilla oiñak ezarrita eukazan zugatz-adarra ebagiten ikusi ebanean, barre egin eban, berekautan esanez: «Kokolo-mokolo orrek bere oin-azpiko egurra ebagiten ziarduk ... Olan jarraitzen ba-yok, laster dok ankaz-gora lurrean...».

Eta zugatzera bere begiak maitasunez zuzenduta, mutillari ondo-guraz,

—I, mutil —esan eutsan—: zugatz-adar ori jausi daitenean, eu be jausi egingo az... Abil arduraz.

Zugatz-ganean iñausketan ziarduan mutillak, berbok entzun ebazanean, barre-santzoak egin ebazan. Eta irri ta barre naikoa eginda gero, gizon txikiari destaiñez auxe esan eutsan:

—¿Jausi? Bai, zera! Jausiko nazala igarteko, ¿aztruren bat ala igarleren bat ete-zara, ba? Olako gauzarik ez dot sinisten nik...

—Ez, ez nok aztrua eta ez igarlea be. Baiña, aztrua ta igarlea ez nazarren be, or zugatz-ganean abillen lez ba-abil, azkenengo aizkorakadea emon ordukoxe jausiko azala igarteko beste argi ba-yaukoat buruan... Beraz, zugatz-adarraz batera jausiko azala diraustat barriro be.

—Zu zara kokoloa! ¿Ori be esan? Nok sinistu ba-lego, orraitio...

Eta ori esanda, Bidekurutze-ko mutillak bere saillari leen baiño garratzago ekin eutsan. Azkoraketa errimean ziarduan.

Ekin eta ekin, alako baten, bere oiñazpiko zugatz-adarra lokatu egin zan; eta bat-batean «karrak» eginda, lurrera jausi zan. Eta adarraz batera mutillaren soiñak be lurrean ots egin eban, zartada errimea artzen ebala.

Orduan, mutilla ikaratu egin zan; bidetik igaro zan gizon txikiak esanikoa osoro bete zan ezkerro, bere buruko uleak zutik jarri ziran. Eta berari berba egin eutsan gizona igarleren bat izango zala-ta, aren atzetik bidez-bide joan zan. «Arraioa!, gizontxoak igarri egin yok. Igarleren bat-edo dok, antza. Irri ta barre egin dautsadanarren, bere billa joango nok, eta parka eskatuko yautsoat... —iñoan mutillak damu andiz—. Bearbada... gizon orrek, jausiko nazala igarri daustan ezkerro, noiz ilgo nazan be igarri aal izango yok. Oi, ori ba-neckik!»

İbili ta ibili eginda gero, alako baten, gizon txikia bide-crtzeko landa baten atsedentzen jesarrita egoala ikusi

eban. Eta, aregana begirunez eta bildurrez urreratuta, berba tamaltsuz auxe esan eutsan:

—Zu, gizon: zuri irri ta barre egiñagaitik, damu be damu naz biotzez. Parkatu egidazu, gizon andiren bat zaralakotan nago-ta... Leen, zugatzetik jausi egingo nazala esan daustazunean, ezertxo be ez dautsut sinistu, zure esanak aizearen putzak izango ziralakotan... Orain, baiña, guztia sinisten dot, zure esanak osoro bete dira-ta. Ori igarri dozun ezkeru, barriz, orain beste gauza bat be igarriko dozulakotan nago. Itau garrantzitsu bat egin nai dautsut, noiz ilgo nazan jakin gura neuke-ta... ¿Noiz ilgo ete-naz, ba?

—Irri ta barre egiña, parkatuta daukak, mutil —erantzun eutsan gizon txikiak—. Baiña... ¿ba-dakik, gero, itau ausartu bat egin daustakala oraintxe bertan? Norbera noiz ilgo dan jakitea, ¿zer dala uste dok? Baiña, tira; itxaron egik unetxo baten, ire itau ausartuak erantzuna lastertxo izango yok-eta.

Gerotxoago, gizon txikiak, mutillari bere astoa erakutsita, auxe esan eutsan:

—Eutso asto au euretzat: iretzako lagunik onena, berau dok izan be-ta... I noiz ilgo azan jakin nai ba-dok, barriz, oa asto onegaz mendirik-mendi; eta bide asko igarota gero, astoak iru estul egin dagizanean, orduantxe jakingo dok noiz ilgo azan: astoak iru estul egin dagizanean, ire azkena orduantxe izango dok-eta.

Mutilla, gizon txikiak esanikoaz ikaratuta, astoa aurrean ebala, mendia-gora abiatu zan. Une baten ibilita gero, mendi-barrenean, astoak estul egin eban; eta gerotxoago barriro be estul egin eban. Bigarren estulak mutilla lau orrien ikaran ipiñi eban, bere azkena ur izango zalakotan.

Irugarren estula entzun ebanean, barriz, Bidekurutze-ko mutilla, bere azkena orduantxe izango zala-ta, bildurraren-bildurrez arrituta, konorte bagarik lurrera jausi zan.

Olanegoala, bertatik lau gizon igaro ziran; eta bidearen erdian mutilla konorte bagarik ikusi ebanean, ildakoren bat izango zala uste izan eban. Eta lau gizon areik, Bidekurutze-ko mutilla ilda egoalakotan, sorbaldetan artuta, erruki andiz eroan eban.

Lau gizonok, mutil eta guzti mendian-beera etozala, bide-gurutze batera eldu ziran. Lau bide egozan an. Eta gizon bik bide batetik joatea nai izan eban; beste biak, barriz, beste bide batetik. Zein bideri jarraitu ebatzi eziñik ziarduela, gizonok, eztabaida gogorrean asita, asarre-bitsetan jarri ziran.

Orduan, ildakotzat egoan mutillak, bere aurpegia bat-batean gora jaso eta eskuaz alboko bide bat erakutsiz, abots itun-itunez auxe esan eban:

—Ni, bizirik nengoanean, bide orretatik joaten nintzan...

Mutillaren abots ituna entzun ebanean, lau gizonak geldota geratu ziran; eta ildakoak berba egin eutsela-ta, «gorpua» bertan-beera bidearen erdian itzita, anka-joko errimea egin eban.

Bidekurutze-ko mutilla be, bere burua bakarrik ikustean, bildurrez ariñeketan asi zan; bera eroan eban gizonak arrapatu gurarik, ari-arin joan zan, deadarka zirautsela: «Or nok, or nok...!»

Eta bidez-bide, itsumustuka, gizon eta mutil mendi-gaillurrean zear urrundu ziran.



7. OTSOA TA AZERIA

Gau baten, otsoa ta azeria asarratu egin ziran, otsoak azeria iruntsi egin nai izan ebalako.

Eta alkarregaz asarreka ziarduela, azeriak otsoari auxe esan eutsan:

—Otsoko: ez nagik jan..., ez nagik iruuntsi..., neuk be bizia euk aiña edo geiago maite yoat-eta.

—Ez, nire bizia ez; nire bizia ik ez dok nik lez maite —esan eutsan otsoak asarre-bitsetan—. Zortzi egun oneitan gosez naiagok: or mendietan zer agoratu arean be ez yoat aurkitu; goseak il-bearrean naiagok... Beraz, onen beste maite dodan biziari iraunerazoteko, ire soñaren mamin-azurrak oraintxe bertan sabeleratu bear yoadaz. Iruntsi egin bear aut...

—Tirok, otsoko: itzi nagik baketan; ez nagik jan beintzat —eskatu eutsan barriro be azeriak—. Ire gose andia aseteko lekura, oraintxe bertontxe eroango aut: gaztae andi bat dagoan lekura eroango aut.

—Gaztae ori, ¿non yagok, ba? —itandu eutsan otsoak begi argiz—. Tirok, esan egidak arin, galdu bear aut bestelata...

Ori entzunda, azeriak otsoa oxingira batera eroan eban; eta oxingira aretan illargiaren irudia ikusi eben. Otsoari, baiña, illargiaren irudia gaztae andi bat zala otu yakon.

Orduan, otsoa, gaztaea jatearren, oxinëko ura edaten asi zan: alan ura kendu ezkerro, gaztaea beingoan agoratuko ebalata. Alan, ba, ura edan eta edan egiten eban.

Ainbeste ur edaten ikusita, azeriak, txantxetan-benetan, otsoari auxe zirutsan:


—I, otsoko: gaztae ori nekez lortzeko gauzea dok, antza: orrenbeste ta orrenbeste ur edan dokanarren, gaztae miragarri ori leen aiña urrin edo urriñago ikusten yoagu-ta... Emen oretan jardun baiño obe izango yoaku, Txarrantxa-ko aitaita ta Maluta-ko amamaren etxera joanda, morokillaz ase ta bete egin... ¿Ez deritzak, otsoko? Gure gose mingarriok antxe kenduko yoaguz...

—Bai, bai: olan obe yoagu izan be... Joan gaitazan oraintxe bertan aitaita-amamakana —erantzun eutsan otsoak.

Esan eta egin, azeriaren asmoari otsoak ondo baiño obeto eritzita, biak batera, ariñeketan saltoka, Txarrantxa-ko aitaita ta Maluta-ko amamaren basetxera joan ziran. Eta basetxe aretara eldu ziranean, aitaita-amamak garia garbitzen ziarduela aurkitu ebezan.

Gure aitaita-amamak, alako abere maltzurak etxe-inguruan ikustean, ez ziran bape poztu; itundu bai, ostera. Ori zala-ta, atso-aguratxoak, alkarri berbatxo bat egiteko be adorerik ez ebela, euren arazoari, ixillean, aurrera ekin eutsoen. Aretan ziarduela, azeriak otsoari irakatsita, otsoak bere zabeleko ur guztia parrastadaka jaurti eban. Eta ur ugari arek, basetxeko atartean egozan gari guztiak ondatuta itzi ebazan.

Ondatze arek Txarranta-ko aitaita eta Maluta-ko amama asarre bizitan jarri eban; eta atso-aguratxo areik,



OTSOA TA AZERIA

«Baina azeria, otsoaren agiñak bere buztanetik aldentzean, barre algara bat eginda, trast bere zuloan sartu zan. Eta otsoa, ago bete agiñaz eta gose galantaz, zulo-ertzean negar baten geratu zan».

asarrearen amorruez, adaki andi bana artuta, otsoari bizkarra ber-bero egin eutsoen. Orduan bai otsoaren garrasiak eta uluak!

Bitartean, azeri maltzurak basetxeko sutondoan morokilla sendo jaten eban. Ase ta bete zanean, barriz, azeria, galdarillako morokil ondarraz bere bizkarra ondo igurtzita ebalá, basorantz astiro-astiro abiatu zan. Eta bide apur bat olan egiñik, bide-ertzeko labarpe baten azeriak otsoa aienaka eta garrasika egoala aurkitu eban.

Otsoa taiu aretan ikustean, azeria be azur guztiak apurtuta bai-leukazan, negarrez eta uluka, deadar baten asi zan.

Otsoa, azeriaren negarrak entzutean biozperaturik, bigunduta geratu zan: aita- amamen zartadak arean be, urrean, a geiago mindu ebela-ta.

—Azeri, ¿zer dok? —itandu eutsan berbots tamaltsuz.

—Oi, otsoko!: orreik, atso-agura denganiñook, dana apurtuta itzi naioek; sekulako zartadakaz birriduta itzi naioek.

—Iri be bai, ¿ez dok? —esan eutsan otsoak ikaraz—. Zirtzil orreik, iri bakarrik ez, neuri be a zelakoak emon daustezan! Orrekaz ezin daitekek: agirakea ta makillea baiño ez yaukek euki be-ta...

—Ire bizkarrak, nireak aiña zartada artu dauanik, ezetara be ezin yoat sinistu, otsoko. Begiratu egiok ondo nire bizkar gaiso oni...: odolduta yagok dana... Eskerrak ora miragarriz igurtzi dodalako. Olako miñak, ¿nok jasan, bestela? Olan ba, min andirik jasan bagarik, oinkadatxo bat be ezin emon yoat. Oi, nire mamin-azurrak! Ni baiño askozaz obeto agoala uste yoat, otsoko...

—Bai... nire miñak ireak bestekoak ez dozakala esango neukek neuk be. Ik baiño ibilpide bizkorragoa, beintzat, ba-yaukoat euki...

—Erruki izan adi nitzaz, ba, otsoko, mendira bakarrik joateko be ez nok-eta...

—Olan ba-dok... euk gura izan ezkeró, neure bizkar-ganean eroango aut —esan eutsan otsoak samurtasunez.

—¿Gura izango ez yoat, ba? —erantzun eutsan azeriak pozez beterik—. Eroan nagik oraintxe berton...

Eta geiago bagarik, otsoa, azeria bizkar-ganean ebala, bideak eta basoak alik bizkorren igarota, beingo baten mendi-gaillurrera eldu zan.

Eta otsoa, azeriaren bizitoki-zulora eldun zanean, gelditu egin zan. Orduan, azeriak, bere bizitoki-ondoan ziur egoala-ta, bere lepoko morokil ondarra otsoari musturretara jaurti eutsan, irriz eta barrez zirautsala:

—Otsoko: nik ez yaukoat goserik ez miñik. Makillakaden zartadak euretzat bakarrik izan dozak, eta ondo irabazita. Urrengoan, iñoren biziari begirune geiago izan egiok...

Eta ori esanda beste bagarik, azeria bere zuloruntz abiatu zan. Baiña otsoak, irri ta barre egin eutsala-ta, azeriari buztanetik agiñakaz oratuta, ez eutsan zuloan sartzen itzi. Orrenbestez, azeria estutu egin za; eta buztanetik agin zorrotz areik aldentzearren, otsoari berba cragin eutsan, esanez:

—Otsoko!: ori dok gosea!

—Gosea diñok? Oraintxe konponduko aut... —erantzun eutsan otsoak amorruez beterik.

Baiña azeria, otsoaren agiñak bere buztanetik aldentzean, barre-algara bat eginda, «rrast!», bere zuloan sartu zan. Eta otsoa, ago bete agiñaz eta gose galantaz, zulo-ertzean negar baten geratu zan.



8. SORGIN-LIBURUA

Bein, «Irakorta» basetxeko mutillari, basotik etxerantz etorrela, bide-ertzean lamiña bat agertu yakon. Eta lamiña arek, mutillari abegi ona eginda, irribarrez esan eutsan:

—Morrosko, ¿Irakorta basetxeko semea al-zara?

—Bai, angoa-edo naz —crantzun eutsan mutillak—; antxe jaiotakoa nazala diñoe-ta... ¿Zegaitik itauntzen daustazu?

—Zure aitaren seme bati aspaldian bezuza (erregalu) bat egin guraz nagoalako.

—¿Bezuza egin guraz?

—Bai; ¿ez dozu nai, ala?

—Ona izan ezkerro, artu be...

Orduan, lamiñeak, eskumako eskua bularreraturik, biotzaren ganetik azal gorridun liburu dotore bat atara eban; eta bezuzatzat emoten eutsala-ta, mutillari eskiñi eutsan. Eta mutillak, polit eta eder eretxita, pozik artu eutsan. «Auxe gauza polita, auxe bezuza ederra!», iñoan.

Irakurteko zabaldu ebanean, baiña, geldota geratu zan: liburuaren orrietan itsu-larrosa pilloak aurkitu ebazan. «Gauzearen bakana! —iñoan—. ¿Liburu onek itsu-larrosak daukaz? Larrosatxo oneik, ¿zer dala-ta? ¿Onez ala txarrez

imiñiak ete-dira? Ene, olakorik! Loratxo onetaz esakun berezia ba-da, ba...

Itsu-larrosa larrosa,
ez zara eder, larrosa;
txikia dozu lorea,
ta arantza zorrotza.

Eta Irakorta-ko mutil gaztea, ori ulertu guraz, itun eta pentsakor jarri zan. Baiña lamiñeak mutillari, ezetara be astirik izan ez egian, begirakune zorrotz bat eginda, ben-ben esan eutsan:

—Tirozu, tirozu; buru-auste geiago bagarik, ekazu liburu ori: letra dotorez ederto apainduta biurtuko dautsut-eta...

Mutillak, liburua aiko-maiko bagarik emon eutsan; eta lamiñeak, bereala eskubitorretik arantza zorrotz bat az odola atarata, libuaren orri zurietan odolez letra bakan batzuk egin ebazan. Gero, idatzi-ostean, barriro be mutillaren eskuetan imiñi eban; eta etxeraño ez egiala zabaldu esan eutsan, etxeko leiorik txikienean gau oro illargitan irakurri egiala erreguturik.

Ganeko egunetan gixagaiso-andiak, lamiñearen burubidea aintzat artuta, iñon diran gaiztakeriak egiten ebazan. Ori zala-ta, auzokoen agogozagarri biurtu zan. Leen ain ona izan zan gaztea arenbestean gaiztotzea, ezin ulertu

izan eben. «Gauza bakanak egiten ebazala-ta, sorgin gaizkiñak euren eratarra erabilhela», iñoen batzuck; «eta gabaren illuntasunaz batera, munduan-zear aizetan ibiltan zala», eta abar.

Egun baten, baiña, «Itsu-larrosa» esakunaz gomutatuta, gure mutillak, egin ebazan txarkeri guztietaz damututa, lamiñearen liburua errekarra jaurti eban. Baiña illuntzean etxeratu zanean, errekarra jaurtiriko liburua, bere gelako mai-ganean aurkitu eban. Biaramonean, gar-artera jaurti eban; eta orduan be, gelako maian aurkitu eban.

Jazokun ain bakan eta arrigarriaz ikaratuta, buruko ule guztiak zutik ebazala, mendirantz arinka abiatu zan.


An, mendi-gaillurrean, aguratxo bat otoitz egiten bular-joka ziarduala ikusi eban. Eta «ni gaiztoa eta ori zuzena» bere kolkorako esanda, aguratxoaren aurrean belaunikotu zan. Eta jazoriko guztia damuz beterik jakiñerazo eutsan, beratzaz erruki izan zedilla erreguturik. Bitartean, aguratxoak otoitz egiten eban.

Alako baten, bakarzale arek, mutillari begirakune gozo ta abegi argia egiñik, berbots leunez esan eutsan:

—Zutundu zaitetz, jagi zaitetz, gazte; neu be zeu lakoxe bat baiño ez naz-ta. Baretu zaitetz, zoritxar orretatik aldentzeko bidean oraintxe jarriko zaitut-eta. Begira: «sorgin-liburu» ori, San Joan aurreko gabeen, sugarretara jaurti bear dozu; eta gero —atzamarra mendi batera zuzenduez-mendi orretara igo eta bertako gurutzearen oiñetan gau osoan otoitz egin bear dozu. Ulertu ondo, baiña: bidea-gora zoiazala, santzoak, ujujuak eta iñon diran soiñuak entzungo dozuz, gaizkin guztiak zure aurka gogor jagiko dira-ta. Baiña zuk ez egin jaramonik, bidean aurrera zuzen jarraitu eta entzunikoa ondo bete. Ori eginda gero, gaizkin guztiak, «sorgin-liburu»z batera, aldendu egingo dirala ikusiko dozu...

Mutillak, dana egingo ebala agindu eutsan. Eta esan eta egin, urrengo San Joan aurreko gabeen, bakarzalearen esan guztiak bete ebazan; eta gauza guztiak arek iragarri ebazanez jazo ei- ziran.

Aurrerantzean, barriz, Irakorta basetxeko mutilla onona ta zuzena izan ei-zan.



9. EMAKUME TXIROA

Erri txiki-txiki baten, emakume alarguna sei seme-alabakin bizi zan. Emakume gaisoak, senarra il yakonetik, sendiaren (familiaren) sorta astuna bere bizkar bigunean eroan bearra izan eban.

Bere biotzaren sei zatiak egun oro janaritu bear... eta ez diru ez beste ogasunik iñondik agiri ez. Baztarrak illun, inguruan ezer agiri ez... Etorkizunaren itzela!

Emakumearen lan-saria, etxearentzat eutsigarri edo abe makala izaten danarren be, gure alargun gaisoa, gau ta egun lan sendo egiñaz, bere etxea jaso gurarik ebillen. Gaisoa!

Egun baten, emakume zintzoa etxe andiki batera garbiketak egitera joan zan. Eta, jauregi aretako eskaratzean lanean ziarduala, bertako alaba nagusiari, beste albista askoren artean, auxe esan utsan: «Au nekea! Txiro izan bear dana, ezin aberastu!»

Neskatilla arek, alargunari entzuniko guztia, gabeen bere aitari azaldu utsan. Eta jauregiko ugazaba biotz-onego gizona zan ezkerro, alabearen azalpena entzunda gero, emakume alargunari erruki izan yakon; eta ori zala-ta, biaramonean, bere etxeko morroe baten bidez, emakume txiroari sei urre-diru bialdu eutsazan, ogi eder baten barruan.

Baiña, ogia esku ta begiakaz ondo arakatuta gero, emakumea itun jarri zan, eta berekautan auxe esan eban:

—Au ogiaren ederra! Nire umetxoak poz-pozik jango leukee. Baiña... auxe tamala!, ogi onek, erre-barria dan ezkerro, bearbada egun bateko—edo obeto esateko—, jatordu

bateko gosea baiño ez dausku kenduko... Ogi biguna, agiñak zorrotz erabili ezkerro, asi ta amaitu bat-batean egiten da... Eta, ¿gero biar zer? ¿Ez ete-da obeto, ogi eder au, «Muguru»ko etxekandreaki-edo, iru bat artogaitik truketea? Bai, obe izango da, bai; bestela... gaur ondo eta biar txarto izango litzake-ta.

Eta berekautan esan ebazan berbok amaitzeaz batera, «Muguru»-ko etxekandreagana joan zan; eta ogi erre-barriaren ordez, iru artopil eder etxeratu ebazan.

Ganeko egun baten, jauregiko zaldunak emakume alarguna kalean-zear yoiala ikusi eban; eta, biotz oneko gizonak, emakumeari apur bat berba eginda gero, auxe esan utsan:

—Eta... leengo egunean bialdu neutsun ogia, ¿gozoa izan zan?

Itaun orreaz, emakumea ezin-geiago lotsatu zan; eta lotsearen lotsaz, bere begiak lurretik jasoteko be gauza ez zala, auxe erantzun utsan:

—Ona, ba, jauna, egi-egia esan bear dausut: zuk bialduriko ogia, erre-barria zan ezkerro, nire umeak iruntsi egingo ebela-ta, Muguru-ko etxekandreaki iru artopillen ordez emon neutsan. Eta olan bearrez, artopil areik nire etxean egun biko gosea ederto kendu eben. Biarko egunaz be arduratu egin bear, jauna...

—Emakume gaisoa! —erantzun utsan zaldunak—; zer egin zenduan ba-zeki! Bialdu neutsun ogiak, zure

umetxoai egun biko gosea bakarrik ez, baita egun batzuetakoa be kenduko eutsen... Ori bai tamala!: ogiaren barruan sei urre-diru bialdu neutsuzan-eta! Egia esaten dozu, bai, «txiro izan bear dana, ezin aberastu» esaten dozunean... Eskuan euki dozun dirua, auzoko andreari emon dautsazu-ta... zeu baiño askozaz aberatsago dan andreari...


Emakumea, zaldunaren berbok entzutean, negar baten asi zan, esku biak buruan ezarrita auxe iñoala:

«Egia da, bai: txiro izan bear dana, ezin aberastu... Beraz, oraintxe ikusi dot argi-argi, txiro bizi izatea, Jaungoikoaren gogoia dana...»

Eta bere begiak zerurantz jasorik, beiñola Jesus maitagarriak Jctsemani-ko ortuan esan ebazan berbok esan ebazan: «Aita, egin bedi zure naia».

Gau aretan, emakume on eta zintzo arek, bere umetxoak ogeratuta gero, etxeko gelarik illunenean aulki zaar baten jesarrita, negar eta negar egin eban...

Eta bere begietatik isuri ebazan negar-malkoak, eroapenaren ontzi deunean (santuan) pillatu ziran ezkerro, arri-bitxi ditziratsuak lez egin eben argi.



10. PRAKAGORRIAK

Zuek gogotan ez dozuen bariku arratsalde baten, «Gereta» basetxeko etxagun zaarra, aizkora andi bat eskuetan eballa, basora egurretan joan zan.

Arratsalde aretako eguraldia, otza ta illuntsua zan: aitz-mendiak laiñoz ondo estalduta egozala, euria zaparrada andiz jausten zan. Olako eguraldia izanda be, gure guizonak bere asmotan atzerarik be ez: bein bidean jarri ezkerero, aurrera ta aurrera baiño ez eban egiten.

Euria goian-beean zala, bideak igaroten ikusita, bere emazteak esan be egin eutsan:

—Gizon!, eguraldi onegaz, ¿nora zoaz?

—Untzillaitz-aldera egurretan —erantzun eutsan gizonak berba gutxitan.

—¿Gaurko eguraldiaz egurretan? —esan eutsan andreak ikaratuta—. Ez zaitez joan gaur, orretarako eguraldi ona be etorriko da-ta. Barikua denez, barriz, ekatzaz beste aldeko mutikoak orrenbaten urduri ibiliko dira...

Senarrak, baiña, emaztearen esanari «entzunda gor» eginda, bidean barriro be aurrera egin eban: atsoen esanak zeatz egitea, gauza gatxa be ba-zala-ta.

San Martin-go kobara eldu zanekoxe, baiña, trumoi-ots ikaragarriaz batera ekaitz bildurgarria sortu zan. Ango oiñazuak, angu euri ta txingor jaustek!

Orrebestez, Gereta-ko etxaguna ikaratu egin zan; eta ekaitz andi aren erpeetatik iges egiteko, antxe bertan zan

labarpe batera iraduz joan zan. Aitz-mendi guztiak bere ganera etorkiozala uste izan eban.

Onetan, San Martin-go kobatik urten ziran zarata batzuek, Gereta-ko etxaguna kobara begira ipiñi eben. Zarata bakan areik, ule-zutik geldota jarri eben. Alako zarata ta garrasirik bere belarriak iñoiz be ez eben entzun. «Olako zaratarik eta garrasirik egundo ez yoat entzun —iñoan berekautan—. ¿Zer ete-yagok bertan? Egingo neukek-eta «bestaldeko mutikoak» dagozala... Txerren guztiak bat eginda be, olako zaratotsik egiteko, orraitino...!

Gure gizona olako gogapenez bildurgarriak ezabilen artean, oiñazu andi baten argitan, kobatik zortzi mutil, zortzirak dantzari antzean, arrapalada baten urten ziran. Mutillok, euren soiñak arkondara baltzez eta praka gorritz estaltzen ebezan; eta euren atzetik beste «prakagorri» bat be turuta bat eskuan eballa ariñeketan agertu zan.

Eta orduan, zortzi mutillak, zortzi «prakagorriak», turuta-otsean iñon diran dantzak egiten asi ziran. Arein jira-birak eta arein saltoak ikusita, Gereta-ko gizona berba egiteko be adore bagarik geratu zan. «Ai, nik andrearen esana egin ba-neu!», iñoan tamalez beterik.

Eta ikuspen ain bakana begi-aurretik kentzeko, eskumako eskuaz «Aitaren» egin eban.

Orduan, «prakagorriak» gelditu egin ziran; eta areitariko batek, asarre-bitsetan etorrira, Gereta-ko etxagunari «Aitaren» egiñiko eskua zugatz (arbola) batera lotu eutsan.

Ori eginda, barrien-barri dantzak egiten asi ziran. Barriro be, Gereta-ko ugazabak beste eskuaz «Aitaren» egin eban; eta orduan be, «prakagorriak» beste eskua be lotu egin eutsoen.

Irugarrenez dantzan asi ziranean, barriz, ujujuka ta deadarka pozarren ibili ziran, labarpeko gizonak «Aitaren»-ik ezin egin eikealakotan.


Gereta-ko gizonak, baiña, eskuak lotuta eukazan ezker, «Aitaren»-ik ezin egin ebala ikusi ebanean, «Jesus» izena esan eban deadarka.

Eta orduantxe jazo zan andiena: «Prakagorriak», JESUS izena entzuteaz batera, garrasi baten deadarka asita,

jolas eta dantza guztiak bertan-beera itziaz, arrapalada baten kobaruntz abiatu ziran; bidean «laugiñak» yoiazala, auxe iñoen: «Gereta-ko gizon zirtzil orrek yaukok errua... Orrexena dok errua... Orrexek ondatu yozak gure dantzak eta orrexek galdu yok gure alaitasuna...»

Eta ori esanda beste bagarik, «prakagorriak» amorruez beterik yoiazala ikusi ebanean, barre-santzoka asita, etxerantzako bidean jarri zan. Eta gabean etxera eldu zanean, ikusirikoaren barri bere emazteari zeatz-meatz emon eutsan.

«Prakagorri» areik, txerrenak izan ei-ziran.





PRAKAGORRIAK

«Prakagorriak, Jesus izena entzuteaz batera, garrasi baten deadarka asita, jolas eta dantza guztiak bertan-beera itziaz arrapalada baten kobarantz abiatu ziran; bidean yoiazala, auxe iñoen: Gereta-ko gizon zirtzil orrek yaukok errua».

11. ARTZAINA TA EPAILLA

Eun ardi ta adari baten jabe zan artzain morrosko bat, mendi-egaleko txabola zaar baten bake-baketan bizi zan.

Artzaiña, bere artalde ederra lakorik ango inguruetan be ez egoala-ta, pozez beterik egoten zan. Ardi bakotxak, urtean-urtean, batek be utsik egin bagarik, bildots biña ekarten eutsazan; eta orrez ganera be, esne, gaztae ta artule, eurakandik gauzarik asko artzen eban. Ori zala-ta, bera artalde ederragana begira, arropuztuta bizi zan.

Epaillaren azkenengo gabean, artzain morroskoa, enparadu gabetan lez, sutondoan aparitarako taloak egiten asi zan. Eta orretan ziarduala, aize biorraz batera, txabolako atakan abots miragarriak norbaitek «artzain, artzain!» deadarka zirautsala entzun eban.

Artzaiña, alako abots bakanez egiñiko deadarra entzutean, ikaratu egin zan. «¿Zer eldu dok ona?» —iñoan berekautan bildurrez beterik—. Aspaldion eldu ez danaren bat eldu dok gaur bertora, antza...».

Eta ateruntz egiteko be adorerik ez ebal, kanpoko deiari berbots dardarez erantzun eutsan:

—¿Nor edo zer zara zu?

—Ni, aize-putzaren abots miragarria naz —erantzun eutsan mendian jira-biraka ebillen abotsak.

—¿Aize-putzaren abotsa zareala diñozu? Olakorik egundo ez dot entzun be egin. Eta... ordu onetan, ¿zer arrano dakazu nire etxera? ¿Ze barri dakazu, gero?

—Ona emen, ba: albista itun bat emotera natorkizu. Epail ankerra, euri ta txingor, begietatik txinpartak dariola,

zure artaldeko ardi guztiak ondatu gurarik datorrela natorkizu esatera. Oraintxe laster etorri be, barriz. Zure artalde on eta eder euki nai ba-doza, zabiz arduraz ta marduraz...

Eta barri itun ori emonda gero, aizearen putza bat-batean isilduta, mendiak zearkatzen ebazala, beste leku batera iraduz joan zan.

Alako berbak entzunda, artzaiña pentsakor jarri zan. Epaillaren gomuteak berak bakarrik be ikara bizia emoten eutsan; eta bere artalde ederraz izango ete-zana gogotara ekarten, artega be artega jarri zan.

Alako baten, bere esturaldian, mendi-erpiñera igota, mendi-basoetako morroskoai dei egitea otu yakon. Eta mendi-gaillurretik deika ekinda, amar santzo luze egin orduko, abea lakoxe amar mutil morrosko urreratu yakozan. Eta amar mutil sendo areik, artzaiñari bere deadarraren zegaitia jakin gurarik, ago batez esan eutsoen:

—Artzain, ¿zer dala-ta egin daukuzu dei? ¿Zetarako bear gaituzu?

—Neure artalde ederra zaintzeko bear zaituet... Aizearen abotsak esan daustanez, Epail maltzurra, euri ta txingor, nire artaldeko ardi guztiak galdu gurarik dator. Ori dala-ta, nire altaldea eder eukiteko, zeuen laguntza bear dot; ¿Epailla igaro arteko morrontza egingo ete-zeuskide?

—Gura aiña talo emoten ba-daukuzu, bai —erantzun eutsoen mutillak.

Gerotxoago, Epailla —aizearen abotsak esan ebanez— betozko illunez agertu zan. Eta ille guztian, egun-bitarteetan bein izaten ziran aterrun txiki-txikiak izan ezik, euri ta euri, txingor eta txingor, eten bagarik jausi ziran. Ori zala-ta, morroeak, euren ardurapeko artaldea zaintzearren, arazoz beterik ibili ziran: bitarteko aterrun txikietan, ardiak basora atara, eta barrero miñutu bat baiño leenago, artaldea arrapaladan txabolara eroan bear izaten eben-eta.

Alan be, orraitio, morroeak zuur eta bizkor ibili ziran ezker, Epaillaren maltzurkeriak gora-beera, artaldeko ardi guztiak leen baizen sendo ta eder geratu ziran.

Epailla igarota gero, amar mutillak, artzaiñak aurrerantzean euren bearrak arean be ez ebal izango-ta, gura aiña talo janda gero, euren lekuetara joan ziran.

Baiña, mutillak alde egin ordukoxe, artzaiña, bere artalde ederragana begira-begira jarrita, barrero be arropuztu egin zan. Eta, «oneik dira ardien ederrak!» esanda, Epaillari atzetik irri ta barre egiten asi zan.


Ori ikusirik, Epailla asarratu egin zan; eta artzaiñaren arrokeria gogor zigortzeko ustez, Jorraillari dei eginda,

—Jorrail —esan eutsan—: ekazuz egun bi ta erdi, artzain arroko orri eun ardi ta begi bat kendu dagiodazan...

Ori entzunda, Jorraillak, bere lagun Epaillak eskatu eutsazan egun bi ta erdiak berealako baten emon eutsazan. Orduan, Epail maltzurak, Jorraillak eskuratu eutsazan egunetan, euria, txingorra ta edurra errime jaurtiaz, artzain arroaren artaldea betiko ondatuta itzi eban: eukazan ardi guztiak, goitik beerako ekatxak bata bestearen atzean il egin eutsazan. Eta artaldeko adar aundidun adari sendoak, barriz, itun egoan bere ugazabari, esturaldian errekatik salto egitera yoiala, adar bat azurpegi jota, eskumako begia atara eutsan.

Orrenbestez, artzaiña illunago jarri zan. Eta ez ardi ta ez begi, naibagez beterik negarrez asita, Epaillari barrero «aupadea» jaurtiteko adorerik arean be ez ebal geratu zan.

Epaillak, oster, artzaiña negarrez ikustean, barre ta barre egin eban: artzaiña baiño bera oraindiño askoz az geiago zala-ta...



12. AINGERU ARRI-ALDATZAILLEA

Antxiña, Berriz errian, bertako bizilagunak eliza eder bat egitea erabagi eben.

Eta egun baten, orretarako gaiak ugari batuta, inguruko argiñik onenak, eliza barria ainbat lasterren jasoteko, orma sendoak egiten asi ziran, bertan arri-pillo andiak batzen ebazala.

Biaramon-goizean, beargiñak, euren egitekoetara joan ziranean, aurregunean eurak egiñiko lan guztia osorik gauzeztuta ikusi eben: egin eben lanaren aztarrenik be ez eben ikusi.

Ori zala-ta, ikaratu ta tamaldu egin ziran. Eta bertan pillatutako arri moltzoak bertatik aldenduta ikustean, ezingeiago tamaldu ziran. Gauza bakan ori ikusita, argiñak alkarrri auxe zirautsoen: «¿Zer arrano jazo dok emen? Sorgiñak, «pamerialak» ala zer denganiño ibili ete-dok berton ona-araka? Lan-egiñaren aztarrenik be ez yoagu ikusten-eta... Ai!..., atzo ekarritako arri-pilloak, ¿non eta non ete-yagozak...?»

Eta olako berbak esanda gero, aldenduriko gauzen billa joatea erabagi eben.

Eta ibili ta ibili eginda gero, alako baten, aldenduriko arriak erriko zelai-une baten alderrezkan polito-polito imiñita egozala aurkitu ebezan.

Orrenbestez, gure gizonak, ikarearen ikaraz, ulezutik jarri ziran. «¿Nor edo zer ibili dok emen?», iñoen etenka. Eta ikusirikoaz, barriri adoretuta, arriak eta abar

nok edo zek croan ebezan jakinguraz, etxerik-etxe itaunka abiatu ziran.

«Gangoiti» basetxera eldu ziranean, baiña, bertako neskatilla batek, gabeko amabietan burdi baten zarateaz batera, «Aurrera zuria, beillegi jo!» deadarra entzun ebala esan eutsen.

Ori entzunda, gizonak, neskatilleari, gabeko amabietan bere logelako leioan zuur eta adi egon zeitela erregutu eutsoen: bearbada, aldenduriko arriak burdi aretan eroanak izango zirala-ta. Neskatilleak baietz erantzun eutsen.

Biaramonean, gizonak, aurkituriko arriak eta abar atzera leengo lekura eroanda, barriri be eliza barria jasoten asi ziran. Eta egun guztian, jateko lain asti ozta-ozta artuta, lanari eten bagarik ekin eutsoen.

Gau aretan «Gangoiti» basetxeko neskatillea, argiñen esanari jaramon egiñik, bere logelako leioan begi ta belarri, adi ta zoli, igarotakoaren zain jarri zan.

Aretan, gabeko amabi-amabietan, illargiaren argitan an urrintxoan burdi bat etorrela ikusi eban. Burdiak, etorri ta etorri, «Gangoiti»-aldera egiten eban beti. Eta astiro-astiro urreratuez, etxe-ondora eldu zanean, arriz beteriko burdi andi bat idi zuri-gorri ederrak ekarrela ikusi eban; eta idi zuri-gorri ederren ondoan, aingeru zuri-lirain bat be oinkada leunez etorrela.

«Gangoiti» basetxearen ondotik igarotean, barriz, aingeru zuri-liraiñak, bere esku leunakaz idiak mokor-aldeetan gozaro-gozaro jotzen ebazala, deadar andi au egin


eban: «Aurrera zuria, beillegi jo..., begira dagoanari begia urten bekio!»

Eta aingeruak deadar egin eban une-unean, «Gangoiti»-ko neskatilleari, ezkerreko begiak, bere lekutik kanpora urtenda, soloko bedartzara jauzi (salto) egin eutsan.

Ori izan zanean, neskatilleak, negarrez asita, deadar baten asi zan. Alan be, aingeru zuriak, «Aurrera zuria, beillegi jo» eten bagarik esanez, jaramon egin bagarik, bere burdi ta guzti aurrera egin eban; eta, arriak leen eroaniko lekura eroan arte, ez zan gelditu be egin.

«Gangoiti» basetxeko neskatillea, ikusgura larregiz leiotik begira egon zalako, Jaungoikoak begi bat kenduaz zigortu eban.

Jazoriko guztiaren albistea zabaldu zanean, erritar guztiak arrituta geratu ziran; eta Jaungoikoak elizea egitea aingeruak arria eroaniko lekuan gura izango ebala-ta, toki aretan bertan egin eben elizea. Eta egiñiko eliza barria, Jaunaren zerura Igoereari eskiñi eutsoen.



13. LAMIÑEAREN ORRAZIA

Bein, «Ibarra» basetxeko etxagunak, basotik etxerantz etorrela, Sailluente-ko landan orrazi dotore bat aurkitu eban. Eta, «Au dok orraziaren polita!» esanda, «Ibarra»ko etxagunak orrazia kolkoan sartu eban.

Etxera eldu zanean, orrazi dotorea aurkitu ebala-ta, pozarren iñoiz baiño gogotsuago apaldu eban; eta gero, egun aretan egiñiko lanaz nekatu egin zala-ta, Agurtza (Errosario) deuna otoitz eginda gero, ogera joan zan.

Gau aretan, eguraldi euritsu ta zaratatsua zan. Eta Ibarra-ko etxagunak, aizearen burrunda andiak eta trumoi-ots itzelak artegatuta, lorik bape ez eban egiten.

Onetan, ekatxaren burrundara itzelaz batera, urriñetik etozan deadar bakan batzuk entzun ebazan. Emakume-abotsa zan, eta geroago ta urrago etorren.

Alako baten, basetxeko atearen otsaz, urrengo berbok entzun ebazan:

Txantxiberraaa!

¿Non dok nire orrazia?

Orrazia emoten ez ba-daustak,
joan dok ire grazia...

Berbok entzutean, etxaguna geldota geratu zan, eta, «lamiñaren bat dok» esanez, artazi batzuk eskuetan ebazala,

atartera jatsi zan; eta atean egoanari, berbots dardarez, auxe itandu eutsan:

—¿Nor edo zer az?

—Sailluente-ko kobako lamiña bat —erantzun eutsan atean egoanak.

—¿Zer bear don?

—Atzo bidean aurkitu zenduan orrazia: gaur gabeon ospatuko dogun jaian erabilteko bear dot-eta...

Basetxeko ateaq barrenan zulotxo bat eukan, eta etxagunak lamiñeari auxe esan eutsan:

—Orrazia artu gura ba-don, leenen ire miiña atezuloan sartu bear izango don.

Eta lamiñcak, orrazia artzearren, bere miiña atezuloan sartu eban. Eta orduan, etxagunak artaziaz, «rrast!», miin erdia ebagi eutsan.

Lamiñea, uluka ta garrasika, berbarik egin eziñik geratu zan. Eta negar baten asita, «mirle, mirle, mirle» esaten, tximistea baizen arin aldendu zan. Eta bidean yoiala, Labarrondo-inguruan beste lamiña pillo andi bat aurkitu eban: areik be orrazi-eske etorri ziran. Eta euren lagunak «mirle, mirle, mirle» iñoala konturatu ziranean, euren aurka milla gizon jagi ziralakotan, burrundara ta abiada baten, guztiak batera barriro kobara joan ziran.

14. LAMIÑA DANTZARIA

Egusentiko argiak gabaren illuntasuna uxatzen eban bitartean, «Gaillurreta»ko etxagunaren alabarik gazteena baso-txabolan egoan bere aitagana yoian, ari gosaria eroatera.

Egunaren goizak udabarriaren antz osoa eban. Txorien txorrotxio zoragarriak errekatxoaren mur-mur ots soiñulariaz batera «udabarria, udabarria!» deadar egiñez, bidazti liraiñaren oinkada baktotxean baso-lora politikak sortzen ziran. Bidearen zoragarria!

Gaillurreta-ko neska liraiña be, txorien antzera, bidean-zear kanta baten ziarduan; eta bide-zidor eta aldatzak bizkor igaroaz, eguzkiaren beroak baztarrak berotzen asi baiño leen, aitaren txabolan zan.

Eguna an goian aitagaz batera ederto ta pozez beterik igarota, illuntzean basoa-beera etxerantz abiatu zan. Gaba, illuna be illuna zan; eta gure neska gaisoa ikarearen-ikaraz arnasea be ozta-ozta artzen ebala etorren. «Au illuntasun bildurgarria! —esan eban—. Norantz noian ba-neki... Illargi ederraren argiak lagun egin beist...» Eta bildurrez zanarren be, aurrera ta aurrera egiten eban beti.

Alako baten, Untzillaitz-aldeko laiño moltzo sendoa astiro urratuaz, illargi betea, amaseiko gorri baten antzera, ikusgarriro agertu zan. Eta neska gazteak, bere bide-lagun agertu zan goiko argiontzi bakanari, «Agur, ondo etorri!» esanez, bildurrez beterik agurtu eban.

Illargiaren argiak, gabari egunaren antza emotean, neskearen bildurra beingoan aldendu zan; eta, bidea errazago igaroko ebalakotan, abestiak kantatzen asi zan.

Onetan, Arranaitz-eko landatxoan, «Illinti-lamiña», soiñeko gorri-gorri bat ebala eta illargirantz begira, iñon diran zirki-mirkiñak egiñez, gurbeta bakana egiten ziarduala ikusi eban... Axe bildurra! ¿Zer egin?

Ikuspen ain bakanaz, gure neskeak iges egiteko asmoa artu eban. Baiña lamiñeak, kiñu bat egiñaz, neskea geldierazo egin eban, eta deadar andiz auxe esan eban:

—Ona emen non datorren nire soiñu-otsera dantzan egingo dauan emakumea! Ene, berau dan ederra! ¿Egingo zeuke dantzan bertan? Aspaldiko gabetan, illargiaren argitan, soiñu polit au joten diardut; eta dantzaririk aurkitzen ez dodan ezkerro, nire lan eta aalegin guztiak alperrik izaten dira. Lan egin eta ezer bere ez... Baiña gaur, zu lako neskatilla liraiña aurkitu dodan ezkerro, pozez be pozez nago. Onetarako zarean zoragarria! Soiñu onetan dantzan egiten ba-dozu, lurreko zorionekoena zeu izango zara... ¿Ez dozu nai?

—Ez, ez dot nai —erantzun eutsan neskeak—. Guraso onen alabea nazan ezkerro, gau-dantzaketan-eta ez naz oitua. Gaiñera, nire senargeia dan Leungane-ko mutillak be, olako dantza-motak ez dauz atsegin izaten. Beraz, nire soiñak zure soiñu-otsetara ez dau zirkiñik egingo...

—Zu zarean ederraz, ¿Leungane-ko mutillari zagoz begira? A baiño lerdengoak eta aberatsagoak aspaldian zeuri adi-adi dagoz-ta...! Zuk dozu edertasuna ba-zeki, edonorentzat ez zengokez... «Zaldi-urdiñeko» asko be, zure duin ez dira-ta...!

Berbok entzutean, neskeak bere kolkorako iñoan: «Onen esan guztiak, ¿egiak ete-dira? Ala, aizearen orbelak lez, ¿utsak eta ustelkorrak ez-ete?»

Eta beratzaz entzun ebazan gorapenai buruz zertxobait pentsatzen egonda gero, lamiñeari ikaraz itandu eutsan:

—¿Onen ederra ete-naz, ba? Nire aurpegiaren irudia oraindiño egundo be ez dot ikusi. Nire aitak, norbere edertasunaren barri jakitea, gazte askorentzat galgarri izaten dala esaten daust-eta... ¿Ederra ete-naz, ba?

—Izango ez zara, ba! Esan dozuzan gauza guztiak, zure aitaren lelokeriak baiño ez dira. Bere esanak egizuz, bai, eta igarteke (igarri bagarik), zorionak iges egingo dautsu arin-arin...

Eta orduan, lamiñeak neskeari eskumako eskutik oratu eutsan; eta, erreka-ondora eroanda, «Begiratu orra — esan eutsan—, egiaren ispillu garbi orretara...»

Eta Gaillurreta-ko alabarik gazteenak, bere begi zabalak errekearen sakonera zuzenduez, bere aurpegiaren irudia ur gardenaren argitasunera ikusi eban.

Orduan, pozez beterik, auxe esan eban:

—¿Ederra nazala? Bai bein! Zure berbak aizearen orbelak ez dira... Emakume aaltsua zara zu beintzat. Orain,


zorioneko izateko, zure soiñuaren dantzaria izatea baiño ez dot bear. Goazan zure jauregira; antxe bizi izango gara ondo-ta! Ango «Lamiña dantzaria» neu izango naz-ta...

Eta neska gaisoa, gau aretan, «Illinti-lamiñea»-gaz batera, Kobagorri-ra joan zan. Eta koba bildurgarri aretan lamiña biurtuta, ganeko gabetan illargiaren argi bigunetan dantzan egiten eban. Eta guztiak, «Lamiña dantzaria» ereisten eutsoen, dantzaririk bizkorrena zala-ta.

Egun baten, baiña, Gaillurreta-ko etxaguna, Mugarra-ko tontorrean bere alaba kutuna zanaren zain egoan. Eta inguruko landa eder baten dantzan ziarduala ikusi ebanean, negar eta negar egin eban.

Orduan, aitak, amar bidar beraganatzeko dei eginda gero, madarikatu egin eban: «Alaba gaizto ori! Jolas lizun orretan diarduzun artean, madarikatua izan zaitez. Eta zure aitak sorturiko soin eder ori bat-batean arri-mokil biurtuko al da!»

Eta une aretan bertan, Gaillurreta-ko alabearen gorputz liraiña arri-mokil biurtu zan. Eta arri-mokillaren inguru guztian, arantza zorrozdu larroso bategen lora baltz-baltzak sortu ebazan...





LAMIÑA DANTZARIA

«Egun baten, Gaillurretako etxaguna, Mugarrako tontorrean berè alaba kutuna zanaren zain egoan. Eta inguruko landa eder baten dantzan ziarduala ikusi ebanean, negar eta negar egin eban».

15. JESUS-EGAITIK

Aste Gurenetan, Kristo gure Jaunaren nekaldi ta eriotza samiñaren gomuta deuna berariz geuganutzen dan Aste Andi oneitan, nire gogo-biotzak geure umearoko egun zorionekoetara, indar ixil-miragarritz, gozaro-gozaro, iges egiten dabe...

Aldi aretako egunak bai egunak! Egun ederrak, egun garbiak, egun aaztueziñak! Aldi aretako Aste Guren baten —egusten santuz uste dot—, iru neskato illobitegi-aurreko landa bedartsura joan gintzazan. Eta bertan, egun aren santutasunaren gomutea buru-biotzetan ondo sartuta genduala, Kristo gure Jaunaren Nekaldi astun eta garratza zelanbait azaltzeko asmoz jesarri gintzazan.

Egun orretan, Idoia neskatoa orretzaz berba egiten asi zan; eta Jasone neskatoa ta ni, berari arretaz entzuten jarduten genduan.

Orretan, begi ta belarri, adi ta zuur gengoza, enparantza-aldetik zugatz-orriak zearkatuaz etorri zan arri azitxo batek, Idoia neskato zolia buru-buruan jo eban; eta iraduz eldu zan arri azitxo arek, neskatoari buruan zauri odoltsua egin eutsan.

Idoia gaisoa, burutik beera erion odola ikusita, ikaraz jarri zan; eta zauriak egiten eutsan min bizia geldirik jasan (eroan) ezinda, enparantza-erdian barreka egoan mutiko okerraren atzetik abiatu zan. «Arrapatzen ba-aut arrapatu... ire okotzekoak!», iñoan gaisoak negarrez.

Mutikoa aurretik eta neskatoa atzetik yoiazala, bideak arin-arinka igaroten ebezan: arein anka-jokoaren bizkorra!

Baiña mutikoak ariñago egiten eban-eta, neskatoa ezelan be ezin urreratu...

Ezelan be ezin arrapatu ebalá ikusi ebanean, Idoia zarataka asi zan, deadarka iñotsala:

—Josetxo! Oraintxe bertan ire oiñak gelditzen ez badozak, eure aitagana joango nok... Oraintxe bertan, gero...!

Berbok entzutean, Josetxo, bere oiñak indar berezi batek geldierazo bai-leutsazan, bat-batean gelditu zan: bere aitaren izenak dardaraka jarri eban, oker-egiñaren zigorra bizkarraldean ziur izango ebalá-ta.

Mutikoa gelditzean, neskatoa, ariñago joanda, beingo baten eldu yakon; eta ari ezkerreko eskutik oraturik, negarrez esan eutsan:

—¿Zer dala-ta jo nok arriaz? Nire buruan olako zauria egiteko, ¿okerrik egin ete-dauat iñoiz? An landatxoan bake-baketan egon gozak-eta... Oi!, gaur illuntzean nire buruko zauria ire aitak ikusi dagianean, ik artu bear dozak belarrondokoak...!

—Ez orrelakorik, Idoia... —esan eutsan mutikoak dardaraka—. Gaurko okerkeri au, Jaungoikoarren!, parkatu egistan. Nire aitari beintzat ez egion onetzaz ezer esan, ez donat geiago gatzik egingo-ta...

Mutikoak bere esanakaz, parka eskatu eutsanean, Idoia neskatoa pentsatzen jarri zan. Eta leentxoago illobitegi-aurreko landan Kristo Jaunari buruz berba egin ebantz

gomutaturik, bere biotza ezin-geiago bigundu zan: Jesus bigunak bere arerioai biotz-biotzez parkatu eutsela-ta.

—Parkatzen dauat, mutil —esan eutsan Idoiak—, Jesusegaitik parkatzen dauat. Onezkero, ire aitak onetzaz ezertxo bere ez yok jakingo...

Orduan, mutikoa, zerua zabaldu bai-litzakion, poz-pozez jarri zan; eta bere poza geiagotuta irri-barre egiñez, astiro-astiro esan eutsan:

—Olan ba-don... biar goizean birigarro bat emongo daunat.

Biamonean, Idoiak, mezea entzunda elizatik urten zanean, Josetxo mutikoa eliz-aurreko zugazpean (arbolapean) egoala aurkitu eban; eta eskerroneko mutiko arek, neskatoari eskuetan eukan birigarro ederra eskiñi eutsan; eta neskato samurrak alako txori ederra, on-egiñaren sari bat lez, poz-pozez barreka artu eban.

Baiña Idoiak, zerbait gerotxoago, iru-lau miñututan pentsatzen jardunda gero, eskuan eukan txoriari eliz-aurreko arte- zugatz andira egaz-eragin eutsan.

Txoria egazka ikusi ebanean, Josetxo geldota geratu zan; berak eskerronez egin eutsan bezuza (erregalua), neskatoak aintzakotzat artu ez ebalakotan, tamaldu be tamaldu egin zan. Eta birigarro ederra zegaitik askatu ete-eban itandu eutsanean, neskato zoliak irri-barrez erantzun eutsan:

—Ona egia: nik txori eder ori, etxera eroanda, kaiola baten sartuko ba-neukek sartu, ik niri atzo egiñiko okerkeria, bere txorrotxioak entzunaz bakarrik, beti neure adimenean egongo litzakek... Nik, barriz, txarto-egiñaren gomutarik arean be ez yoat gura: Kristo gure Jaunak biotz-damutuakaz egiten dauanez, oker-egiñak parkatu eta guztiak maitatu baiño.

Eta, guzti ori arretaz entzunda gero, Josetxok, begietan negarra ebala, —Orrela ba-don, ondo yagon —esan eutsan—. Neuk be Jesusegaitik iñori arririk ez yautsonat geiagoko jaurtiko...

Eta geiagoko bagarik, neskato-mutiko zoliak, euren gogo-biotzetan asmo on ori ebela, bakotxa bere etxera poz-pozik joan zan.



16. PETRALANDA-KO SORGIÑAK

Antxiña, basetxe zaar baten, ama-alaba batzuk morroe bategaz bizi ziran. Ama-alabak emakume beargiñak ziran; egunez, beintzat, soloko lanetan bizkor eta zintzo jarduten eben; illuntze-ondoa asita, barriz, etxeko lanak eginda gero, eskaratzeko supazterrean goruetan jarduten eben.

Etxeko andrak bakarrik ez, baita morroea bera be, lanak egiten ez zan mutil makala. Laietan, bedar-ebagiten eta abar, danean danera ekiana zan; eta, batez be, iñok egiñiko gauzeari okeredo zuzen antza emoten, mutil berezia. Orretan autsak eta mautsak eukazana; begi ta belarri, adi ta zuur ebillen beti.

Ama-alabak, egunez soloko lanak zeatz eginda gero, gabaren illuna mendian-beera astiro-astiro etorten asten zanean, eskaratzeko supazterrean jesarten ziran; eta, goru-ardatzak eskuetan artuta, bertatik ari piñak egiten asten ziran.

Eta au, ori ta bestea esanaz, gaberdirarte-edo egoten ziran beti. Mutilla be eurakaz egoten zan; eta arek artozuriketean jarduten eban.

Baiña bein gabardi-aldia eldu ezkerro, mutilla, orduko nekatuta ongo zala-ta, lotara bialtzen eben. Eta ama-alaba biak, mutillak alde egitean, ixil-mixilka supazterrean ixil-kontuetan jarraitzen eben; eta, gabardi-gaberdia eldu bear zan une itzalean, ama-alabak, goru-ardatzak bertan-beera itzita, etxetik at (kanpora) joaten ziran.

Euren morroea, baiña, kokoloa izan ez, eta kokoloa ez zalako, bere etxeko ama-alabak gaberditzarretan etxetik

kanpora joaten zirala, beingoan igarri eban. Eta orduan, aren jakingurea! «Andra orreik gaberditzarretan, ¿nora arrano joaten ete-dozak...? —iñoan bere kolkorako—. Olakorik!, andrak gabeen etxetik kanpora...! Ez, ba... neu ba-nok neu, eta iñor ba-dok berau, gau-txori denganiño orreik norantz egaztatzen diran, gaur gabeen berton jakingo yoat... Olan ezjakiñean ezetara be ezin bizi naitekek..., ogia zelako lagunakin jaten yoadan be ez yakiat-eta...»

Mutillaren logeleak ate bi eukazan, eta ate bietarik bat eskaratzari eutsala eukan. Eta gure mutilla, gau aretan, bere jakingurea asetearren, atearen giltzulutik begi ta belarri eskaratzean egozan ama-alabai adi-adi jarri zan.

—Ajaja...!, au don gabaren ederra; au don gabaren baltza...! —esan eban amak barre-santzoka.

—Ujuju...! Auxe gau miragarria... Guztia illun, eta izarrak argitan dantzan eta dantzan... —egin eban deadar alabeak santzoka.

—Ijiji ta ajaja... ortik-zear aize-bitsetan ibilteko gabaren egokia... —esan eban atsoak barriro.

Bitartean, barriz, morroea, bere etxekandrak sutondoan egiten eben guztiari adi-adi egoan. Giltzulutik entzun, eta giltzulutik ikusi egiten eban.

Gaberdian-edo, atsoak laratzuan topin andi bat imiñi eban; topiña, ora baltzez bete-beterik egoan. Eta, oinkada ixillez joan yoian gaba zaarrak, arinka etorren gau barriari

bere lekua itzi bear izan eutsan une-unean, ama-alabak euren oiñak topiñeko ora-baltzaz igurtzi ebezan, biak batera iñoela:

Sasi guztien ganetik
eta odei guztien azpitik,
arantz arnasa baten,
eta onantz beste baten...
Trularalara, trularalara
giñoianazan Petralanda-ra...

Eta beste bagarik, ama-alaba biak, kezuloa-gora abiadan, gau illunaren altzoan, aizeak zearkatuaz, Petralandako akelarrera joan ziran.

Guzti ori begi-argiz ikusita, atostean adi egoan mutilla, ikaraz jarri zan; bere etxekandrak sorgin-sorgiñak zirala igarri eban-eta. «Petralanda-ra gabez joateko, sorgiñak edo «pamerialak» (1) izan bear, bai...», iñoan.

Biaramon-goizean, egunsentiak egun barriaren argia ekarri orduko, gure ama-alabok supazterrean goruetan ziarduen. Eta gau guztia orretan igaro bai-leben, arretaz lanean ziarduen, morroeak ezertxo be ez ekialakotan.

Eta egun orretan, gure ama-alabok, batak eskuko miña eta besteak ankakoa eukala-ta, gau-leenean ogeratu ziran. Mutilla, barriz, sutondoan artazuriketan geratu zan; artaburuak garaundu, eta txorokillak sutan erreten ebazala, sutondoko bero gozoan pozez egoan.

Eta gaberdiko une itzela eldu zanean, mutilla be, jakingureak errime jota, bere etxekandrak egiten ebena egiten asi zan. «Petralanda-n zer dagoan be ikusiko yoagu, ba, arranotan...» —iñoan berekautan.

Eta orretarako, berak be, topin andia bera laratzuan ipinita, oiñak ora baltzez sekulako ondoen igurtzi ebazan, ben-ben agin-artean esaten ebala:

Sasi guztien azpitik
eta odei guztien ganetik,
arantz arnasa erdiz...
Trularalara, trularalara
ba-noak Petralanda-ra.

Eta ori esanda, mutilla be kezulotik gora abiadan joan zan, eta... esan ebana oker esan ebalako, bere etxekandrak lez arnasa baten aize-zearka ez zan Petralanda-ratu: «Sasi guztien ganetik eta odei guztien azpitik» esan bearrean, «sasi guztien azpitik eta odei guztien ganetik» esan eban-eta.

Oker-esate ori zala, gure mutillak, sasitzarik-sasitza ta otatarik-otatza joan bear izan eban; eta ori zala-ta, aren negarrak eta aren uluak bide guztian...!

Alako baten, baña, bidean alan ordu bi luzeak eginda, aurpegia ta gorputz guztia odolduta ebazala, garrasi baten Petralanda- ratu zan. Eta Petralanda-n sorgiñak batzarrean egozala aurkitu ebazan. Bertan, ikusteko sorgin pilloak ikusi ebazan; eta arein arteko bat, «sorgin-nagusia» izenaz ezagutzen ebela konturatu zan. Eta «sorgin-nagusia»ri, batzarraren amaieran, enparadu sorgiñak mun egin eutsoen.

Eta gure mutillak, orretarako bere txandea eldu yakonean, sorgin-nagusiari, arrapaladan joanda, bizkarretik burduntzi gorri bat sartu eutsan. Orduan, ango zaratea ta ango deadarra...!

Orrenbestez, sorgin guztiak asarre gorritan jarri ziran; eta areitariko sorgin mee batek, mutilla ostikoaz jota, morroe egoan basetxeko teillatu-txuntxurrera jaurti eban amorruez beterik. Arantz ordu bi luzeetan joan izan ba-zan be, onantz, berak esan ebanez, arnas-erdiz eldu zan.

Gero, teillatuan negar-muzkurioka asita, kezulotik beingo baten etxeratu zan. Eta goiz aretan mutilla, gorputza ezin-geiago jota eukala-ta, etxekandrai ezertxo be esan bagarik, ogera joan zan. Ama-alabak, baiña, arek egin ebanaren barri Petralanda-ra ostera bat egiñaz bakarrik jakin eben. Eta, alako okerkeria euren «sorgin-nagusia»ri egin eutsalako, amorruez jarrita, agiraka garratzak egin eutsoezan.


Mutilla bera be, orrenbeste agiraka entzutean, asarre jarri zan; eta alako andra sorgin-petralakaz batera bizi be ez ebala nai-ta, zor eutsoezan amar urteko soldatak eskatu eutsezan: urte-orreitan, lan-saritzat bein be ezertxo ez eutsoela emon-eta.

Orduan, ama-alabak, mustur-okerre izanda be, amar urteko soldatak egun gutxiren barruan emon bear izan

(1) «Pamerialak»: «familiares» (demonios).

eutsoezan. Eta ganeko egun baten, morroe-mutilla, amar urteko lan-saritzat «eun edukat eta mandarra» artuta, etxe aretatik pozez beterik aldendu zan. Orrenbeste diruaz basetxe

bati eltzeko asmoz joan zan, basetxe baten nasai-nasai bizi izateko.



17. ATRAMIN-GO LAMIÑAK

Beñola, «Atramin»errotako etxagunak, egunez basoan ira-ebaten jardunda gero, illuntzean etxeratu zanean, bere emaztea sutondoan negarrez aurkitu eban. Gizona, emaztea negarrez ikustean, ikaratu egin zan; eta, atsekabe aren aztarrena jakin gurarik,

—¿Zer jazoten da? —itandu eutsan—. ¿Zegaitik negarrok?

Eta senarraren itaunari emazteak ez eutsan ezer erantzun: negar eta negar egiñaz, bere arlo ixillean aurrera jarraitu baiño. Orduan, gizonak, asarre antzera, ben-ben esan eutsan:

—Naiz bata, naiz bestea dala, zer jazoten yatzun oraintxe bertan esan bear daustazu!

—Ona, ba —erantzun eutsan emazteak—: zuretzat aparitarako euki dodan esnea, neska batek laratzutik galdarillea artuta, dangada baten edan daust.

—Ba! Ori baiño ez ba-da...! Eta gauza orri orrenbeste negar eta zizpuru...!

—Bai, baiña... illuntze guztietan etorriko dala esan daust; eta esnea laratzuan gertu eukiten ez ba-dautsat, beragaz eroango nauala...

—Nora, gero, eroan! ¿Geu ez gagoz, ba, ementxe? Eta neska ori, ¿zein modutakoa izan da, ba?

—Larrosea lako aurpegiaz, eder-ederra izan da. Eta nor dan itandu dautsadanean, erreka-ertzeko lora abeslaria dala esan daust. Oi, aren abotsaren eztria! Aren kanta ederrak!

—Egingo neuke-ta, lamiña denganiñoren bat izan dala! Egun oro esnea edatera etorriko dala esan ba-dautsu, lamiñaren bat izan da, urrean: lamiñak, gizonak ardaotara lez, esnetara itsuak izaten dira-ta. Biar, barriz, neure begiakaz ikusi gura dodan ezkerro, basotik goizago etxeratuko naz; eta, beragaz barriketaldi bat egiñaz, nor dan edo nor ez dan laster igarriko dot.

Esan eta egin, biamon-illuntzean, Atramin-go etxaguna goizago etxeratu zan; eta neskatilla ezezaguna sutondoan bere emazteagaz barriketan ziarduala ikusi eban. Neskatillea, baiña, gizona ikustean ikaratuta, isildu egin zan. Eta gizonak berba ta berba egiten eutsanarren, ez eutsan ezer erantzuten.

Orduan, senarrak emazteari esnea egosten ipini egiala esan eutsan; eta emazteak bereala laratzuan galdaila andi bat bete esne ipini eban. Eta esnea goruntz abiatu zanean, neskeak, pozez beterik zoratuta lez, deadar andi bat egiñaz, —Txuria gora!, txuria gora! —esan eban.

Etxekandreak, ori entzunda, neskeari gura-aiña esne emon eutsan; eta neskea, gura-aiña esne edanda gero, isillunea ausita barriketan eta kantatzen asi zan.

Atramin-go etxagunak, neskeak esnezko moskorra aldean ebalá igarri ebanean, bere artean «zertzeladak oraintxe atarako daunadaz» esanda, neskeari berbetan ekin eutsan. Eta iñon diran barriketak eginda gero,

—¿Nor zara? —itandu eutsan.

—Emendik ur dagoan koba eder bateko lamiñea naz ni —erantzun eutsan neskatilleak—; eta gure bizitokirik kutunena, or goiko erreka-ertzean daukagu.

—¿Zenbat zaree?

—Milla ta bat.

—Eta, ¿zer egiten dozue?

—Egunez, mendian lorak batu, eta gabez zeruko izarrak zenbatu, eta aizearen soiñutan dantzan egin...

—Sekulako bizitza daroazue, arranotan! ¿Noiztik zagoze munduan?

—Eguzkia agertu zanetik, lurraren ganean gagoz; eta illargiak eta izarrak goia apaindu dagien artean, emen izango gara.

Azkenengo berbok entzutean, gizona ikaratu egin zan; eta bere kolkorako auxe iñoan: «Eurok inguruan doguzala bizi bear ba-dogu beti, onak gagoz! Gure asaba zintzoak be, eurok zirala bide, iñon diran atsekabeak igaroten ebezan; eta geuk be bardin. Eta... lamiña onen bizitzak mundua mundu dan artean irauten ba-dau, gure ondorengo guztiak be iñon diranak igaro bear izango dabez. Au zoritxarra!»

Zerbait pentsatzen jardunda gero, auxe itandu eutsan:

—Zuen bizia amaitu daikenik, ¿ba-dago ala ez dago?

—Bai, zerbait ba-dago...; baiña iñortxok be ez daki, geuk baiño.

—Esan egidazu, ba, zer dan: nigandik kalterik ez dozue izango-ta. Gaiñera, esnea egun oro emongo dautsugu.

Esne-agintzariatz, lamiñea pozez zoratzen jarri zan. Eta, buruan eban ule-adats eder-gorriskeari eskuakaz oratuta,

—Ona emen gure bizia ta indarra —esan eban—; onetantxe dago gure iraunkortasuna.


—Eta ule-adats miragarriok, ¿zelan ebagi daitezke, ba? —itandu eutsan artega gizonak.

—Ona, ba —erantzun eutsan lamiñeak—: gure ule eder-gorriskea ebagiteko, San Joan egunaren aurregun-gabean jaioriko txekor nabar biren ondarratz, illargi-beteko gau baten, ogei ortzeko burdiñareatz goiko erreka ori gau osoan arakatu bear da. Eta errekea ondo aratuta gero, egunsentia batzarrak argitu baiño leen, txekor nabar biak mendi-gaillurreko aizetan libre itzi bear dira. Orretan dago, ba, gure amaia.

Ganeko egun baten, Atramin-go errotako gizonak, ibili ta ibili, San Joan aurregunean jaioriko txekor nabar bi aurkitu ebezan. Eta, lamiñeak esan eutsanez, goiko errekea, illargi-beteko gau baten, burdiñareatz batera ta bestera ondo arakatu eban. Eta egunsentia baiño leen, burdiñara-ortzak ikusgarrizko ule-adats pilloak atara ebezan. Guztiz, milla ta bat ule-adats zenbatu ei-ebezan.

Eta Atramin-go lamiña guztien azkena egun aretan izan zalako, errotako sendia (familia) aurrerantzean baketan eta zoriontsu bizi izan ei-zan...





ATRAMINGO LAMIÑAK

- «Egunez mendian lorak batu, eta gabez zeruko izarrak zenbatu, eta aizearen soiñutan dantzaz egin...»
—«Eguna agertu zanetik, lurrean ganean gagoz; eta illargiak eta izarrak goia apaindu dagien artean, emen izango gara».

18. LAMIÑEAREN OSTIKADEA

Antxiña, «Pagatzarte»ko mutilla, Ezkubaratz-era orbeletan joan zan. Eta, mendian lanean zintzo ziarduala, gabaren oial baltzak, berak uste eban baiño leenago estaldu eban egunaren argia.

Gabaren illuntasunaz, gure mutilla zerbait ikaratu egin zan, ingurua lamiña ta sorgin-leku bildurgarria zana baeikian-eta. Lamiñak ainbeste be ez eben bildurtzen; sorgiñak, ostera, ikaragarriak yakozan, gaiztoagoak ziralako-edo...

Eta gabaren aldi bakana, oinkada ixillez aurrera yoiala ikustean, orbel-zorro andi bat bizkarreratuta, etxerantz bizkor abiatu zan. Bidean, ixiltasun miragarri bat somatzen eban, gizonik ez abererik munduan bizi ez bai-litzan...

Alako baten, baiña, ixiltasun itzelaren erdian, ujuju zoli ta alaiak entzun ebazan. Eta zarata arekaz ikaratuta, bere begiak Sagarmin-go landa zabalera zuzendu ebazan. Eta antxe, landan bertan, lamiña pillo bat neskatilla lirain eta ederren antzean dantzan eta dantzan ziarduela ikusi ebazan.

Orduan, Pagatzarte-ko morroskoa, neska dantzariak obeto ikustearren, bizkarrean eban orbel-zorroa lurreratuta, arri-mokil baten ganean patxaraz-patxaraz jesarri zan, eta aldi luzetan adi-adi egon zan. Ainbeste ta ainbeste emakume eder euren soin luze-meeakaz —luma utsezkoak bailitzazan—, aizearen soiñu-otsera txairo ta bizkor jolasean ziarduela konturatu zan. Alako ikuspenik!

Eta ikusten eban ikustekoaz osoro geldota, bere kolkorako auxe iñoan: «Oneik bai dantzariak! Onako emakumerik nire begiak egundo ez yoek ikusi... Orrelako

bategaz, orraitino, aiko-maiko andi bagarik ezkonduko nintzakek... Baiña, tamalez, paitak lakoxe oiñak dabez-ta, ezin ezkondu orreik lako bategaz: gure amak nire emaztea lamiñea dala beingoan igarriko leukek-eta. Auxe tamalgarriena!»

Mutillak buruan orrelako zerak erabillezan artean, lamiñak euren jolas bakanak amaitu ebezan. Eta amaikeran, lamiñarik ederrenak, begiak eta eskuak gorantz jasota, urrengo bertsoa abots zoragarritz jaurti eban:

Eguzki, illargi ta izar,
aizeak bere egoak izan;
zuekandik etorriak
gu guztiok izan.

Bertsook esatean, enparadu lamiñak ujujuka ta santzoka asi ziran. Eta Pagatzarte-ko semeak be, bere atsegiña agertzearren, txalo errimeak pozez beterik jo eutsazan.

Lamiñai, baiña, euren jolasak iñortxok be ikusi ez ebezalakotan egozan ezkerro, txalo-ots areik ez yakezan atsegingarri izan. Eta bertsoak esan ebazanak, begietatik txinpartak eriozala, asarez esan eutsan:

—Oi, mutil zirtzil ori! Ixilpetik geure jolasai adi, e?
Ikusgürea bein aseten dauanak, barriro be ase gura izango yok... Jausiko az...

Eta mutillak, lamiñak asarre zirala konturatu zanean, onela esan eban berekautan: «Auxe baltza! Ondo-gureaz txalotu, ¿eta asarratu? Noian bereala emendik, galdua nok bestela-ta.» Eta ariñeketan etxeratu zan.


Ganeko egun baten, Pagatzarte-ko mutilla Durango-n ondotoxo apalduta gero, gaberdi-ostean, Mañari-rantz abiatu zan; eta Mendibeta-n, neskatilla dotoreen antzaz, lamiña bi dantzan jolasten ziarduela ikusi ebazan. Eta bera be (areik dantzan ikustean jolaserako gogo sortuta), neskatillen artera joanik, saltoka ta ikotika asi zan.

Baiña lamiñak zolietan be zoliak izan; eta beiñola, Sagarmin-go landan egin ebezan jolasen adi, ixillean egon zana, axe bera zala igarri ebenean, sekulako zartada errimeak emonda, zauritu-zauritu egin eben. Eta azkenez, bide-zati baten tatarras erabilita gero, Arpeldu-ko zubian bertan-beera itzi eben.

Biamonean, erritarrak Pagatzarte-ko mutilla Arpeldu-ko zubian erdi-illik aurkitu eben. Eta jazo yakona jakitearren, bere konortera ekarteko aalegiñak aalegin egin ebezan; baiña guztia alperrik. Orduan, atsoren bati mutillaren zauriak «parte txarreko» gaizkiñen batzuek egiñikoak izango zirala otu yakon, eta ari «bedeinkaziño» batzuk emotea izango zala egokien... Azkenez, burubide orri guztiak ondo eretxita, «bedeinkaziño» batzuk emon eutsoezan; eta mutilla berealaxe konorteratu zan.

Eta jazo yakona itandu eutsoenean, mutil gizajoak, erdi-negarrez, bertsoetan olantxe erantzun ei-eban:

Ai ene, bada!, oi ene, bada!
Zelan nagoan ondezik?
Lamiñak ostikadak emonda,
saiets bat daukat ausirik,
biotza dot samindurik.
Zer bear dot nik besterik?



19. EIZTARIA TA DEABRUA

Igande-goiz baten, «Atxurkulu» basetxeko gizona, goizean- goiz mezea entzunda, eskopetea sorbaldan dingilizka ebalu, basora txoritan joan zan.

Egun guztian basorik-baso ta mendirik-mendi txoribilla ibilita gero, arri-mokil baten ganean atsedena artzera jarri zan.

Arrausika ta lo-zorian egoala, inguruko landatxoan asto andi bat bedar guria jaten ziarduala ikusi eban. Eta eiztaria*, begi ta belarri, asto baltzari adi-adi jarri yakon. «Onako zoririk orraitioño! —iñoan—. Orra, etxera geiago nekatu bagarik joateko aukera ederra non daukadan bertan!»

Eta ori esanda, beste bagarik, astoari bizkarrera salto egin eutsan; eta aren ganean patxaraz-patxaraz jesarrita, astoari deadar andiz esan eutsan:

Arre, arre, astoa;
orain lan eto gero lastoa...

Ori entzunda, asto baltzak be berba egin eban:

Basoa-gora, mendian-beera,
sasitzan-zear labar-ertzera....
Arre, demoniñua!

Eta geiago bagarik, asto baltzak gure gizona, ikotika ta abiada baten, baso ta mendirik-mendi bildurgarriro erabili eban.

Alako baten, labar andi bate txuntxurrera eldu ziran; eta orduan, astoak, bizkar-ganean eukan gizona, labar-erpiñetik beera jaurti nai izan eban.

Baiña, bere asmo okerra ezetara be ezin bete izan eban, indar miragarri batek bere lau anka eusten eutsen-eta.

Barriro be, astoak bere atzeko anka labar-erpiñeko zuloan sartuta ebazala, aurreko anka biak burua labarra-beera ipiñita, eiztaria bere bizkarretik jaurtiteko aalegiñak egin ebazan. Neke ta aalegin guztiak alper-alperrik, baiña: gizona ezetara be ezin kendu izan eban ganetik.

Orretan, elizatzoko txiliñak ots berezia egin eban, auxe esanez:

—Txarri demoniño! Gaur mezea entzun daualako, gatzik ezin egin oraindiño! Ire txarrerako ta gizonaren onerako egiten yoat nik «din-dan»!

Eta elizatzoko txiliñak «din-dan, din-dan» etenbagarik joteari ekin eutsan.

Orduan, astoak, ari gatzik ezin egin eutsala igarri ebanean, anka-urtika ta ikotika asita, bizkar-ganeko gizona bide-ertzeko landa bedartsura amorru andiz jaurti eban; eta, ori eginda, astoa bera, arrantzaka ta apatxoska, labarra-beera su ta gar joan zan.

Bitartean, eiztariak, landako bedartzan, txorixorrotxio ederren artean, lo gozo-gozoa egin eban.

Aitaturiko asto baltza, deabrua izan ei-zan.

* * *

Beste domeka baten be, arratsaldez, «Atxurkulu»ko gizona berbera, Agurtza eta Errosario deuna otoitz eginda gero, basora txori-billa joan zan. Eta gure gizonak, basoan sartu zanekoxe, bere inguruan erbi pilloak saltoka ta ikotika ikusi ebazan. Eiztariaren poza! «Au dok au! —iñon pozarren—. Onakorik ikustekorik be! Daunbada bataz amar bat ardura bagarik il daitekezak-eta...!»

Eta ori esanda, daunbada bat jaurtita gero, amar erbi beingoan eskuratu ebazan. Orduan, eiztaria ezti-bitsetan jarri zan. Alako eizarik bere bizian ez eban egin. Eta erbi-txorta ederra eskuetan ebala, illuntzean, etxerako bidean pozez beterik abiatu zan. Eta ibili ta ibili eginda, bide-erdian gaba egin yakon.

Alako baten, «Oxin-baltza»-ingurura eldu zan. Eta «Oxin-baltza»-ko ur-ertzean, illargiaren argitan, oillar gorri-gorri bat ikusi eban. Eiztaria, oillar gorria ikustean, poztu egin zan, begiz ikusten eban lako oillarra izango zalakotan. «Au dok izatekoa! —esan eban—: erbiak bakarrik ez, baita oillarra be sekulakoa etxeratu bear yoat gaur nik...»

Eta berbokaz batera, eskopeta-erpiña oillar gorriagana begira ipiñi eban.

Onetan, baiña, «Oxin-baltza»-barrutik ots ikaragarri bat, deadar andi bat urten zan:

—Ori or dagoan ori be, ekarri egidak ona! —esan eban ur-barruko otsak.


Deadar ori entzun ordukoxe, ur-ertzeko oillarrak kukurruku zolia egiñaz, auxe esan eban:

—Ez, gaur ez: Errosarioa ondo esan dauan ezker, orren ondora eltzeko be eskubiderik ez yaukat-eta...

Orretan, oillar gorria, beste kukurruku zoli batzuk aizetan itzita, ego-ots andiak egiñaz, «Oxin-baltza»ren barruan sartu zan.

Berba ta ots arekaz, «Atxurkulu»ko gizona estutu ta larritu egin zan. Eta erbi-txorta eskuetan eta eskopetea sorbaldatik dingilizka ebala, etxerako bidean «Aitarenka» baten jarri zan.

Ur-ertzeko oillar gorria be deabrua izan ei-zan. Eta deabru arek, eiztaria basora Errosario deuna otoitz eginda joan zalako, ezin eroan izan ei-eban beragaz...



20. ABADEA TA DEABRUA

Garilleko egun argi baten, erri txiki bateko abadea, goizean-goiz, mezea emonda, udako goiz-iruntz gozoa artzera, basora joan zan.

Eta gure abadea, mendi-gaillurrera eltzean, txuntxur aretatik bere errira begira jarri zan. An beean, bere errian, elizatxo polita, basetxe zuri-txukunak eta solo-zelai ederrak ikusten ebazan. Aren poza ta aren atsegiña!

Ango garitzak, ango artotzak eta ango ortuari ederrak batez be, abadearen biotza atsegiñez beterik jarten eben. Alako edertasunaz geldota egoan. «Au dok edertasuna! —iñoan—. Nire erriarentzat, Jaungoikoaren esku-zabala! Goratua ta bedeinkatua izan bedi Bera ordu ta une guztietan...»

Eta bere barruko pozaz adoretuta, gorantz begira, «Gloria in excelsis Deo» kanta ederra abestu eban. Abestiaren amaieran, barriz, abadearen abots durunditsuari zeruko aingeru zuriak, abots gozo-gozoz, «Amen, amen» erantzun eutsoen.

Barrero be, abadea bere erritxoari begira jarri zan; aren ugaritasunak, pozaren-pozez, zoratu egin bear eban.

Abadea alan zala, mendi-goienean, kedarra lako gizon baltz bat agertu zan. Eta agertutako baltz bildurgarri arek abadeari, beronen ondora urreratuta, barre destaiñez auxe esan eutsan:

—Mutil!: zer dala-ta orrenbeste poz eta orrenbeste atsegin?

—¿Onenbeste poz zegaitik dodan diñok ik? —eran-tzun eutsan abadeak begi-zearka—. Begiratu egik nire errira: orko solo ederrak eta orko solo-ari ikusgarriak! ¿Benetan pozteko zerik ez ete-yagok bertan, ba?

—Tirok, tirok..., orrenbeste pozteko gauzea be ez dok ori-ta... Ire erriko solo ta ortuak apurtzeko zaldia eskuan daukadazala, ¿ez ete-dakik? Abil arduraz eta marduraz...

Azkenengo berbok entzutean, abadeak gizon a deabrua zala igarri eban. Eta, aurpegia aregana adoretu zuzenduez, ben-ben esan eutsan:

—Eta, eta... ire zaldi indartsuai eusteko indarra lortu daikedala, ¿ez al dakik euk be? Txerren madarikatu ori! I baiño guztiz geiago danaren bat ba-yagok an goian...

Orduan, txerrena asarratu egin zan; eta agin-karraska-otsa bildurgarriro egiñaz, asarre biziz deadar egin eban:

—Ikusiko dok, ikusiko dok... Illuntzera orduko, ire erriko solo ta ortu guztiak triskatuta ta birrinduta geratuko dozak. Ez garirik, ez artorik, ez fruturik ez dok bertan geratuko.

Ori entsunda, abadea, deabruari «ikusiko yoagu nor nor dan» esanda, mendian-beera abiatu zan.

Bidean etorrela, lantzean bein zeru-aldera begiratzen eban. Zeruan eguzkia argi-argi ikusten eban: laiñoaren apurrik be ez zan bertan agiri; urdin-urdin egoan dana.



ABADEA TA DEABRUA

«Oĩnazuak eta trumoi-ots itzelakaz, goitik beera euria ta arria asi ziran jausten. Alan zala be, ezeri be kalterik egiten ez eutsoela, neskatillearen buruko otzaran pillatu ziran.»

Ori ikusita, abadea poztu egin zan; egun aretan ezetariko ekatxik ez zala izango, uste izan eban.

Ibili ta ibili eginda, eguerdirako, etxera jo eban. Eta bazkaritan egoala, nekatuta egoala-ta, eguerdi-ostean ogera joan bear ebala esan eutsan bere arrebeari; eta, bera lotan ziarduan artean, zerua laiñotu ba-ledi laiñotu, dei egin egiala beingoan.

Arrebeak, ardura ori leporatzen ebala, baietz erantzun eutsan.

Baiña neskea, arratsalde aretan, auzoko andrazko batzukaz briskan asi zan; eta, joko aretan ziarduala, bere nebearen esanaz arean be ez zan gomutatu. Nebarik munduan ba-zan be ez zan orduan gomutatzen.

Alako baten trumoiak jo eban. Eta uste bagako trumoi-ots andi arek, oge-ganean bazkalostekoa egiten ziarduan abadea dardar jarri eban.

Ogetik jagi ta leioratu zanean, barriz, zeru osoa laiñoz beterik egoala ikusi eban. Eta bere erritxoko solo ta ortuak apurtu bear ebazan ekaitz bildurgarria ba-etorrela konturatu zanean, aren tamala ta ikarea!

Gurutze deuna, ur bedeinkatua ta liburua artuta, etxeko ortura arrapalada baten jatsi zan. Eta bertatik, arrebeari, otzara bat buruan artuta, ortura, bere ondora joan

zeitela agindu eutsan. Eta arrebeak, otzarea buruan arturik, abadearen agindua berealaxe bete eban.

Orduan, abadea, «konjurua» egiten asi zan; eta otoitzakaz batera, bidean etorren ekaitz kaltegarria atzeratu egiala eskatu eutsan Jaungoikoari. Edo bestela, jausi bear zan arri-abarra, erriko solo-ortuetan kalterik izan ez zeiten, bere arrebearen buruko otzaran sartu egiala. Atzeratzea egoki ez ba-zan be, errian beintzat kalterik ez egiala egin, eskatu ta eskatu egin eutsan Jaunari.

Onetan, oiñaztuak eta trumoi-ots itzelakaz, goitik-beera euria ta arria asi ziran jausten. Alan zala be, Jaungoikoak, abadearen otoitzak gogo onez entzun ebazalako, goitik-beera jausi ziran arri guztiak, ezeri be kalterik egiten ez eutsoela, neskatillearen buruko otzaran pillatu ziran.

Alan, euren erriko solo-ortuak, leen aiña eder edo ederrago geratu ziran.

Gauza miragarri ori izan zan unean, deabrua, barrienbarri agertu zan, eta bere esan kaltegarriak bete ez ziralako, amorruez beterik agertu be.

Abadeak, baiña, deabruari eskerraz gurutzea erakutsirik, aldean eroiazan oiñetakoak jaurti eutsazan. Eta orrenbestez, txerren madarikatua, su ta gar aldendu zan, abadea ta erriko lagun guztiak pozez beterik geratzen zirala.



21. MUGARRA TA ARRANAITZ

Antxiña, gure asabak praka laburrakaz eta ule luzeakaz ebizan aldietan, Mugarra ta Arranaitz, aitz jagiak, asarraldi andiak izan ebezan, andi-guraz eta ikusi-eziñez sorturiko asarraldi garratzak.

Illuntze baten, Mugarra atxak Arranaitz atxari abots itzelez esan eutsan:

—Eup! I baiño ederragoa nok!, i baiño ederragoa...!

—¿Ni baiño ederragoa i? Nongo ederragoa, gero...!
—erantzun eutsan Arranaitz-ek—. Alde batetik azana, bestetik ba-intz be...!

—I baiño andiagoa ba-nok, beintzat...

—Ezta andiagoa be ez az i! Mañaria-n, zeruaren urren, Leungane neure txuntxur jagia yagok-eta. Goren, Leungane yagok!

—Dana dala, bata naiz bestea dala, or konpon. Igaz, arro-keto orregaz, ezin ezer jokatu daitekek, beti goren ibiltan oituta ago-ta. Zugatzetara joko ba-neuk, orraitino, nire bizkarrean zutik dagozan zugatzak ikusi ta zenbatuko ba-eukez, ikaratuta geratuko intzake.

—Ajajaja! Ire zugatzak dirala-ta, ¿ni ikaratu? Ez yagok alakorik! Atze ta aurre, albo ta inguru, ¿zugatzez beterik ez nagok, ba?

—Tirok, ba, tirok, ba... Nire bizkarrean larratzen diran ardi zuri-ederrak ikusiko ba-eukez, orraitino... Amaika ardi ba-yabik emen bedar gozoz janaritzen! Eta txoritan, barriz, sai-arranotan eta osterantzeko egaztitan...

—Arditan, txoritan, abelgorritan eta danetan danera, i baiño geiago nok beti. I baiño geiago ta gorago beti-beti. Nire ondorako, ¿zer az ba i...?

Ori entzunik, Mugarra asarratu egin zan; eta asarrebisetan orro ikaragarri bat egin eban; eta Arranaitz-ek be, orro bardiña egiñik, asarre bizia agertu eutsan. Eta abots sendoz esan eban: «Goazan burrukara!»

Zer jazo ete-zan, adi ta zuur egozan inguruetako artzainak; eta alkarri auxe esan eutsoen:

—Orreik, orretan asten ba-dozak, gure galdua! Ene, ene! Orrelakorik arean be jazo ez daiten, goazan guztiok gora, eta bakotxari zati andi bana kenduta, alkarregandik urrindu daiguzan: gauza onerako, bata bestearen urregi yagok-eta. Orixe egin bear yoagu gaur; bestela, artzain eta ardi, ementxe galduko gozak guztiok.

Artzainak, erabagia ederto egin eben: Arranaitz-i zati bat eta Mugarra-ri beste zati bat kenduta, arri-mokil andi bi Aldebaraieta-raiño jaurti ebezan.

Ori eginda gero, gura besteko bake gozoa ekarri ebela-ta, poz-pezik jarri ziran. Baiña arein poza ta atsegiña, beste gau bateko jazopen batek otoz-otoan itunez beterik itzi ebazan.

Gaba zan; illargi ta izar bagako gau illuna: enparadu gabak baiño askozaz illunagoa ta itzelagoa... Gau bildurgarri

aretan, Mugarra atxa barriro jagi zan, eta orro garratz bat egiñik, auxe esan eban:

Zerua illun dago, lurra illunago;
Arranaitz nagi ori, ¿orain be lotan ago?

Eta beste bagarik, santzo andi bat egiñik, Arra-
naitzi deadar andiz esan eutsan:

—Eup, Arranaitz! Iratzartu adi!

—Ez nayagok lotan! —erantzun eutsan Arra-
naitzek.

—Arranaitz: ire ganean baiño nire ganean artzain
geiago yabik...


—Irean baiño nirean geiago —erantzun eutsan
Arranaitz-ek—. ¿Zenbat daukazak, ba?

—Santzoka zenbatuko dauadaz oraintxe!

Eta «ujujuka» asita, ogei santzoraiño egin ebazan.
Arranaitz be santzoka asi zan; eta ogetabat egin arte ez zan gelditu.

Orduan be, artzaiñak estutu ta ikaratu egin ziran; eta gau-
utsez batzarra eginda, zozketa egitea erabagi eben:
zozketan zoria izan egiana, Gorbeia-mendira bialtzeko. Ori
eginda, zoriak, ala bearrez be, artzaiñik gazteena jo eban.
Eta artzain gaztea, biderako janaririk naikoa aldean ebala,
bere artalde ederraren atzetik, Gorbeia-ra joan zan; alan, aitz
bakotxa ogeiña artzaiñegaz geratu zan.

Aurrerantzean, guztiak beti bakea izan eben; eta
urrengo gabak, illargiak eta izarrak argi-argi egiñez, gau
gozo-zoragarriak izan ziran...



22. DEABRU-LABARRA

Mañaria-n, «Deabru-labarra» izeneko labar andi bat dago. Arri-mokil ori, Urkioleta-tik Saibi mendira goazala, eskumaldeko baso andiaren ganean dago. Labarra, andiandia ta jauskera txarrekoa da. Ori dala-ta, ez gorantz, ez berantz, ez alborantz bertatik iñortxo be ezin igaro daiteke, beeko trokara buruz-aurrera jausi bagarik.

Aren ingurutik igaroten gareanetan, gauza bat ikusten dogu bertan: labarraren erdian marra batzuk dagoz, burdia igarokeran txirringak itzi oi dabezan ezaugarriak lakoxe lerrotxoak.

Marra bakan orreik dirala-ta, gure erritxoen labar orretzaz iñon diran ipuiñak kontatzen dabez. Ona emen orreitariko ipuin bat edo beste.

I

Bein, Ganoste-menditik, gizon bat burdi-bete iraz etorren, deadarka ta santzoka, «aida, gorri!» eta «aida, zuri!» esanez.

Alako baten, burdiak bide-ertzean laprast egin ebalako-edo, idi, burdi ta ira bili-bolaka mendian-beera joanez, beeko errekaraiño jausi ziran.

Ori ikusirik, gizona asarre-bitsetan jarri zan; eta goiak eta beeak amorruez izentaturik, erderazko berba zantar bat esanez, birao andi bat jaurti eban.

Onetan, beetik gorantz, deabru batzuk agertu ziran; eta, deabru bildurgarri areik, idi, burdi ta gizon, guztiak

batera artuta, labarra-gora eroan ebezan. Orduan, ango deadarra, ango zaratea!

Deabruak txartes gorri-gorritz jantzita ei-egozan; eta oiñetan, burdiñazko zapata gogorak ei-eukezan...

II

Beste bein, sorgin dotore batek, umetxo bat burditxo baten ganean labarra-gora ta labarra-beera erabili eban, eguerdiko amabietan eguzkiak bialtzen eban beroa artzen.

Sorgin-sorgintxo,
sorgin-sorgintxo,
txarri-txarrito,
txarri-txarrito.

Ori entzunda, sorgiña asarez jarri zan; eta, begirakada zorrotza jaurtirik, amorruez beterik umeari auxe esan eutsan:

Ume gaizto, ume gaizto:
oa beerantz, baba-lasto.

Eta ori esanda beste bagarik, burditxoari beerantz bultza eginda, ume gaisoa beeko troka sakonera jaurti eban. Ume errukarria bertan illik geratu zan. Gero, urrengo egunetan, sai-pilloak, laiñoa-beera jatsita, umetxoaren gorpu samurra jan eta jan egin eben.

Baiña sorgin ankerrak be, txarto egiñaren ordaiña —edo obeto esateko, zigorra—, antxe bertan izan eban.

Biaramoneko goizaldean, sorgin gaiztoa, Untzillaitzera begira, zeruko izarrak zenbatzen asi zan; eta, orretan ziarduala, Artzate-ko landatik agertu zan adar andidun adari errime batek, topekada andi bat emonaz, labarra-beera jaurti eban. Eta, aren gorputzaz be, saiak ase ta bete egin ziran. Sai areik, euren moko zorrotzak sorgiñaren gorputzean sartu baiño leen, adar andidun adariak urrengo esakun au abestu ei-eban:

Ik asi, nik iri...
ez egin gatzik iñori.

III


Bariku illuntze baten, Txilibistro, Urkiola-erdiko etxagun zaarra, Saibi-aldetik asto andi bat aurean ekarrela

etorri zan. Eta «Deabru-labarra»-ren inguruan, Txilibistro-k astoari abots sendoz auxe esan eutsan: «Iño! Arre, demoniñu ori!» Eta orduan, labar goienetik «alde txarrekoak» txaloak jo eutsoezan. Biraoa jaurti ebalako, «alde txarreko» areik txalotu ta goratu egin eben.

Txaloak entzun ebazanean, Txilibistro-k ikaraldi errimea artu eban; geiago eziñean ikaratu zan. Eta gure gizona, basoa-beera arinka asita, arnasoska baten etxeratu zan, bere kolkorako iñoala: «Ene Jaungoikoa! Leku onetik urten nok! «Iño» ta olako berba motzik geiago ez nik..., ezta «demoniñorik» be ez yoat bariro esango... Olakorik!»

Eta Txilibistro Urkiola-erdiko etxagunak, sutondoko aulki zaar baten jesarrita, olako berbak damuz esaten, gau oso-oso egin ei-eban.

Aurrerantzean, barriz, aren agotik ur gardena lako berba garbiak bakarrik isurten ei-ziran, «Deabru-labarra»ko jazopena egun oro gogora ekarten ebala...





DEABRU - LABARRA

«Artzate-ko landatik agertu zan adar andidun adari errime batek, topekada andi bat emonaz, sorgin gaiztoa labarra-beera jaurti eban. Eta, aren gorputzaz be, saiak ase ta bete egin ziran».

23. «LORRIN» LAMIÑEA TA MUTILLA

Antxiña, «Eperlabarreta» eritxon basetxe ederrean, emakume bat seme bategaz bizi zan. Semea, mutil morroskoerrimea zan; laietan, bedar-ebaten eta enparadu lanak bizkor eta ondo egiten bera lakorik inguruetan ez zan. Eta indarketa guztietan be txapeldun izaten zan ezkerro, erriko ta erbestekoak «Indartsu» izenaz ezagutzen eben. Eta guztiak, ago batez, alako mutil adoreturik iñoiz be ez ebela ezagutu esaten eben.

Illuntze baten, semeak amari auxe esan eutsan:

—Ama, biar goizean Saibi-mendira iratan joan bear dot. Eguraldiak antz ona dakar; eta, uste dodanez, mendi aretan irea aspaldiko arorik onenean aurkituko dot. Eta gaiñera, Urkioletako neska-mutillak be, biar goizean eidoaz mendi orretara, ira-ebatera; eta neuk be, ira-ebate ta ekarteak eurakaz batera egin gura dodaz: niretzat beti adiskide onak izan dira-ta.

—Asmo ori —erantzun eutsan amak— urrengo asterako atzeratu obe dozu: entzun dodanez, «Lorrin» lamiñea, ainbeste gurasori eragin dautsen lamiña ankerra, Sailluente-ko koba-aurreko landatxoan urrezko aulki baten jesarrita egoten da egunotan-eta. Aren gurari ta asmo guztiak, barriz, beti lez, nondik gazteak atzipetu ei-dira. Orregaitik, ba, ene seme, ez zaitetz biar basorantz abiatu: bestela, galdua zara...

Mutillak, amaren berbok entzutean, barre-algara andi bat jaurti eban; eta irribarrez esan eutsan:

—¿Galdua neu? ¿«Lorrin» lamiñearen bildurrez nazala uste dozu, ala? ¿Non litzakit «Indartsu» izena? Oraindiño olakorik!

—Ene seme: indartsua ta adoretsua zaranarren, ez dakizu oraindiño munduko barri. Mundu onetan maltzurrik asko dago; eta or-emenka sareak ugari zabalduaz, gaurko gazteak atzipetzen era bitara diardue: indarbidez eta atseginbidez. Indarbidezko soka latzaz ezin arrapatu diran gizon sendoak, leunkerizko ari mee ta bigunez, sarritan beingoan lotzen dabez. Begira, ba, ene maitel!, askoren maltzurkeriak luzez azken-bageak dira-ta...

—Esan, esan nai dagizun guztia! Lamiñea dala-ta, nire asmoetan atzera-mardorik ez dot egingo. Ni bildurtzekorik ez da oraindiño jaió, ezta jaioko be. Biar goizean, lamiña ta sorgin guztien ganetik mendira joango naz, eta kitu.

Eperlabarreta-ko mutil arro ta cretxia, bere ama onaren burubide on guztiak alde batera itzita, biaramon goizean Saibi-rantz abiatu zan. Eta Sailluente-ra eldu zanean, koba-aurreko landatxoan, «Lorrin» lamiñea, urrezko aulki eder baten jesarrita, ulea orrazten aurkitu eban. «Indartsu»-k, ikusi ebanekoxe, urrengo aupadea jaurti eutsan:

«Lorrin» lamiñatzarrak
ez dau adorerik;
«Indartsu»-ri eltzeko
ez dauko indarririk.

Berbok entzutean, lamiñearen aurpegia asarre bizitan jarri zan; eta eskuetan eukan orrazi gorria mutillari amorruez jaurtirik,

—Mutil arro ta zital ori! —esan eutsan abotz itzelaz—
. Indartsua ta adoretsua azan ala ez, illuntzeko ipar-aizea izango dok ikusle!

«Indartsu»k, orraziari polita eretxita, kolkoan sartu eban. Eta, kolkoan sartzeaz batera, paparra erre yakon. Ulu andi bat egiñik, «Inpernuko bitxi madarikatua» esanda, orrazi bakana erre kara jaurti eban; eta berealaxe, erre kaku ur guztia irakiten asi zan.

Jazopen orreaz, mutillak ikara andirik ez eban artu; eta «lamiñen gauzak» esanda, bideari aurrera jarraitu eutsan, Saibi-mendiraiño. An, egun guztian, Urkioleta-ko gazteakaz batera ira-ebateari ekin eutsan. Eta illuntzean, Eskumendi-ko labar andi baten jesarrita, abesten asi zan.

Kantatzen ziarduan artean, «Lorrin» lamiñea neska baten itxura ederrez agertu yakon; eta berbots ez titsuaz,

—Oi, «Indartsu»! —esan eutsan—. Ederto zagoz gero! Illuntzeko ozkiro gozarotan zure abesti politik atsegingarri yataz. Zure indar eta adore andiaren izenak, zeu ezagutzera ekarri nau. Zuri irabaztekorik emen inguruetan be ez dagoala diardue esaten-eta...

Berbok entzutean, «Indartsu»k, senetik urtenda lez,

—¿Nor zara zu? —esan eutsan poz-pozik—. Eguzkitik illargira ta illargitik eguzkira izan nazararren, zu lakorik ez dot ikusi...

—Goiko mendietako zelai ederretan dantzan eta jolasean bizi nazana naz ni —erantzun eutsan neskeak—. Mendi-gaillur orren ostean dago nire bizitokia. Benetan ederra bera! Bertako aizeak, eguzki-egaletik, illargiaren

ereditik eta izarren artetik leunki ro igaroaz, amesik zoragarrienakaz atsegintzen gaitu; eta gure biotzak, mitxeletak lez, lorarik-lora egaz egiñez, atsegin utsa egiten yaku bizitza. An bai edertasuna! Bertako gauzak azaltzeko, nire miñña ez litzake gai izango, urrezko idaztortza* bear izango litzake-ta...

Berba leunok esanda gero, lamiñeak mutillari eskua luzatu eta beragaz joateko esan eutsan. Eta mutil lilluratua, lamiñeari eskua emonda, an joan zan sasi ta arantza guztien ganetik Sailluente-ko landatxoraiño.

Orduan, landatxoa ezti biurtu zan; erre kaku ura, esne; arriz-ko zubi trauskillak, barriz, lorazkoa biurtu zan. «Indartsu», lorazko zubia pozik igarotera yoi ala, «Lorrin» lamiñña ankerrak, mutillari errime bultzatzen egiñik, koba baltz bildurgarrira buruz aurrera jaurti eban.

Eta lamiñña guztiak, orduan, an barruan mutillari makillakaz eta burduntziakaz zartada ederrak emonik, bizkar guztia birrindu eutsan. Eta guztiak, ago batez, ari iñon diran iraiñak egiñik,

—¿Non dozak orain indarrok eta adoreok? —esan eutsan—. Goizean arro-arro jaurti doan aupadearen lorratzik be ez yoagu entzuten... ¿Mutu egin az, ala? Orain, ire nagusiak geu gozak, koba-barruan ondo lotuta ago-ta. Eta aurrerantzean, ire egun oroko janaririk onena, makillea ta atsekabea baiño ez dok izango...

Ganeko egunetan, Sailluente-ko koba-ingurutik igaroten ziran gazteak, Eperlabarreta-ko mutillaren ulu ta negarrakaz naastean, urrengo berbok entzuten ebezan: «Nitaz lar uste nebalako ta nire ama onaren burubide onak aintzat ez artzearren galdu naz. Eztiak mingotsa, loreak arantzea, eta une labur bateko atsegin zoroak atsekabe andi ta luzeak leporatu daustez...»

Eta gazte askok, berba orrekaz bildurrez dardar, euren gurasoen esanak zintzo egiñik, on-onak izateko asmo sendoa artzen eban.

24. LAMIÑEAREN GERRIKOA

«Angurreta» basetxeko etxagunaren semerik zaarrena, domeka- arratsalde baten, erriko enparantzan aurreku eder batzuk eginda gero, illuntzean etxerantz abiatu zan.

Gau aretan, zerua izarrez ondo apainduta agertzen zanarren, illargiaren argi bigunak biderik ez baztarrrik ezelan be ez ebazan argitzen: inguru guztiak illun-illun egozan. Gabaren itzela!

Ori zala-ta, gure mutil morroskoa, oiñakaz arri-mokillen batzuk noiz joko, bildu-bildurrez yoian, ikaraz esaten ebara: «Ene! Au gabaren baltza! Au bildurra! Illargiaren ordeaz, bideak nok argitu aurkituko ba-neu...»

Onetan, bildur-ikarea kentzearren-edo, santzo errime bat jaurti eban; eta mutillak jaurtiriko santzo errimeari, beste santzo batek erantzun eutsan.

Angurreta-ko mutilla santzo zoli a entzutean, ikaraz geldota jarri zan, bere kolkorako ixil-ixillean iñoala: «Ordu onetan, ¿nor izan daitekek emen? Emakume-abotsa dala esango neukek. Baiña, gau baltz onetan eta ordu onetan, olakorik ezin izan daitekek...»

Bururapenok ebazala, Angurreta-ko mutillak, astiro izanda be, bidean aurrera egiten eban beti.

Alako baten, Oxinburu-ko zugatz-artetik emakume bat, argiontzi gorri bat eskuetan eukala agertu yakon.

Emakumea, argala ta luzea zan. Bere soiña koloreetako jantzi dotoreaz estaltzen eban; eta buruan eban ule luze ta gorritzkea, lepotik beera apainkiro jausten yakon.

Mutilla, alako emakumea ikustean, ezin-geiago geldotu zan. Eta, zeredo nor izango ete-zeitekean jakingureak jota, ben-ben itandu eutsan:

—Emakume ezezagun ori: ¿onez ala txarrez zatoz?

—Onez naiatok, mutil—erantzun eutsan emakumeak irribarrez—. Ni iretzat ezezaguna ba-nok be, i niretzat ondo ezaguna az, Angurreta-ko etxagunaren semerik zaarrena azta. ¿Ez dok olan?

—Bai, Angurreta-koa naz. Baiña, ordu onetan, ¿ze asmok ekarri zaitu, ba, nire ondora?

—Ik bildurrez jaurti dokan santzoak ekarri naiok, mutil. Gaba illuna yagok-eta, illargiaren ordeaz, eskuetan argiontzi oneaz iri bideak argitzera etorri nok. ¿Bidelagun ez nok gura, ala?

—Egin-egiñean be, bide illun eta lakar au ondo igaroteko argi on baten bearra ba-dot, bai... Beraz, bidelagun ona izan ezkerro, argiontzi orren argitan, bide-zidor eta mendiak poz-pozik zearkatuko neukez...

Eta Angurreta-ko mutilla eta emakume agertua, argiontzi gorriak bideak ederto argitzen ebazala, Angurreta-basetxerantz jo eben.

Emakumeak, bidean yoiatzala, iñon diran barriketak eginda, mutil gaisoa itsututa zer esan be ez ekiala izten eban.

Eta, emakumeak, olan barriketan ziarduala, alako baten, zerurantz begiratuta, auxe esan eban:



LAMIÑEAREN GERRIKOA

«Alako baten, Oxinburu-ko zugatz-artetik emakume argal eta luze bat, argi-ontzi gorri bat eskuetan eukala agertu yakon».

—Gau illun-illun onetan, zerua zoragarri yagok, ba..., izar politez iñoiz baiño orniduago yagok-eta. Begira Mugarra-aldeko zeruan jausi-gurarik dingilizka dagoan izar gorrizkea. Ederragorik ikusteko be!

—Alantxe izan be... Eder-ederra da, gero! Ipar-aizearen indar leunak batera ta bestera eraginda, kolorerik politenak eta dirdira arrigarriak egiñez, ikusgarriro dago, egon be...

—Bai, izar zoragarri orrek, bere kiñu-ikara politakaz maite-maite nabela agertzen yok. Eta, bere berbots ixil-eztitsuaz belarrira ots gozoa egiñik, beraganatzeko diraustak. ¿Joango ete-nok? Baiña... bide bakarti onetan, i bertan-beera bakarrik izteak errime tamaltzen naiok.

—Ene, olakorik! ¿Zelan arrano igoko zara ara goraiño?

—¿Igoko ez nok, ba, aizearen umea izan-eta?

—¿Aizearen umea? Egundo entzun ez dodana orixe. Oraindiño andiangoak entzun bear izango doguz...

—Ez ago ez dan gauzarik entzuten: beiñola, ipar-aize gozoak eta ego-aize bigunak Usobil-ko landan sortu eben lora ederretik etorria nok-eta. Orregaitik, odei eta izarretaraiño igoteko ego- bearrik ez yoat, non gura ta antxe nagok-eta.

Orrelako gauza bakanak entzutean, mutilla ule-zutik jarri zan, berekautan iñoala: «¿Zer ete-dok au? Beronegaz, ¿onez ala txarrez ete-noak...?»

Bideak eta mendiak igarota, alako baten Agurreta-ko basetxe- ingurura eldu ziran. Eta etxe-ondoan une bate[ta]n berbetan jardunda gero, emakumeak, gomutagarri bat emoten eutsala esanez, mutillari gerriko gorri-dotore bat ipiñi eutsan. Mutillak, bere gerrian gerriko gorria ikusi ebanean, dardaraka baten asi zan: bere bidelaguna «Zirtzil» lamiñea zala orduantxe jakin eban, baita arek emoniko bezuza be «zoritxar-gerrikoa» zala igarri eban.

Eta, bere bidelagunari, lamiñeari, berba geiago egiteko adorerik arean be ez ebal, arinka baten etxerantz abiatu zan.

Eta etxeratzeaz batera, sutondoan egoan aita zaarrari, «Gabon, aita», esan eutsan.

—Baita euri be, gabon, gau ona ba-dakak, beintzat... —erantzun eutsan aita ben-ben—. Beste domeketan baiño askozaz beranduago etxeratu az gaur. ¿Zer jazo yak, baiña?

Orduan, semeak, gerrian eban gerrikoa erakutsi eutsan. Agurea, gerriko gorria ikustean, negar baten asi zan; eta ordu luzeetan negarrari ekinda gero, agura gaisoak bere semeari berbots tamaltsuz esan eutsan:

—Galdua az, mutil! «Zirtzil»-lamiñearen «zoritxar-gerrikoa» daukak aldean-eta... Orain, ori dala-ta, lamiñatzar ori, eugaz ezkondu gurarik, ementxe etxe-inguruan ibiliko dok beti. Eta bere asmoa beteten ez ba-yok, iñon diran crasoak egiñaz, zoritxarreko egingo au betiko... Orra, zelako etorkizun baltza daukoan, alde bietara galduta ago-ta!

Olako berba bildurgarriak entzunda, mutilla geisotu egin zan. Eta, iru edo lau egun barru, tamalez beterik il zan.

Ilda biaramonean, auzoetako lagunak, gorpua lurperatzera eroan eben. Eta, orretan ziarduela, «Zirtzil» lamiñea, negarrez eta uluka, lagun-artean sartu zan, deadar andiz iñoala: «Ori neurea da, ori neurea da!» Eta illobiraiño olan deadarka lagunduta gero, lamiñea Oxinburu-ko koban garrasi baten asi zan.

Ori ikusita, ganeko egun baten, «Landaluze» eta «Agerre» basetxeetako mutillak, lamiñearen billa joan ziran; eta, ibiliak eginda gero, basoan aurkitu ebanean, arrika ta makillaka il egin eben; eta gero gorpua Arranaitz-gaillurretik beera jaurtita, zati-zati egin eben. «Zoritxar-gerrikoa», barriz, ota-abarrakaz eta su andi-andia eginda, bertan erre-erre egin eben.

Egun aretan, «Zirtzil»en eriotza zala-ta, Aldebaraietan jai izan zan; eta ujuju eta santzo askoren artean, begi-begiko erromeria egin eben.

25. ORRATZONTZIKO SORGIÑAK

Leenagoko urteetan, «Bizkarra» izeneko basetxean abade bat bere arreba bategaz bizi zan. Abade arek, bere etxeko kutxa zaar baten, orratzontzi bat ondo gordeta eukiten eban; eta berak, orrazontzi ari iñortxok be iñoiz ez egiola ikutu ta abar, esaten ziarduan sarri be sarritan.

A zala-ta, etxeko ta auzokoak —emakumeak batez be— orratzontzi miragarri aretan zer egon ete-zeitekean, buru-austez beterik ebizan.

Egun baten, abadeak bere arrebeari auxe esan eutsan:

—Gaur Urkiola-ra noa, eta etxeko egitekoak ondo egiñaz, ea etxea ondo baiño obeto zaintzen dozun. Kortako abelgorriai be lantzean bein begiratu. Eta ni etxetik at nazan artean, or kutxa zaarrean gordeta dagoan orratzontziari ez egin, gero, ikuturik..., goizetik gabera zoritxar gorriren bat leporatu ez dagizun be... Kontuz!

Eta beste bagarik, abadea Urkiola-ganera joan zan. Eta nebeak atzea emon orduko, arrebea kutxara begira jarri zan, bere kolkorako esaten ebala: «Orratzontzi ori dala-ta, gure nebeak darabizan buru-austeak ez dira txikiak gero! Orrenbeste ardura ta buru-auste, ¿zer dala-ta, baiña? Urrea, zidarra, ala arribitxi dirdiratsuren batzuk ete-dagoz bertan? Ontzi bakan orretan zer dagoan, berak bakarrik daki; ori, barriz, olan ez litzake izan bear: etxean zer dagoan, etxeko guztiak jakin bear leukee-ta: etxean bizi danak, gizonak naiz emakumeak, etxean zer dagoan jakitea gauzarik bidezkoena da-ta. Beti aiko-maikoetan ibili bagarik, kutxa zaar ori, giltz

andi oneaz edegi be egingo neuke..., eta bertan zer dagoan ikusi be bai. Baiña, baiña... gure abadea zuur-zuurra da-ta, jazorikoaren barri bereala jakingo leuke, bearbada; besterik ezean, zer izan dan igarri egingo leuke-ta... Ene! ¿Zer egin? Dana dala, onako buru-austerik geiago ezin eroan daiket nik; nire osasuna zerbait maite ba-dot beintzat, miñutu baten be geiago ezin itxaron daiket.»

Eta ori esanda, neska jakingureak, kutxea zabaldua, orratzontzia eskuan artu eban. Eta orduan izan ziran izan ziranak, eta jazo ziran jazo ziranak!

Beste bagarik, orratzontzitik, sorgiñak taka-taka urtetan asi ziran. Eta «zer eingu ta zer eingu» esanez, sorgin batzuek neskeari oiñetatik oratu eutsoen, beste batzuek eskuetatik eta beste batzuek samara zart egin eutsoen. Orduan neskea estutu egin zan; eta, negarrez asita, auxe esan eutsen:

—Lan egin gura ba-dozue, zoaze solora, eta beientzako bedarra ekarri egidazue, ba...

Eta sorgiñak, bereala soloratuta, bedar guztiak beingo baten etxeratu ebezan.

Eta barriro be, neskearen inguruan ikotika asita, «zer eingu ta zer eingu» esaten ziarduen; eta bakea izango ba-zan izan, arbiak ekartera solora bialdu bear izan ebazan; eta, miñutu batzuk barru, inguruetako arbi guztiak etxeko atartera ekarri ebezan. Eta orduan be «zer eingu ta zer eingu» esaten asi ziran.

Neska gaisoa, olako esturaldian negarrez eta uluka asi zan, bere inguruan ikotika ebizan sorgiñai zer agindu be ez ekiala. Alako baten, alan bearrez, bere zorionerako gauza bakan bat agintzea otu yakon.

—Zoaze erre kara —esan eutsen—, eta etxean bear dodan ura galbae onetan ekarri egidazue: gure etxean ur tantarik be ez dago-ta...

Eta sorgiñak, galbaea artuta, erre kara joan ziran, eta ur-ekarten zintzo-zintzo asi. Baiña, areik orretarako egiten eben guztia, alper-alperrik zan: artzen eben ur guztia, lau oinkada emon orduko, galbaearen zuloetatik urtenda, lurrera yoakien-eta. Barriro be erre kara joan, eta barriro be axe bera jazo yaken: ezelan be urik ezin ekarri.

Orretan ziarduela, abadea, Urkiola-ganean eguna ederto eginda, tapa-tapa etxean sartu zan; eta bere arrebea negar baten aurkitu eban.

Zer jazo yakon itandu eutsanean, neskeak auxe erantzun eutsan:

—Orratzontzikoak sakabanatu egin dira..., eta orain larri ta barregarri narabille. Ene...!

Eta jazoriko guztia azaldu eutsan. Entzunikoaz, abadea asarratu egin zan, eta betozko illunez auxe esan eutsan:

—Jakingura petralak alakook! Orratzontzi orrea z arduraz ibilteko, ¿ez dausut esaten ba beti? Zuek lakoakaz, baiña, alperrik da... Eskerrak galbaeaz ura ekarten jarri dozuzalako; bestela, zure galdua: or zintzazan orratzontzian eurakaz batera...

Gero, abadea, orratzontzia arturik, erre kara joan zan; eta bertan «latiñaro» bat esanda beste bagarik, sorgin guztiak beingo baten orratzontzian sartu ziran, kanpoko argitan bat bera be geratzen ez zala.



26. URREZKO LARAKOA

Izarrak dantzan ziarduen eta illargia barreka egoan gau zoragarri baten, «Usua» lamiña liraiña, Mugarra-atxean Kataxuri-ko armokil andiaren ganean, aparteko dantzak egiten asi zan. Eta illargi mosu-zabalari adi-adi zala, besoak gora ta ankai bizkor eragiñez, aizearen otsean dantzan eten-bagarik egiten eban.

Baiña orretan ziarduala, alako baten, lamiñeak oiñak ezarrita eukazan armokilla, bere lekutik bat-batean urtenda, mendian-beera bilin-bolaka keea ta lantarra eriola abiatu zan, «Inpernu-erreka»ra —Aldebaraieta-ko erreka— eldu arte.

Eta orduan, «Ilinti» lamiña nagusiak, Usua liraiñari begirakune zorrotza egiñaz, asarre-bitsetan esan eutsan:

Neskato! Jausi ba-don jausi,
oa atzetik igesi,
gura ez ba-don gatzik ikusi...

Eta ori esanda, Ilinti-k, gau aretan bertan armokilla barrero Kataxuri-ra ekarri egiala agindu eutsan.

Usua lamiñea, barriz, bere nagusiaren esana egitearren, «Inpernu-erreka»ra ariñeketan joanda, armokilla uretatik ataraten asi zan. Guztia alperrrik, baiña; orretarako egiñaalak eginda be, armokillari ikaratxo bat be ezin eragin izan eutsan.

Eta, bere guraria iñondik iñora be ezin bete ebala konturatu zanean, Usua lamiñea, mendian ardi zuriak zaintzen ziarduan artzain mutillagana joan zan, laguntza-eske.

—Artzain, eure bear nok! «Inpernu-erreka»ra jausi yakun armokilla jasoteko, eure bear nok, mutil... Orretan lagun egingo daustak, ¿eztok? Bestela... nire galdua! «Ilinti» ankerraren zigorra neure lepoan legokek...

—Lagun egingo dautsut, bai... eta pozik lagundu be. Estualdian dagoanen bat poztean, nire biotzak atsegin andia artzen dau-ta...

Eta beste bagarik, lamiñeagaz batera «Inpernu-erreka»ra joanda, bertako armokilla ataraten asi zan; eta aalegiñak-aalegin eginda gero, uretan egoan armokil andia, bizkar-ganean Kataxuri-ko txuntxurrera beingo baten jaso eban. Orduan, bai, lamiñearen poza!

—On egiñaren saritzat, ¿orain zer eskatzen dok euk? —itandu eutsan Usua liraiñak artzain mutil gazteari, berbots gozo-gozoz.

—Nik, ezebez (ezer bere ez)... —erantzun eutsan mutillak—. Batak besteari orrenbeste on egiteko beti gagoz gu.

—Tirok, ba, mutil; tirok, ba... Eskerrik asko, mutil.

Eta bere eskerrona agertzeko, beste au be esan eutsan:

—Alako baten, ba... esturaldiren baten-edo, gaurko on-egiña zelan-alan esku-zabalez ordaindu bear izango dauat, bai... Negar egin dagikanean-edo...

Artzain-mutillak, azkenengo berbok entzutean, bere begiak «Arriaga» basetxera zuzenduta, ben-ben esan eban:

—Negar sarritan egin bear izaten dot, bai...!

* * *

Beste egun baten be, Usua lamiñea artzain mutillagana joan zan. Egun aretan, artzain gazteak bere artaldeko ardi ederrak, eguraldi txarraren bildurrez, txabolarantz eroaten ziarduan. Arazo orretan ziarduala, Usua lamiñeak, mutillari dei eginda, samurkiro esan eutsan:

—Mutil, itzi egizak mendian ire ardiak, orain be eure laguntza-bearrean aurkitzen nok-eta. Gure auntz zuria, Mugarra-ko auntzik ederrena, atzo goizean, nora be ez dakigula aldendu yakuan. Esne gozo-gozoa emoten euskun gure auntz kutun-kutuna galdu!... Eta gau osoan aren billa mendirik-mendi eta basorik- baso ibili izan nazararren, auntzik ez aren aztarrenik be ezin aurkitu... Gure tamala! Onetan be, euk egin bear izango daustak lagun, mutil. Lagun egingo daustak, ¿eztok?

—Bai orixe! Gaur be lagun egingo dautsut, bai... —erantzun eutsan mutillak gogo onez—. Nire ardiak txakurraren ardurapean itzirik, ortik-zear mendirik-mendi auntzaren billa joango gara.

Eta beste bagarik, Usua ta mutilla, mendirik-mendi auntzaren billa joan ziran.

Ibiliak ibili eginda gero, Mugarra-ko auntz zuria Arranaitz-ko labar baten erdian egoala ikusi eben. Eta orduan, leku bildurgarri aretatik auntza atara egiala erregutu eutsan lamiñeak mutillari. Mutilla, baiña, aren esana egiteko muker: bertako jauskera bildurgarriak burua zorabiatuta, beeko trokara jausi zeitekeala-ta...

Lamiñeak, barriz, olako bildurrik arean be ez egiala izan, esan eutsan. Eta Usua-k, artzain mutillari bildurra kentzearren, begi biak zapi gorri bat az estaldu eutsazan, ixil-mixilka belarrira esaten eutsala: «Begi-begitxu, ez ago itsu, jatsi adi labarra-beera, eta ekarri egik, buru ta anka, nire auntz kutuna: gatxik arean be ez dok izango-ta...»

Usua-ren esana egitearren, gure artzain mutilla, begi biak estalduta ebazala, labarra-beera jatsi zan; eta labarraren erdian, «begi-begitxu, ez ago itsu» deadar andiz esanda, auntz zuri ederra beingo baten gaillurreratu eban.

Usua, auntza esku-artean ikustean, pozez zoratu-bearrean egoan. Eta mutillari, pozarren begirakune gozoa egiñik, auxe esan eutsan:

—I lako mutillik ez yagok... Ire egintzak arrigarriak dozak... Adoretsua az. Biotzak arabil...

Eta gerotxoago:

—Eta... egiñiko mesedeakaitik, ¿orain zer eskatzen dok?

—Ezebez... —erantzun eutsan mutillak—. Negar egin dagidanean poztea baiño ez dautsut eskatzen...

* * *

Ganeko egun baten, artzain mutil gazteak, bere ardi zuriai begiraturik, arto-garauak lakoxe negar-malkoak isuriz, mendian negar eta negar egiten eban.

Mutilla olan egoala, Usua lamiñea bertatik igaro zan. Eta, mutilla alan negarrez ikustean, berari be biotzean ikutu eutsan. Eta, negar-egite a zegaitik ete-zeitekean jakin-gurarik, samur-samur esan eutsan:

—Ori dok negar-egitea! Orrenbeste malko isurteko, ¿zer dok, mutil? ¿Zer jazoten yak?

—Arriaga basetxeko alaba bakarragaz ezkondu gura dot, eta...

—Ene!, ori baiño ez ba-dok... Ezkondu adi beragaz, eta kitu...


—Bai, baiña... Arriaga-ko etxagunak, bere alabeagaz ni ezkontzea ezetara be ez dau gura.

—¿Zegaitik ez yok gura, ba?

—Lugintzan ezertxo be ez dakidalako... Bai, ba; txiki-txikitatik artzaintzan bakarrik nozu oitua-ta... Arriaga etxaguntza ederrean, barriz, nekazari ona bear ei-da. Ni, barriz, orretarako gauza ez... Orra, ba, nire negar-egite au.

Mutillaren zoritxarra ikusita, Usua saminduago jarri zan; eta leen berari ainbeste mesede egin eutsan mutilla zelanbait pozteko aalegiñetan asi zan.

—Ez adi estutu, mutil, ez adi estutu —esan eutsan—. Oraintxe emongo dauadan bitxi eder batek zorioneko egingo au-ta...



URREZKO LARAKOA

«Ona emen nekazari on-ona egingo auan larako miragarria, —esan eutsan irribarrez—, Berau aldean dokala, larako, larako, egin lan eta lan asko esan ezkeru, edozein lugintza-lanari ondo baiño obeto ekiteko laguntza apartekoa izango dok».

Ori esateaz batera, kolkotik atarata, «urrezko larakoa» eskuratu eutsan.

—Ona emen nekazari on-ona egingo auan larako miragarria —esan eutsan irribarrez—. Berau aldean dokala, «larako, larako, egin lan eta lan asko» esan ezker, edozein lugintza-lanari ondo baiño obeto ekiteko laguntza apartekoa izango dok. Olan dala, emen inguruetakoko nekazaririk onena eu izango az. Eta orduan... Arriaga-ko alaba bakarragaz ezkontzeko zoriona bertatik izango dok.

Mutilla, lamiñearen eskutik arturiko urrezko larakoaz, ezti-bitsetan jarri zan, Usua-ren esanak zeatz-meatz beteko ziralakotan.


Eta geiago bagarik, Arriaga basetxera arin joanda, ango soloetan lanean asi zan.

Leenengo egunean, urrezko larakoa aldean eballa, «larako, larako, egin lan eta lan asko» esanez, atxurketan asi zan; gero, barriz, laietan, bedar-ebaten, burdiñaraketan, eta abar.

Egun bi ta erdian olan jardunda, Arriaga basetxeko soloak, ertzetik ertzera, ederto landuta, sekulako edertoen itzi ebazan. Ikusgarri geratu ziran!

Aren lan-egitearen ederra ikusita, Arriaga-ko aita-alabak arrituta geratu ziran. Leen orretan ezertxo be ez ekian mutilla, nekazaririk onena eginda ikusita, poztu be poztu egin ziran. Eta nekazaririk onena bera zala-ta, artzain mutilla Arriaga-ko alaba bakarragaz ezkontzea erabagi eben.

Eta egun batzuk barru, eztegu andi bat gertatuta, neska-mutil gazte biak poz-pozik ezkondu ziran. Eta aurrerantzean zoriontsu be zoriontsu bizi izan ziran...





ERIOZAREN SAGARRA
«Eriotzaren sagarra: sagua, katua,
tximiñoa, arranoa,
eiztarria eta sagar barruko arra».

27. ERIOTZAREN SAGARRA

Bein, sagutxu bizkor bat, ganbarako leiotik kalera begira egoala, etxe-ondoko bide-ertzean itxura oneko sagar bat egoala konturatu zan. Eta ariñeketan bertaratu ta sagarraz jabetu zalakotan, pozez beterik auxe esan eban:

—Onako sagarrik ikusteko be! Orain berau, neuk artu dodan ezkeru, neure-neurea dok!

Ori esatean, baiña, etxeko katu baltzak, arrapaladan jatsita, sagutxuari bere erpe zorrotzakaz zauri mingarriak egiñaz, sagarra beingo baten kendu eutsan. Eta katuak be, sagarraz jabetu zalakotan, pozez esan eban:

—Au dok gauzearen ederra! Orain berau neurea dok!

Gerotxoago, barriz, katuari, erpeetan laztankiro eukan sagarra. itzulipurdika agertu zan tximiñoak kendu eutsan. Eta tximiñoak be, musturraz kiñuka ziarduan artean, zugatz-erpiñera igota, igaliari (1) begira auxe esan eutsan:

—Ze sagu ta ze katu! Indarra beti nagusi! Sagar eder ori, orain neurea az!

Orretan, odei-artetik arrano andi bat ego-zabalez jatsi zan. Eta arrano andi arek be, ikusiriko igalia gura izan eban ezkeru, bere moko ta erpe zorrotzakaz tximiñoari gogorkiro eginda, aitaturiko sagarra indarrez kendu eutsan.

Arranoa be igaliagaz pozik egoan; eta, labar-ganean bere lumak arro-arro igitzen ebazan artean, auxe esan eban:

—Neure ago-zabal eta moko ta erpe zorrotzai esker, sagar eder-eder au neure-neurea baiño ez dok...

(1) Igali: fruta.

Andik geroago, baiña, mendian-zear joan zan eiztari batek, pozaren pozez zabar-ganean egoan arranoa, iskillaren bidez, bat-batean erail eban. Eta arranoaren erpeetan egoan sagarra laztankiro kolkoan sartuta, mendi-gaillurreko landara ezti-bitsetan joan zan. Eta, landatxo aretan tente egoala, arro-arro auxe esan eban: «Sagar eder eta atsegingarri onen billa amaikatxo bidar ibili nok! Baiña ibiliak ibili ta aalegiñak aalegiñarren, gaur arte ezin lortu izan yoat. Gaur, barriz, zoriak onela naita, igali oneaz neure agoa gozotu eta nire biotza poztu aal izango yoadaz. Au dok poza!, eta neurea dok. Indarra beti nagusi!»

Eta ori esanda, sagarra, une aretan agoratzeko asmoz, aizto zorrotz bataz erdibitu egin eban. Barruko arra, andia ta ikatza lakoxe baltz-baltza zan.

Eta ar bildurgarri arek, abots latz eta itzelez, auxe esan eutsan:

—Sagarra eurea ba-dok, neu be eurea nok!

Ori entzunik, gizona estutu egin zan, zurbilduta (2) geratu zan; eta ikarearen ikaraz, lurrera zerraldo (3) jausi zan.

Sagar-barrutik urten zan arra, eriotzaren arra izan zan...

(2) Zurbildu: palidecer.

(3) Zerraldo: de bruces.

28. BASA-KOIPATSU

Gure Aberriko baserrietan «txitxi-burduntzi» gozoa basoan jateko, urte oro egun berezi bat izaten zan. Egun berezi ori, barriz, aratuzte-aurreko domekea izaten zan beti.

Eta domeka ori, Arratia-aldean, «kanpo-martxo» izenaz ezagutzen zan; Durango-aldeko errietan, ostera, «basa-koipatsu» izen politaz. Ikusi daikegunez, bigarren izen ori leenengoa baiño politagoa ta orretarako egokiagoa da. Berba batetik bestera alde galanta dago, egon be! Leenengoa, erderakada andia da; bigarrena, barriz, euskera uts-utsa.

Aitaturiko domeka ori, Garizumearen gora-beeretan egoten zan ezkeru, urte batzuetan goitzxoago eta beste batzuetan belutxoago eltzen zan. Orregaitik, gure erritxoko ume ta gaztetxoak, urtarrillak bere azken-agurra egin orduko, zorioneko egun ori noiz izango ete-zan jakingura latzez egoten ziran, une orotan itauntzen ebela: «¿Noiz da basa-koipatsu? ¿Noiz jango ete dogu txitxi-burduntzi gozoa?»

Eta gogo biziz itxaroten genduan egun ori. Bere ordua etorten zanean, bakotxak gura ebanez, ume ta gastetxo, nagusi ta zaar, adiskide-lagunakaz batera, askari-pardelxoak eskuetan genduzala, baso-mendietara ezti-bitsetan joaten gintzazan; eta, ekandu zaarrari jarraituaz, askaritzat urdai, lukainka, solomo eta abar, txarriki utsa bakarrik eroaten genduan.

Mendiratu ta bereala, zugatz-adar ezoakaz, txarrikia erreteko burduntziak egiten genduzan; eta gero, or-emen egurrak batuta, su andi bat egiteko gertatu. Eta orduan, sua nok iziotu erabagiteko, zozketa egiten genduan, eta

zozketearen zoriak musturrean joten ebanak, bere agoko aizea baiño orretarako beste ausporik ez ebala, putz eta putz kee-artean negarez zala, sua egin bear izaten eban. Suaren gar bizia gorantz igoten zan unean, barriz, urdai ta lukainkak burduntzi-erpiñean jasota, guztiok batera abots zoliz esaten genduan:

Urdai eta lukainka,
txitxi ta burduntzi,
ardaotxo gozoaz:
guztiak iruntsi.


Eta ori kantatzean, burduntziak txingar-generatuaz txarriki-koipez bustiriko ogia gogo-gogorik jaten genduan. Gauzearen gozoa! Gerotxoago, urdai ta lukainkak be ezpanak miazketan barruratzen genduzan.

Olan zala, arratsaldeko lauretan-edo, gure aitz eta mendietan sutzar andiak agertzen ziran, eta ordu orretatik aurrera, Mañari-erritxoan, ujuju ta santzo zolien durundi alaiak berarizko poztasuna sorrerazoten eben. Une aretan aitz-mendiak emoten eben poza, iñortxok be ez eban kolkoan gordeten.

Eta arratsalde osoa alan atsegiñez eginda, gabaren illuntasunak egunaren argia uxatu bear eban une-unean, abesti ta santzoz basabideak bizkor-bizkor igarota, pozez beterik etxeratzen gintzazan, urrengo urtean be bardin-bardin egiteko asmoa geure buruan genduala.

Orra, ba, Euzkadi-ko erri txikietako ekandu zaar bat laburkiro azalduta. Ekandu ori, antxin-antxiñakoa ei-da. Eta leengo urte baten Urkiola-ko aldatzean aguratxo batek esan eustanez, leenagoko Garizumetan aragi-izteak eta barauak

ugari egin bear izaten ziran ezker, «basa-koipatsu» eguna okeleari ta umore alaiari Pazkoetararte agur egiteko izan zan jarria.



29. ARTZAINA TA BASAJAUNA (Lapurdi-ko ipuiña)

Beñola, illuntze baten, Martin artzain gaztea Larrun-go txabolatik Askain-go ardanetxe batera etorri zan, bere lagunakaz musean jokatzeko asmoz. Martin, artzain errimea ta talogin entzutetsua zan; Larrun-inguruko erritxoetan, berak egiñiko taloak baiño gozoagorik ez ebala iñortxok iñoiz jan, guztiak ago batez esaten eben.

Olan, ba, Martin-i, ardanetxera eldu zanean, bere lagunak auxe esan eutsoen:

—Martin: gauza bati beti ekitea itxura on ez dokan ezkerok, gaur mus-jokoa alde batera itzita, taloak jan bear yoaguz. Beraz, oraintxe berton taloak egin bear dozak; beti lez, azal biren erdian mamin gozo-gozoa jarrita... Ire taloak ogi zuri piña baiño be askozaz gozagoak dozak izan be-ta.

—Ez; gaur zuen asmoa ezin bete neikek, talo-palea Larrun-go txabolan itzi yoat-eta—erantzun eutsoen Martin-ek irribarrez—. Orain gabez, barriz, zera yoak ango txuntxurrera talo-palearen eske...

—Gabez ibilteko, ¿orreneste bildur? Guzurra yirudik! Illargi mosu-zabalak eguerdiko eguzkiak baiño argi geiagoaz baztarrak argitzen dauzala, ¿ez al-dok ikusten euk? Oa, oa, ba, beingoan, Martin, eta talo-pala ori ekarri egik arin —esan eutsoen lagunak arrenka.

Eta artzain gaztea, lagunen esana egitearren, Larrun-go txabolara tapa-tapa joan zan; eta, ara eltzean, gizon ezezagun bat sutondoan jesarrita egoala ikusi eban. Gizona

luze-luzea ta baltz-baltza zan, eta gerriraiño bizzarak ebazan.

Itxura orretako gizona ikusita, gure mutilla ikaratu egin zan, eta, gizonak bere oiñak txingar gori-artean sartuta eukazala ikustean, orduan eta geiago ikaratu zan. «Oiñak txingar gori-artean eukiteko, gizon au ze deabru ete-dok!», esan eban berekautan

Eta gogapen illun ori buruan ebala,

—¿Nor zara zu? —itandu eutsan jakin-min latzez.

—¿Nor izango nok, ba? «Nazana-nazana» basajauna berbera nok —erantzun eutsan gizonak, bere bizzar andiari ezkerreko eskuaz eragiñaz.

Erantzun orreaz mutillaren burua naastuago jarri zan, «Nazana-nazana»-ren entzuterik orduan arte iñoiz be ez eban izan-eta. «¿Ze pisti ete-dok berau?», iñoan, buruko matazea aritik-marira arildu guraz. Eta pentsakor egoala, ixil-une luzetxo baten ostean auxe esan eutsan:

—Txingar-artean dozuzan oiñak, ¿ez yatzuz erreten? ¿Ez dozu miñik artzen?

—Bein ondo erretakorik, barriro ez dala erreten ez al-dakik ik? —esan eban basajaunak berbots lakarrez.

Ori entzunik, Martin lauorrian jarri eta, izu-ikara larriz, aterantzako bidean jarri zan. Atera eldu baiño leen, baiña, sutondoko gizonak, basajaunak, deadar egin eutsan orroka:

—Geldi or, mutil! Ire burua zerbait maite ba-dok maite, iru egia andi oraintxe esan bagarik, ez adi emendik urten!

Orduan, mutilla ezin-geiago estutu zan; ikarearen ikaraz lurrera jausteko zorian egon zan. Eta, estualdi orretan zala, totelka-motelka auxe esan eban:

—Iru egiarik andienak... oraintxe... oraintxe esango dodaz, ba. Leenengoa: taloa, ogi zuri piña baiño gozoagoa dala esaten dabe; nik, ostera, ogi zuri piña taloa baiño askozaz obeagotzat daukat...

—Egia andia diñok, mutil —esan eutsan basajaunak, txingar pilloa kolkoan sartuaz—. Ogi zuria taloa baiño gozoagoa dok, izan be... Ea beste egia bat orain.

—Illargiak eguerdiko eguzkiak baiño argi geiago egiten dauala uste dabe batzuek; nik, ostera, illargia baiño eguzkia milla bidar argiagoa dala diñot...

—Euk diñokanez dok, izan be: eguzkia lako illargirik ez yagok egon be-ta... Orain irugarrena esan egin, eta kitu...

—Irugarrena..., irugarrena... «Nazana-nazana» emen dagoala jakin ba-neu jakin, ez nintzala ona etorriko onen bizkor eta arin... —esan eban mutillak, basajaunagana begi-zearka begiratuaz.

Irugarren egia entzutean, basajauna bat-batean zutundu zan; eta, arrausi andi ta luze bat eginda gero, mutillari irribarrez auxe esan eutsan:


—Ire azkenengo berbakaz bertsolari-samarra agertu azan ezkerro, orain, neure kolkotik aizetaratuko diran bertsoak zeatz-meatz ikasi bear izango dozak. Eta, bertsook ondo ikasita gero, ardanetxera joanda, ango ire lagunari berrogei bidar esan bear izango dautsezak. Ona emen:

Istorio misterio latz
eun zorri ta berreun bartz,
orreik guztiok bizkarrean dauzanak
izango dau non egin atz.

Esan eta esan, Martin-ek, bertsoak, basajaunak nai ebanez, aritik-marira ederto baten ikasi ebazan. Eta bereala, ariñeketan ardanetxera joanda, ikasiriko guztia bere laguneren artean berrogei bidar esan ebazan.

Azkenez, esan eta esan eta entzun eta entzun eginda, ardanetxeko lagun guztiak, Martin erdi-erdian zala, zorri ta bartz pilloak gorputzean bai-lebezan, atz eta atz asita, somatzen eben azkurea jasan ezinda, erri gzutiaren barregarri ibili ziran; eta, erriko abadeak bedeinkapen sendo batzuk emon arteko aldi guztian, alantxe ibili-bearra izan ei-eben...





ARTZAIÑA TA BASAJAUNA (Lapurdikoko ipuiña)

«Eta artzain gaztea, lagunen esana egitearren, Larrun-go txabolara tapa-tapa joan zan. Ara eltzean, gizon ezezagun bat ikusi eban. Gizona luze-luzea eta baltz-baltza zan».

30. ARRIZABAL-GO JAUNA ETA BIDAZTIA

Antxiña-antxiñako aldietan, mendi jagi ta eder baten txuntxurrean, orma sendoko gaztelu bat egoan. Gaztelu eder ori «Arrizabal» izenez ezagutzen zan, eta an gizon aberats bat andikiro ta nasaikiro bizi zan. Aberats okitu (1) arek, barriz, bere gaztelua apaintzen urtero-urtero diru-pillo andiak eralgiten ebazan. Bitartean, bere inguruko txiroak (beartsuak) ogia jan eziñik negarrez bizi ziran. Biotz gogorreko gaztelu-jabeak beartsu gaisoai iñoiz be ez eutsen ezer emoten.

Egun baten, bidez-bide nekatuta yoian bidazti txiro batek, gaztelu aretan gaba egiteko aterpea eskatu eban. Eta Arrizabal-go jaunak, aren eskabideari arramuskadaz erantzunik, auxe esan eutsan berbots lakarrez:

—Gaztelu eder au ez da ostatu-etxe. Beraz, ez daukazu lekurik emen. Joan zaitezke zeuk nai dagizun lekura.

Ori entzunik, bidaztiak, apal-apalik, auxe esan eutsan:

—Zuri iru itaun egiten izten ba-daustazu, emendik poz-pozik joango naz...

—Tira, ba; emendik arin alde egitearren, iru itaunak zeuk nai dagizunean zuzen egidazuz, ba: neuk aal dodanez poz-pozik erantzungo dautsut-eta —erantzun eutsan zaldunak irribarrez.

Orduan, bidaztiak auxe itandu eutsan:

—Gaztelu onetan zure aurretik, ¿nor bizi zan?

—Neure aita —erantzun eutsan jaunak.

—Eta zure aita baiño leen, ¿nor egoan emen?

—Neure aitaita

—Eta zure ostean, ¿nor bizi izango da?

—Jaungoikoak gura ba-dau gura, orain emendik urrintxo bizi dan neure semea —esan eban pentsakor gaztelu-jabeak.

Orduan, bidazti agurgarriak, aregana begi errukitsuz begiratuta, berbots gozoz auxe esan eutsan:


—Zuetariko bakotxak, leku onetan alditxo bat eginda beste bagarik, urrengoari lekua itzirik, etxe onetatik alde egin bearra izaten ba-dau... gaztelu eder au, ondo ausnartu ezkerro, ostatu-etxe baiño ez da, eta zuek, emen, bein-beiñeko ostalari batzuk baiño ez... Beraz, olan dala, zure gaztelu au dala-ta ez zaitez arrotu, ez lar arduratu, zure aurretikoak lez: usterik gutxien dagizunean, guztia itzi bearra izango dozu-ta. Gaztelua edertzen eta apaintzen eralgiten dozun dirua eta geiago, barriz, biotz zabalez eta esku zabalez beartsu artean zabaldu egizu, bai, eta, bertotik alde egin dagizunean, an goian, betiko bizitzan, zeure egintza onakaz egindako jauregi ederra, jauregi betikorra, aurkituko dozu... Lur onetako aberastasunak aldi laburtxorako baiño ez dira; angoak, barriz, beti-betiko.

Eta Arrizabal-go jaunak, berba ikutugarriokaz biotza bigunduta, bidazti agurgarriari gaba egiteko aterpea gogo onez emon eutsan.

(1) Aberats okitu: millonario, lit., rico repleto.

Eta gizon aberats arek, entzundako berba ederrak egun oro ausnartzen ebazala, arrezkero eskeko-beartsuai esku zabalez lagunduaz eta beste egintza on asko egiñaz eta abar, zeruan jauregi ederra, jauregi betikoa egiten jardun eban.

Aren buru-biotzetan berbok ondo ezarrita geratu ziran: «Lur onetako aberastasunak aldi laburtxorako; angoak, barriz, beti-betiko».



31. MAÑARI-KO KEREXAK

Mañaria nire erritxoa, Bizkaia-n kerexa-erririk entzutetsuena izan da. Emengo kerexak, izan be, beste errietakoak baiño ederragoak eta gozoagoak izaten ziran. Au irakurtean, nik dakidan batek, azkenengo berbok dirala ta ez dirala, agopean ez ba-da be, «zertxobait» baiño geiago esango dau; baiña, jakin egizu, adiskide maite orrek, gaur onetzaz neure buruz bakarrik ez dodana berba egiten, antxiñako euskaldunakaz batera baiño. Ikusi, bestela:

«Ur ona edatera, iturbegira;
ta kerexak jatera, Mañari-ra».

Bizkaia-n kerexak leenen Mañaria-nezagutu ei-ziran. Bertara leenengo kerexa-zugatza nondik ekarri eben edo bertan zelan sortu zan, gauza garbirik ez dakigu. Zeruko aingeruak urrezko ontzi baten, kerexa-landara eder bat Mugarra-tontorrera ekarri ebela diñoen batzuek; beste batzuek, ostera, beñola «Beiti» basetxeko atsoak-sorgiña ei-zan bera-non edo non kerexa-garau bat azur eta guzti jan ebala, eta gero, azur ori, iru egunean urdaillean eukita, Munuguru-ko sasitzan itzi ebala diñoen, eta ortik sortu zan landaratik Mañari-ko kerexa guztiak etorri zirala, eta, ori dala-ta, bertako kerexak saporerik gozoena izaten dabela.

¿Esan orreik egiak ete-diran diraustazu? Egia dala, guzurreta dala, gaur orretzaz ez nago ezer jokatzeko asmotan: sarritan, esanak, esanak baiño ez dira izaten-eta. Ikusi dogunez, baiña, gure erriko kerexak ba-dabe euren kolkoan

gauza miragarriren bat. Kerexa-aldietan Mañaria, Mañaria izaten zan, gero! Ez dakianak ba-leki...! Dana dala, bata naiz bestea, esanak eta entzunak alde batera itzita, berba egin dagigun uste dogunez: Mañari-ko kerexak lako ederrik, gozorik eta sapore onekorik lurbira zabalean be ez dala egiten. «Or dago», ba!

Mañari-ko kerexak, barriz, antxiña, nire aitaitaren aitaren aldian-edo, entzutetsu-entzutetsuak ziran ezker, urre-truke bakarrik saltzen ei-ziran. Ori zala-ta, Euskalerriko errietan erosleak kerexa-saltzailleak noiz agertuko eskuetan urrea eukela egoten ei-ziran

Urre ta kerexa-tratu orretzaz, gure erritxoan ipuin bat edo beste be azaltzen ziran, eta orrean artean geien kontaktzen zana «Arridu»ko etxaguna ta txakur gorriarena izaten zan. Ona emen laburkiro ipuin ori:

Antxiñako urte baten, Mañaria-n iñoiz ez lako kerexa-aldirik andiena izan zan. Urte aretan, ango zugatz guztiak, garau gorrien sorta astuna zutik jasan ezinda, euren adarrakaz lurrari munda egozan. Ori zala-ta, erriarrak igali gozoagana begira ezti-bitsetan egozan. «Aurten, sekulako urre-pilloak batu bear yoaguz», iñoen guztiak ago batez; eta ori, esanaz, baso ta mendietara joanda, erriko kerexen edertasuna goratzen jarduten eben.

Etxe guztietan gura aiña ta geiago egonarren be, «Arridu» basetxeko etxaguna, Jaungoikoak esku zabalez emon eutsanaz arean be ez zan naikotu. Eta ori zala-ta,



MAÑARI-KO KEREXAK

«Gure gizona auzoetako kerexak ostuten asi zan, eta illebete-barruan erriko kerexa guztiak Bizkai, Araba ta Gipuzkoako errietan urre-truke saldu ebazan».

egunak joan eta egunak etorri, erriko kerexa guztiak bide okerrezk eskuratzeko asmo gaiztoa artu eban. Eta gure gizona, urrengo gabea, gabaren illuntasuna lagun eba, auzoetako kerexak ostuten asi zan; eta, urrengo gau guztietan bere egintza gaiztoari etenbagarik ekinda, illebeta- barruan erriko kerexa guztiak Bizkai, Araba ta Gipuzkoa-ko errietan urre-truke saldu ebazan.

Olan, Arridu-ko etxagunak idi-narru andi bat bete urre-diru etxeratu eban; eta, ainbeste urreran artean bere burua ezin-geiago aberastuta ikustean, pozez zoratu-bearrean jarri zan.

Bitartean, mañaritarak lapurra nor ete-zan jakin gurarik estu ta larri ibili ziran; eta, euren artean askoren zoritxarra ikusirik, garratz egiten eben negar.


Onetan, errian kerexa-koloreko txakur gorri bat agertu zan. Eta txakur gorri arek basetxe bakotxaren aurrean aausi egiten eban artean, berbots miragarri batek urrengo berbok esaten ebazan:

«Arridu-ko etxagunak,
kerexakaz batean,
urrea ta zoritxarra
bizkarra betean».

Ori entzunik, mañaritarak kerexa-lapurra Arridu-ko etxaguna zala igarri eben beingoan; eta, ondoen aren egintza txarrari egokion zigorra bereala emotea izango zala-ta, gizon-mutil pilloak adaki sendoak eskuetan ebezala, Arridu-basetxera arin baten joan ziran. Orduko, baiña, gure gizona, bere urre ta guzti, norabaitera aldendu izan zan; eta, aren billa batera ta bestera begi ta belarri ibili ziranarren, aren aztarrenik be ezin idoro (aurkitu) izan eben.

Urrengo urteko kerexa-aldian, baiña, txakurraren aausi ta garrasiakaz batera, etxagunaren ulu ta aienak entzun ebezan: Arridu-ko gizona, urrez beteriko idi-narru andia bizkarrean eta txakur gorriaren agin zorrotzak orpuetan sartuta ebazala, Mugarra-atxean gora ta beera ebillela ikusi eben. Eta geroagoko kerexa-aldi askotan be, gaisoak olan ibili bearra izan ei-eban.

Argi ikusi ebenez, kerexa-lapurra bere egintza okerragaitik gogor izan zan zigortua.



32. BIDE-IPINTEAK

Gure erritxoan, Bizkai-ko beste erri askotan lez, erriko bideak atondu ta barrizteko egun berezi bat urte oro izaten zan. Egun ori, Mañaria-n, bertako Udalak aututa, zezeilleko zapatu baten izaten zan, eta «bide-ipintek» izenaz ezagutzen zan.

Orretarako, «bide-ipintek» eguna noiz izango zan, aurreragoko domekan abade jaunak elizan iragarten eban. Orrezaz ganera, egun orren aurreragoko gabeen, elizako kanpae nagusiak, ordu erdian-edo, ots itzel-berezia egiten eban.

Illuntzeko aize ozkirritan kanpae-otsa entzutean, barriz, mañaritarroi soiñu politaz urrengo berba oneik belarrirutzen yakuzan:

Dan, dan, danak bearrean;
dan, dan, alperrik ez etxean!

Biaramon-goizeko bostetan be, kanpae nagusiak, arazo bardaña egiñaz, erritarrai zein lanari ekin esaten jarduten eban.

Eta seiretan-edo, atxur, mailluketa, erratillu ta enparadu lanerako tresnak artuta, bakotxa etxe-bideak, burdi-bideak eta eliz-bideak atondu ta barriztera poz-pez joaten zan; eliz-bideak edertzen eta txukuntzen aalegintzen ziran batez be. Bai, ba, gure baserritarrak, kristau zintzoak ziran ezkerero, Jaungoikoaganako eginbearrak betetera joateko bide maitagarriok begirik onenaz ikusten ebezan.

Gure gizon-mutil zintzoak, erriko bide guztiak atontzen, goizetik gabera «esku, buru ta anka» lanik asko egiten eban. Orretan, areik ikustea gauzarik atsegingarriena zan. Peru ta Mikel, Txomin eta Anton, jaioa damu ez ebela gogaro onez ibiltzen ziran: egun ori, izan be, egun alaia izaten zan.

Eta, egunaren barruan bakotxak norberarentzat lez lanari zintzo-zintzo ekinda gero, illuntzean, langillerik gienak Udaletzeko ardandegira joaten ziran: bertaratzen ziran guztiai Udalak musturrak bustiteko lain baiño ardao geiago ta geiago doan (utsean) emoten eutsen-eta; lanari ekinda, ardandegira bagarik etxeratzen ziran gizon etxezaleai, barriz, «kuartillotxo» bana ardao ta «libratxo» bana ogi baiño ez eutsoezan emoten.

Eta olan, gure gizon-mutillak, «mama gozoa» txurrutada politez edanda, ardandegian «animaziñoz» ibiltzen ziran beti. Ango umorea! Baiña, baiña... olakoetan umorea «umore on» ez zan beti izaten. Batak au eta besteak ori, eztabaida gogorrek atarata, lantzean-bein «Ukubiltxo» morroskoa sutsu ta gogor ibiltzen zan-eta...

Ni gatzetxo nintzala, beintzat, sekulako burrukaldia egin zan. Ez dakit nik zelan eta zegaitik be, Aldebaraieta-ko agura batek, «Karlos Setimo»ren aldian-edo, Aldebarrendarrak azkonar-sapo eder bat ostu eutsoela esan eban. Ori entzunik, Aldebarrendarrak, zaar eta gazte, asarre-bitsetan jarri ziran, eurak eta eurenak esku garbikoak eta «jenté

ondraua» beti izan zirala-ta esanaz. Eta, uste bagariko salatze ori zala ta ez zala, eztabaida gogorra sortuta, euren artean matraka itzela asi zan. Gizon, mutil eta agura... ango zapladak, ango musturrekoak eta ango bultzakadak! Iñoiz ba-zan, pautsok eta autsok ederto astindu ebezan!

Burruka ori, baiña, olan bearrean, ango burruka guztiak izaten ziranez, zirt eta zart, ukubil-utsezkoa izan zan.

Eta... jazoa jazota, urrengo egunean, domeka-goizean, alkate jaunaren aginduz, Mañari-ko agintari zintzoa, burrukan jardun eben guztiai Udaletxera joateko esaten etxerik-etxe ibili zan.

Alkatearen agintze ori, ogerleko batzuen diru-zigor-edo izango zala uste izango dozue. Bai zera! Orrelakorik arean be ez...

Arratsalde aretan, elizkizun-ostean, alkatearen esanari jaramon eginda, gure gizon-mutillak Udaletxean zintzo-zintzo batu ziran. Eta beste bagarik, alkate jaunak, guztien

aurrean zutundurik, izan eben burrukeari buruz azalpen ederrak egin eutsezan. Eta, eztabideetatik eta asarretik gauza onik iñoiz be ez zala sortzen esanda, alkarri «parka eskatu» ta gero, ondoen guztien artean askari on bat jatea izango zala esan eutsen.

Orduan, gure gizon-mutillak, alkatearen esanak onez artuta, azalpen arin batzuk berba leunez egiñik eta alkar-iraiñak biotzez parkatuta, guztiak batera, «on-umorian», askari eder bat jan eben. Eta olan, zorionez, «Karlos-Setimo»ren aldiko azkonar-sapoaren arazoa, euren artean bein eta betiko aaztuta geratu zan.

Oraintxe berton, antxiñako esakun bat yatorr burura: «Odol bagako burrukeak konpontze ariña».

Gure baserritarrak olakoxe on-onak ziran, izan be. Biotz onekoak eta gorroto bagakoak. Erritik at, batetik bestera nabillen artean, amaikatxo bidar gomutatzen naz eurakaz! Jaungoikoak zerua olakoxeentzat egin eban.



33. BIRKIÑA-REN EGURRA

Txarea, bere abar zuri ta orri txiki ugariaz, zugazñoaren polita! Mañari-ko aitz andi ta jagietan orreitariko asko egoan. Eta zugatz polit ezagun orrek, beste zugatz asko baiño txikiagoa izaten danarren, arri-arte aretan bere burua zutik eta arrorik agertzen eban. Erriko emakumeak euren lan batzuk txukunkiro ta egoki egiteko aren bearrean izaten ziran...

Gure errian, txara-egurra, bedeinkapen miragarriren bataz lagunduta bai-legoan, gauza on eta berezizat artzen zan. Izan be, txara-autsaz egiñiko lixibearen txukuna! Eguzkiaren mosu gozoak laztantzen ebanean, edurra baizen zuri eta aitz-ura baizen garbi agertzen zan. Beste lixibakandik alde galanta! Zerez egiñaz zan itandu bearrik ez egoan; bere burua berak agertzen eban ondo.

Baita txara-egurraz egosiriko lapikokoa be, bardiñean, beste egurkakaz egositakoak baiño sapore gozoagoa izaten ebala be esaten eben. «Goiti» basetxeko etxaguna zan «Txuan Goiti» gizonak eta bera lako beste atso-agura askok, txareaz egosiriko baba-lapikoak «aparteko grazia» izaten ebala esaten eben beintzat sarritan.

Leenago, barriz, Mañaria-n, txarea «Birkiña-ren egurra» izenaz ezagutzen zan. Karlos Zazpigarren gudatean, erdaldun gudari batek «Kaudalategi»ko Maipatxu andra zaarrari txara-egurrak ze izen eban itandu eutsan. Eta Maipatxu-k, erdera mordoilloz, olantxe erantzun eutsan: «Esto ser leña Birkiña, para lixiba y lapikoko ez dago iñon bardiña».

Izen polit orren jatorria, barriz, gure erritxoan urrengo ipuintxo baten bidez azaltzen zan.

Bein, «Bidegurutze» basetxeko Mari neskatillea, lixibea egosteko egurra ekarteko asmoz, basorantz joan zan; eta, bidean yoiala, arri-mokil andi baten ganean agura zaar bat negarrez ikusi eban. Gure neskea, agurearen itxura ituna ikusirik, tamaldu egin zan; eta,

—Aitaita, ¿zegaitik egiten dozu negar? —itandu eutsan biotz bigunez.

Eta aguratxoak, negar-zotiñez, auxe erantzun eutsan:

—Nire artaldeko bildots bat galdu dalako egiten yonak negar, neska. Basorik-baso eta mendirik-mendi bere billa ibili nazararren, aztarrenik be ez yonat iñon aurkitu...

—¿Bildots bategaitik orrenbeste negar? ¿Zure artalde ederrean bildots ederrik asko ez daukazu, ba? —esan eutsan Mari-k barriro.

—Bai, baiña... askoren artean be baten utsa beti uts. Bata lez bestea be, neure-neureak guztiak, barriz. Oi, nire bildots ederra!

Eta agureak, ori esanda, geiago egiten eban negar.

Ori entzunik, Mari erruki izan yon; eta biotz oneko neskatilleak, aitz eta mendiak arduraz arakatuta, galduriko bildotsa labarpe andi baten ertzean bizirik eta zutik idoro (aurkitu) eban.

Eta ártzain zaarra, Mari-k bildotsa aurkeztu eutsanean, pozez beterik jarri zan, irribarrez zirautsala:

—Biotz oneko neskatilla maitagarri orrek, gaur poz andi bat ekarri daustan... Jaunak bedeinkatu ta zaindu agiala beti. Eta orain, on-egiñaren saritzat, ¿zer eskatzen daustan, ba?

Eta Mari zintzoak, irribarrez, auxe erantzun eutsan:

—Ezertxo be ez dautsut eskatzen, ba, aitaita... Lixibea egiteko egurrik onenak non dagozan esan ba-zengit esan, orraititño, poz-pozik jarriko nintzake.


Orduan, agureak, Artzate-ganea eskuaz erakutsirik, begi argiz esan eutsan:

—Oa Artzate-ganera, eta antxe, arri-arteko lur-unetan, abar zuri ta orridun zugazñoak ugari aurkituko dozan. Zugatz txiki polit orrein egurraz egiñiko errautsaz Ama Birkiñak Jesus Umea berotu ta Beronen soiñekotxuak garbitzen yonazan; eta, zugatz orreik urrin egozanetan, zeruko

aingeruak euren ego zuri-bigunetan eroaten eutsoezanan. Beraz, zugazñoaren egurak zeruko Amak bere eskuakaz bedeinkaturikoak dozan. Orregaitik, egur orrein errautsaz egiten dan lixibea, edurra baizen zuria izaten don, eta beragaz egosten dan lapikokoa eztia baiño be gozoagoa... Oa, ba, Mari, eta neure esana egiña iñoiz be ez yana damutuko.

Eta Mari neskatilla onak, artzain zaarraren esana oso-osorik eginda, arrezkero errian lixibarik zurienak eta lapikokorik gozoenak egiten ebazan; eta bere egintza ona zala-ta, aldiko emakumerik aintzagarriena errian bera izan ei-zan.

Orra, ba, txareari ezarritako izena ipuin politez azalduta. Euzkadi-ko erritxoetan amaikatxo onako ipuin polit ba-dago egon be!



34. MALUTA-KO ATSOA

Urte asko be asko dirala, Mugarra-barreneko txabola txiki baten, atso zaar bat bizi zan. Atsotxu ori, aldi luzetan iñora joaten ez zan ezkeru, Mañari-ko gazteak, eta baita zaartxoagoak be, izenez bakarrik ezagutzen eben.

Leenago, Maluta-ko atsoa —auxe zan bere izenik ezagunena—, enparadu emakumeak lez, errian noiz gura ibiltzen zan; baiña gero, erriko ezbear eta zoritxar guztien errua berari ezarten eutsoelako, errira joatea osorik galerazo eutsoen.

Errian umetxoren bat geisotzen ba-zan, Maluta-ko atsoak begirakune okerre bezigzkoa egin eutsala esaten eben; gazteren bat bere arorik onenean ilten ba-zan, barriz, Maluta-ko atsoak aizetan bialduriko arnasa zikiñak geisotuta il zala esaten eben agobetea; eta, errian beste atsekabe, zoritxar edo ezbearren bat jazoten zanean be, Maluta-ko atsoak itsuski-ganetik jaurtiriko «maldeziñoa» osorik bete zala esaten eben guztiak asarre-bitsetan.

Olako esate ta siniskeriakaz, Mañari-ko bizilagunak emakume gaisoaren bizkarrari «eroan ala arri» ta geiago ezarten eutsoen egun oro. Ori zala-ta, gure atsotxuak, berrogei arri ta sei sara- lupetzaz egiñiko txabola txikitxoan ondo gordeta bizi-bearra izan eban. Eguerdiko eguzkiaren bero gozoa eta gaberdiko illargiaren argi biguna artzen lantzean bein bakarrik urtetzen zan.

Eta Maluta-ko atsoa, larogetaka urteetan era orretan bizi zan ezkeru, soñez zaarrak eta artzaiñak bakarrik ezagutzen eben. Olan be, umeak eta gaztetxoak ari bildur

andia izaten eutsoen. Ume txikiak, okerkeriren bat egiñikoan, «Maluta-ko atsoak eroango zaitu» entzuten ebenean, bildurrez dardarka jarten ziran; gaztetxoak be, bera aitatzean, biotz-taupada galantak jasaten ebezan.

Neguko gau luzeetan, otzaren igesi sutondoan bero gozotan batzen ziran lagunak, Maluta-ko atsoari buruz gau oro egiten eben berba. Geienak soñez ezagutzen ez eben ezkeru, nor ete-zan eta zer izan zeitekean jakingura andiz itauntzen eben.

Bein, aguratxo batek, berak atso ori gaztetxotan ezagutu ebala eta ikatza lakoxe begi baltz ederrakaz be, aurpegiak larrosa bat zirudiala iñoan. Ori entzunik, emakume gazte batek —bere aitaitak iñoanez— «inpernuko burduntzia» baiño itsusiagoa zala esan eban begi-zearka. Artzain batek, ostera, berak atsotxu ori txabola-aurreko landan goruetan ikusten ebala, eta aren buruko ulea, illargitan, zidarrezkoa izaten zala, eta eguerdiko eguzkitan, urre-gorri biurtzen zala; berak, barriz, errukituta, bein baiño sarriagotan ardi-esne epela be emon eutsala, eta abar.

«Agerre»-ko artzain gazteak ori esatean, eskaratzeko lagunik geienak lauorrian ikaraz jarri ziran.

—Oi, mutil ori Maluta-ko sorgiñagana urreratzen don! Olan, buruan uletan aiña zoritxar izango yon! —esan eben geldota neskatiñla gazte guztiak («Ortuoste»-koak izan ezik).

—Bai, bai, dabilela!, Mugarra-ko atxa jausi orduko damutuko yakon-eta... Olako gaiztoari jatekorik ez edatekorik

iñoiz be ez yako emon bear, gosea ta egarria jasan dagiala baiño —esan eban aurpegi asarez emakume erkin batek.

Orientzunik, «Ortuoste» basetxeko neskatilleak, bere begi ederrak artzain gazteagana zuzenduaz, berbots ikaratziz auxe esan eban:

—On-egiñaz ez yak damutuko, ez; on-egiñak atze ona yaukok- eta...

Orduan, guztiak, ixil-mixilka asita, neskatilleari begirakune itzelak egin eutsuezan.

Ganeko egun baten, Maluta-ko atsoa geisotu egin zan, eta txarto aretan be; eta, geisoaren miñak jasan eziñik, ulu ta negar sarritan egiten ebanarren, batzuk bildurrez eta beste batzuk gorrotoz, egun batzuetan iñortxo be ez yakon lagun egitera joan. («Agerre»ko mutilla, bere ardiakaz, Anboto-ra joan ei-zan orduko.)

Onetan, atsotxuaren negarrak «Ortuoste»ko Maipatxu-ren belarrietara eldu ziran; eta neskatilla ona, bere biotza errukiz urtuta, aren deadarrak entzun ordukoxe, arin-arinka Mugarra-barrenera joan zan. Eta an, txabola txiki aretan, emakume zaarra il-agiñean aurkitu eban. Orduan, Maipatxu-k, ezetarako asti bagarik, atsoa ur bedeinkatuaz igortzita, berbots gozoz auxe esan eutsan:

—Andra gaisoa, Jaunak zerura eroan zagizala...

Eta atsoak, bereala, azkenengo arnasea emon bear eban uanean, berbots ikaratziz, auxe esan eutsan:

—Olanxe izan bedi, ba, neskatilla. Neure azkenengo arnasea gozotzera etorri azalako, Jaungoikoak bedeinkatu agiala, ba. Errukizko egintza andi bat egin don. Miin gaiztoen guzurak eta naasteak dirala-ta, baztartuta eta iguinduta nazala, ementxe txabola txiki onetan bizi-bearra izan yonat.

Oi, zenbat neke ta atsekabe igaro dodazan emen! Baiña onenbeste ta onenbeste jasanda (sufrituta) gero, Jaungoiko onak nire azkenengo une latza aingeru baten biotzaz gozotu nai izan yon. Aingeru ori eu az, Maipatxu... Egintza on ori ez yakiñat nik zelan ordaindu be... Eta orain, emoteko beste gauzarik ez dodan ezkerero, neure buruko ulea emotea erabagiten yonat. Ule au, beste uleak lakoa ez don, gero... Ule au gaberdiko illargitan jarri dagizunean, ule-ari bakotxetik amar zidar-diru eskuratuko dozan; eguerdiko eguzkitan jarri dagizunean, barriz, berrogei urre-diru. Ire biotzeko goimaitasuna Jaungoikoak oso-osorik bedeinkatuko dualakotan naiagok; bai... eta entzun ondo: i ta ire laguna, nire zoritxarraz ainbestetan errukitu zan gaztea, zuen bizitzan zorionekoak izango zaree...

Eta ori esanik, emakume gaisoak, Maipatxu-ren mosu gozoa bere aurpegian ebala, bere azkenengo arnasea gozaro-gozaro emon eban.

Ganeko egun baten, Maipatxu-k emakumearen esana osoro egin eban; eta, arek esan eutsanez, zidar eta diru askoaz aberastuta, ogasun andiaren jabe egin zan.

Andik laster, «Ortuoste»basetxera iru mutil gazte-lerden joan ziran, ango etxagunari bere alabea emaztetzat eskatzera. Iru mutil areik ango inguruko etxagunik andienak eta aberatsenak ziran.

Maipatxu-k, baiña, zaldun aberatsari musin egiñik, bere artalde ederra baiño beste ogasunik ez eukan «Agerre»ko mutil gaztea aukeratu eban senargeitzat. Eta egunak joan eta egunak etorri, egun argi ta eder baten, biak alkarregaz ezkondu ziran. Eta, Maluta-ko atsoak iragarri eutsanez, euren bizitza guztian ondo ta zorionsu bizi izan ziran.





Josu U.

MALUTAKO ATSOA

«Urte asko be asko dirala, Mugarra-barreneko txabola baten, atso zaar bat bizi zan. Errira joatea osorik galerazota eukan, bertako ezbear eta zoritxar guztien errua berari ezarten eutsuelako».

35. AITAITORDEAREN LEENENGO IPUIÑA

Txikitan be, ipuin zale-zalea nintzan; eta zaletasun begiko ori zala-ta, ipuin politen bat non eta zelan entzungo, artega- samar ibilten nintzan. Eskolara joaten nintzanetan, nire laguntxoai sarritan be sarritan ixil-mixilka esaten neutsoen: «¿Gaur zelako ipuiñak dakazuez, ba?» «¿Aitaita-amamak bart ze ipuin esan dautsue, ba?» Eta bereala, nire laguntxoak, itaun orrei egokiro erantzunik, sekulako ipuin politak azaltzen eustezan.

Baiña nik, tamalez, nire aitaita-amamak iñoiz be ezagutu ez nebazan ezkerero, nire adiskide ta lagunai ezin izaten neutsen ipuin askorik azaldu. Nire gurasoen gurasoak ni munduratu orduko bestalderatu ziran ezkerero, arein agoetatik ezertxo be entzuteko zorionik ez neban izan... Ori, barriz, zoritxar anditzat joten neban. Eta zoritxar ori gogoan nebala, lagun-artein bein baiño geiagotan esan izan neban: «Neure aitaita-amamak bizi ba-ziran, orraitino, a zelako ipuiñak azalduko leuskidezan!». Eta ori esaten neban bakotxean, nire begitxuak malko garratzez bustiten ziran. Olakoxe ipuin-zale errimea nintzan!

Ganeko egun baten, aitaturiko berbak buruan nebazala, nire barruan asmo berezi-gozoa sortu zan; eta asmo gozo orren altzoan, zelan be ez nekiala, neure ipuin-garria aseteko, erriko atso-aguren artein aitaita-amamaren bat billatzea erabagi neban.

Ain zuzen be, urrengo domekan, amarretako meza nagusi-ostean, aguratz zaar bat, larogei urteren sorta astuna bizkarrean ebala, oin-narraska etxerantz yoiala ikusi neban.

Agura ori, errian, «Baltzuntza» basetxean bizi zalako, «Baltzuntza-ko Andolin» izenez ezagutzen zan ondoen. Ondo gizon ona ta zintzoa bera! Basetxe zaar aretan, bere emaztea ta bera beti zerura begira bizi zirala esaten eben. On-onak ziran, bai!

Eta domeka aretan asmoa ta zaletasuna betetearren, Andolin agurgariari, geldiro-geldiro atzetik jarraitu neutsan; eta, bere ondora eltzean, neure aitaita izatea gura izango ete-eban itandu neutsan; eta, ori entzutean Andolin on-onak, nire aitaita poz-pozik izango zala esan eustan barreka. Orduan nik, olan izan ezkerero, domeka guztietan etxerantz lagun egingo neutsala esan neutsan, begiak be erdi-itsutuak eukazala-ta. Baiña orretarako, bereala baldintza polit bat iminteko azartasuna izan neban: domeka guztietan ipuin bat edo beste azaldu bear izango eustala esan neutsan. Eta agura agurgarri ta onak, baldintza ori ontzat artuta, nire guraria poz-pozik beteko ebala erantzun eustan. Ganera, barriz, lantzean-bein, kerexak, sagarrak eta intxaurrak eta abar emongo eustazala be esan eustan. Orduko nire poza! Ene! Ezti-bitsetan saltoka!

Gerotxoago, barriz, aren berbakaz adoreturik, antxe bertan ipuintxu bat azaltzeko eskatu neutsan; eta beste bagarik, Andolin agurearen agotik ipuin polit-polita urten zan. Ona emen:

Bein, Ganoste-menditik Urkioleta-ko gizon bat burdi bete eguriaz etxerantz etorri zan; eta gizon ori, negurako egurederra pillatu ebala-ta, bidean poz-pozik etorren. Onetan,

burdi-txirringa batek lupatzen laprast egin ebalako, burdia itzuli egin zan. Ori ikusita, Urkioleta-ko gizonak, goiak eta beeak aitatuta, asarre-bitsetan, birao ikaragarri bat jaurti eban. Orduan, Itsuerreka-aldetik adar-buztandun txerren bildurgarriak agertu ziran; eta txerren adar-okor areik Urkioleta-ko gizona, atze-aldetik burduntzi gorria sartzen eutsoela, bere burdi ta idi ta guzti Artzate-ko labarran-gora aiena baten eroanda, Akelarre-ko txuntxurrera eroan eban; eta geiago gizon biraolariaren aztarrenik iñok ez eban iñoiz ikusi.

Txerren bildurgarriak, euren soin baltzak jake luze-gorriakaz estaltzen ei-ebezan, eta burdiñazko oiñetako gogorak ei-eukezan.

Agura zaarraren ipuiña entzutean, poz gozo-gozoa barruan gaiñezka nebala, une aretan munduan zoriotsuena neu nintzala uste izan neban; eta, uste atsegingarri orreaz ezin-geiago poztuta, aguratxoari eskuan mun egiañaz agur egitean, nire etxera pozez beterik joan nintzan.

Biamonean, eskolaratzeaz batera, ipuintxoia irakasleari ta nire laguntxoai aritik-mamira azaldu neutsen;


«Baltzuntza-ko Andolin»egaz egin neban alkarrizketa-txoaren barri be zeatz-meatz emon neutsen.

Orduan, irakasleak errukitsua ta ona izateko eta zaarrai gogo onez lagun egiteko ta abar esanda, liburutxo polit bat emon eustan. Bezuza (erregalu) ain polita eskuratzean, biotz-ikutze gozoa izan neban; eta nire begiak negar-anpuluz bustita nebazala, bere burubideak onez artzen nebazala eta esanak osorik beteko nebazala esan neutsan.

Esan eta egin, aurrerantzeko domeka guztietan, meza nagusi ostean, Baltzuntza-ko agureari «aitaita» agobetean esanez, etxera gogo onez egiten neutsan lagun; eta laguntxoakaz jolasean jardunarren be, guztia alde batera itzita, aitaitagana joaten nintzan.

Geroago, barriz, erriko atso-agura guztiakaz adiskide andi egin nintzan. Arekandik amaikatxo gauza on eta eder entzun neban! Arekandik ikasi nebazan esakun eta burubide onuratsuak, Jaungoiko ona!

«Zaarraren esana gaztearen sentzuna».



36. EMENTXE BE JAUNGOIKOA DAGO

Gabon-gaba zan. Illuntze aretan edurra, uso-luma politak bai-litzazan, gozaro-gozaro jausten zan. Zeru-lurretan jai andi ta ikutugarria ospatzen zala, argiro ikusten zan. «Etxezuri» basetxeko etxekandra maratza, Josepantoni zintzoa, bere sukaldean, egur-mukur batzuk sutan ebazala, Gabon-apari ospatsua gertatzen esku beteakaz ziarduan. Errian edonok ekian Josepantoni andrea sukaldari errimea zana. Gatzaren negurria ondo negurtzen ekiana zan, beintzat.

Bitartean, aren senar Peru Manu jatorrak Belen-go jazoera arrigarriak bere seme-alabatxoai, aritik marira zertzelada guztiakaz azaltzen jarduten eban, eta bere umetxoak sukaldeko bero gozoaren altzoan aitagana begira pozez beterik... Martatxu batez be, amar urteko neskatoa, begi ta belarri, zoli ta adi aitak iñoana arretaz entzuten...

Josepantoni andreak, ekiñaldi eder baten ostean, gau zoragarri aretako aparia ederto biribildu eban. Zapi zuriz txukunkiro apainduriko mai zabalean, janari-edari ederederrak ondo gertatuta egozan. Euskaldun-etxe jatorretan egin oi dan lako «Gabon-apari» gozo-gozoa.

Guraso ta ume apariaren inguruan poz-pozez ziran. Oitura on eta ederrari jarraiturik, Jaungoikoari eskerrak emonda, janari-edari gozoak umore onez eta gogaro artu ebezan. Josepantoni andrearen «erre-egosiak» atz-miazketan jan ebezan.

Apalostean, Josepantoni andreak bere alabatxoari auxe itandu eutsan:

—Martatxu, ¿non dago Jaungoikoa?

—Belen-en —erantzun eutsan irribarrez neskato txu samurrak.

—¿Non geiago? —barrero amak ari.

—Zeruan eta elizan... Altarako Sakramentu santuan —erantzun eutsan neskato txuak.

—¿Leku orreitan bakarrik? —itandu eutsan amak begi-zearka.

Berbok entzutean, neskatoa, sorbaldak jasoaz, isilik geratu zan. Orduan, amak, isillune orretzaz konturatuta, aurpegi benaz auxe esan eutsan:

—Bai, Belen-en, zeruan eta Eukaristian ba-dago, bai. Leku orreitan bakarrik ez, baiña: Jaungoikoa toki guztietan dago-ta. ¿Aaztu egin yatzu, ala? ¿Kristau-ikasbidean zer ikasten gozu?

—Egin-egiñean be —esan eutsan lotsaz neskatoak—, leengo astean Kristau-ikasbidea ikasten giarduala, abade jaunak Jaungoikoa leku guztietan dagoala esaten jardun euskun. Beraz, ori jakin dot, baiña gaur aaztu egin yat.

—Barrero ez dakizula aaztu, gero...

—Ez, ama, ez yat aaztuko.

—Ondo da. Baiña gaur, Gabon-gau onetan, irakatsi eder eta andi bat agertu nai dautsut.

—¿Ze irakatsi, ama?

Eta beste bagarik, «zatoz neugaz» esanda, bere logelara eroan eban. Eta an, begirunez eta maitekiro, auxe esan eutsan:

—Martatxu, ementxe be Jaungoikoa dago.
Neskatoak buruaz «baietz» erantzun eutsan.

Geroago, beste gela batzuetara eroanik, etxe guztian-
zear erabili eban, leku bakoitzean «ementxe be Jaungoikoa
dago» esanaz. Azkenez, etxeko leiorik andienara eroan
eban. Aitz-mendiak edur zuriz arrigarrero apainduta ikusi
ebezan. Une aretan, gau aretako edur-jauste ugaria atertu
egin zan; eta, aterrune luze aren erdian, zeruko izar politik
iñoiz ez lako ditzira politik egiñik, urduri igitzen ziran...
Gauaro zoragarria!

Gure ama-alabak, zeruari ta larrari adi-adi, isillunetxo
bat egin eben. Gerotxoago, isillunetxoa beingoan urratzen
ebala, ama on-onak bere alabatxoari auxe esan eutsan:

—Or, aitz eta mendietan be, Jaungoikoa dago. Izarrez
beteriko goi txukun orretan be, Jaungoikoa dago. Ikusten
diran eta ikusten ez diran gauza ta leku guztietan be
Jaungoikoa dagoala ez dakizula aaztu, gero. Zeru-bidean
zuzen jarraitzeko, berba onekaz gomutatzea naikoa dozu:
«Ementxe be Jaungoikoa dago».

—Bai —esan eban neskatoak—; gaurko irakatsi
ederrak neure biotzaren erdian erabilteko aalegiñak-aalegin

egino dodaz, egun oro sarritan esango dodala: «Ementxe
be Jaungoikoa dago».

Esan eta egin, Martatxu-k, bere ama onaren esanak
beteten, gau aretan bertan asi zan. Eta aurrerantzean,
Jaungoikoaren gomuta bizia beragaz ebala, zeruko bidean
zuzen eta zintzoro ibili zan, bere lagunentzat jarraibide ta
eredu izaten zala.

Martatxu-k, esaera bikain ori zala-ta, bere adiskide ta
lagunen artean mesede ta on andiak egin ebazan. Eta,
oraindiño geiago dana: bide okerretatik betiko ondamentira
yoiazan gazteak, euren oben eta pekatuakaz zintzoro
damututa, betiko zorionera eroango ebezan zeruko bide
ederrean sartzen ikusi ebazan.

Orra, ba, Gabon-gau aretako Josepantoni andrearen
irakatsi ederrak izan ebazan ondoren onuratsiak.

Zorionekoa Jaungoikoaganako gomuta bizia bere
irudimenean eta biotzean darabillena! Jaungoikoaren
laguntza osoa beragan izango dau.

Geuk be, oraintxe asita, arretaz eta biotzez esan
dagigun: «Ementxe be Jaungoikoa dago».



37. JESUS-EN MAITATZAILLE ZINTZOA (Antzirudia)

Udabarriko egun eder baten, Jesus on-ona, bere ikasle maitea lagun ebalu, ibilladi zoragarri bat egiteko asmotan ziarduan. Egund aretan, egunsentiak bere argi biguna emoteaz batera, Jesus eta Joan Jerusalem-dik Belen-erantz abiatu ziran. Eta bide-zidorrak eta lora bitxiz txukunkiro apaindutako landatxoak oinkada legunez igarota gero, Jesus eta Joan errekatxo baten ondora eldu ziran. Une aretan, Erkebe, Belen-aldeko neska gaztetxoa, erreka-ertzean uretara begira egoan. Neskatiillatxoak, bere begi illunak erreka-barrura zuzenduaz, ur gardenaren argitasunera, bere aurpegiaren irudia ikusten eban.

«Ni nauzu polita! —iñoan berak—. Nire gurasoak, ¿nondik ekarri nabe, baiña? ¿Jerusalem-dik ala eguzkiaren egaletik?»

Neskatiillatxoa autu orretan ziarduala, Jesus eta Joan erreka-ertzera urreratu ziran. Eta Jesus onak, berbok entzutean, isillunetxoa egin eban. Gerotxoago, noizbait berbetan asita, neskatiillatxoari berbots eztsuz,

—Erkebe—esan eutsan—: zerutik etorria zara. Beraz, zerura joan bear dozu, Jaungoikoarena zara-ta. Jarraitu egidazu, ba. Zatoz neugaz.

Eta beste bagarik, neskatiillatxoa Jesus-en jarrai joan zan, Jesusen oiñatzetan bere ointxoak ipinten ebazala. Jesus onaren oinkada bakotxean larrosa ederrak sortzen ziran, eta neskatiillatxoa lora-gaiñetatik po-pozik joan zan.

Alako baten, Belen-era eldu ziran. Eta Jesus maitea bere erritarren artera joanda, guztien onerako berbalditxo samur bat egiten asi zan.

—Zorionekoak biotz garbiak —iñoan—, Jaungoikoa ikusiko dabe-ta. Zorionekoak, bai, arima garbiak, oso-osorik Jaungoikoarenak izango dira-ta.

Onetan, Erkebe, lagun-artetik ariñeketan joanda, Jesusen aurrean aurkeztu zan. Orduan, Jesus maitagarriak, begirakune eztsu bat egiñaz, bere esku garbi-garbiak Erkebe-ren ezpan bigunetara eroan ebazan. Eta, une berean, Jaungoikoaren arnasa deunak neskatiillatxoaren ariman lirio zuri-ederra sortu eban. Une artean, Erkebe-ren biotza ta arimea Jesusen eskuetan geratu zan. Arrezkero, oso-osorik Jesusena zan.

Arratsaldean, Jerusalem-era biurtzean, Jesusek Joan ikasle gazteari zelai eder bat erakutsirik eta maitekiro begiratuaz,

—Joan —esan eutsan—, begiratu zelai orretara...

Eta Joanek, begiratzeaz batera, zelai guztia larrosa ederrez eta lirio zuri-txukunez arrigarrero apainduta ikusi eban. Etorkizun guren eta miragarri baten zelai ederra zan. Une aretan, Jesus biozperatuaren ezpan garbi-garbietan irribarrerik eztsuena loratu zan...

Jesus maitea, non-nai ta edonon, guztiai on egiten ziarduan beti. Bere ibilladi guztietan zeruko mesedeak esku



JESUS-EN MAITATZAILLE ZINTZOA

«Jesus eta Joan errekatxo baten ondora eldu ziran. Une aretan, Erkebe, Belen-aldeko neska gaztetxoa, erreka-ertzean uretara begira egoan...».

beteakaz banatzen ebazan. Geisoak osatzen, atsekabetuak pozten, illak biztuten, pekatariak onbideratzen, zeruko Barri Ona iragarten eta abar. Ondo be ondo dakigu guztiok egintzarik gorenengoetan zintzotasunik andienaz jardun ebana. Eta alan be, gizonak on-egiteok aintzat ez ebezan artu, esker txarrik baltzenakaz Ongillerik andiena iraindu baiño. Ori zala-ta, Jesus on-onak, mendi-gaillurrean zala, Jerusalem erri aukeratuaren esker baltza ikusirik, negar egin eban. Jaungoikoa zan, eta etorkizun guztia begi- aurrean eukan. Idatzita egoanez jazo bear zan. Olan be, Jesusen biotz maitzailla gizonaren zoritxarrak osorik minduta eukan. Aste santua, Nekaldi-astea, ur-urrean zan.

Abar-domekako txalo ta gorak Jesus laztanaren biotza ez eben askorik poztu. Gizonaren izatearen barri ondo ekian, bai. Asteko leenengo egunetan, erriko agintariak eta jauretxeko nagusiak Jesusen aurka batzarrak iraduz egiten ziarduen. Eta guzurrea, naastea ta gorrotoa burubidelari ebezala, eparirik lotsagarriena biribildu eben. Jesus, Bildots errubagea, eriotzarik gogorrenera izan zan galdua. Eta eparirik gaiztoena beteko zan eguna oinkada odoltsuz etorren.

Eguren Gurena egun ospatsuaren jarrai; Bariku Santua laiño-moltzo illunen artean negar-intzirika agertu zan. Eparirik lotsagarriena bere gain bete bear zala-ta, larritasunez aurkeztu zan, Jesusen aurka zan guztia ezereztu nairik. Jesus ona, baiña, gizonaren onerako bear zan guztia eroateko gertu egoan. Maitasunez betc-betea zan. Orregaitik, Jesus, egun orretan, Gurutze astuna sorbalдан ebal, borrarer ta agintari amorratuen erdian Kalbario-rantz abiatu zan. Bere burua arantza zorrotzez zulatuta, eta gorputz guztia zigorkada astunez aulduta ebazala, oinkada odoltsuz aurrera egiten eban.

Bere lagunik geienak or-emen izu-ikaraz sakabanatu ziran. Andra Maria, Joan ikasle gaztea eta emakume batzuk bakarrik inguratu yakozan, bere jarrai joateko.

Erkebe neskatillatxoa be arein artean zan. Beiñola, Belen- erako bidean larrosa-bidetik pozik jarraitu eutsan. Oraingotan, barriz, neke ta samintasunen artean oiñatz odoltsuetatik zintzo-zintzo jarraitu nai izan eutsan. Bere biotza aspaldian Jaunari emonda eukan ezkerer, Jaunari lagun egiten adoretu joan zan.

Bideko neke ta laztasunak eta borrarer ta agintari gaiztoen egintza bildurgarriak gora-beera, Jesusen ondoan aurrera ta aurrera joan zan, Kalbario-mendira eldu arte. Eta antxe, mendi-gaillurrean, Jesus maitagarria, Jaungoikoa berbera, gurutzean eskegita eriotzaren atzaparretan ikusi eban. Andra Maria ta Joan ikasle maitea be antxe ikusi ebazan, atsekabezko negar-malko ugariak isurten.

Jesusek, bere Ama garbi-garbia ikasle maiteari amatzat emon eutsanean, Erkebe-k, une aretantxe, Andra Maria bere amatzat berariz artu eban. Eta gerotxoago, Jesusi «Egarrri naz» esaten entzun eutsanean, bere biotzean zartada onuratsu bat somatu eban. Ba-ekian Jesus ona biotzen eta arimen egarrri zana. Bere egarrri bizia aseteko, biotz askoren eta arima askoren opariak bear ziran.

Berba ikutugarri orreik zirala-ta, Erkebe-k, orduantxe bertan, Jaunaren maitatzailla zintzo-zintzoa beti izateko asmo bikaiña artu eban. Eta Jaunaren Gurutzetik erastea ta obiratzea samiñez beterik ikusita gero, Andra Mariagaz eta Joan ikasleagaz batera, Jerusalem-era jatsi zan. Eta aurrerantzean, bere arimea onoimen bikaiñez ederto apaindurik ebal, Andra Mariaren ondoan bizi izan zan. Ba-ekian, bai, Ama samur onen Biotz maitagarrian Jesus berbera edertasunez beterik egoana. Orregaitik, Erkebe-k bere garbitasunaren lirio zuri-ederra Andra Mariaren ondoan txukundu ta loratu nai izan eban: Jesusegana joateko biderik onena ta ziurrena Andra Maria zana ba-ekian-eta.



38. MAITASUNIK EDERRENA

Ninbe neskatilla on-ona zan. Bere biotz zabala zerbait maitatu gurearen indarrez, taupa ta taupa, aldi aretan artegasamar erabillen. Gogapen asko buruan eta autu asko biotzean. Olan be, bere biotzarentzat maitasun egokirik ez.

Udako illuntze eder baten, egun aretako lanak amaituta gero, gure neskatillea, ontzitxo bat arturik, iturrira joan zan. Ego-aize epelak baztarrak eta inguruak berariz berotzen ebazan artean, auzo aretako taldetxoak be, ure ederrez aseteko ustez, iturri-aldera beti lez alaikiro joan ziran. Eta an, ur garden-ozkirriotan eskuetako ontzitxoak sartuta eukezala, barriketan jarri ziran.

Onetan, Basabil-go Ilipon artzain mutil errimea, artaldeagaz basoan eguna eginda, illunabarrak etxerantz ekarren. Eta, iturri-ondoko landa bedartsura eldu zanean, Ninbe neskatilleagaz berba batzuk egin guraz geratu zan. Orretarako, beste guztiak lez, landa aretako jesarleku zabal baten egokiro jesarri ziran. Eta, oi danez, berbak berba eta autuak autu, egunaren argia illuntzera yoian.

Gau aretan, eliz-zaiñari aaztuta-edo, «Agurmaritakoak» berandutxoago egin eben ots. Eta gure gazte zintzoak, oitura onaren indarrez kanpai-otsera zutunduta, zeruko Erregiña aaltsua eraspenez maitekiro agurtu eben; eta geiagoko bagarik, Andra Mariaren babesean zirala, bakotxa bere bideetatik euren etxeetarantz abiatu ziran.

Ninbe, etxerantzakoan, bururapen askogaz joan zan. Mutillaren berba gozo ta autuak atsegin izan yakozan; eta, ori zala-ta, areganako maitasuna konturatzeko sortzera

yoakion. Baiña, bere barruan somatzen eban berbots miragarri bat zala-ta, itun jarri zan. Ezer ez eban ulertzen.

Ilipon, ostera, poz-pozik joan zan, urrengo kanta antxiñako au alaikiro abesten:

Gaurkoa, gaurko;
biarkoa, biarko;
Jaungoikoak emongo dau
bear dan orduko.

Aurrerantzean, euren arteko maitasuna egunerik egunera sendotuaz yoian. Eta iturriko landan adiskidetu ziran gazte zintzoak, maitasun okerrez orbandu bagako biotz zabal eta ederren jabe ziran. Beraz, maitasun garbiz Jaunaren bide ederretik gozaro-gozaro ebizan.

Domeka-arratsalde baten, Ninbe, iñoiz ez-ta, ibillaldi bat egiteko asmoz, basorantz joan zan; eta, ibiliak-ibili eginda, alako baten Sorobil-go iturritxora eldu zan. Eta an, uste bagarik, Ilipon, bere aitaitagaz batera, artzaintzan ziarduala aurkitu eban; eta bera be artzain zintzoen ondoan iturriko landan jesarri zan. Gazte biak maitasun-berbetea luzetan ziarduen, eta artzain aguratxoak, santzo zoli bat jaurtita, antxiñako guda-abesti bat agin-artean kantatzeari ekin eutsan.

Alako baten, neskatilleak, barriro be, bere barruan berbots miragarri bat somatu eban, auxe zirautsala: «Maitasun

ori, garbia danarren, zureztat ez da egokia. Nekerik ez dautsu arinduko. Maitatzaille andi bat or gorago dago zure zain, besoak zabalik zeuri itxaroten...»

Orretzaz konturatzean, Ninbe-ren aurpegia ezin-geiago gorritu eta bere biotza estutasunez larrituta eten bearrean jarri zan. Ez eban ezer ulertu.

Eguraldi eder-ederra zan. Birigarroa nagusi zala, txori- aldra baten txorrotxio alaiak entzuten ziran. Ipar-aize ozkirriak, zugatzetako orri guri ta meeak «firifiri» igitzean, bidaztiaren egarria aseteko jausten zan ur gardenak lamiña-eresi antzeko burrundara bakana egiten eban.

Geroago, mundu zabala atsedentzen bai—legoan, isillune berezia izan zan. Eta isillune miragarriaren altzoan mitxeleta zuri egozabal bat agertu zan. Eta mitxeleta eder arek Ninbe, gozaro-gozaro, bekokian jo eban. Eta gure neskatilleak mitxeleta zuriaren atzetik gorantz eta gorantz egin eban, Jesus Gurutzetuaren elizatxora eldu arte. Gurutzetuaren bularretik, maitasun andiz, Odola irradan jausten zan; eta mitxeleta zuriak, bere ego zabaletan Jaunaren Odol deuna artuta, neskatillearen ezpan bigunetan imiñi eban.

Une zoragarri orretan, Ninbe-k, dardarkada gozoa egiñik, aldatze onuratsua egin eban. Egiatzko maitasunak osoro ezagutzeko zoriona izan eban. Mitxeleta aren bidez, maitasun gozo batetik beste maitasun gozo obeago ta ederragora egaz egin eban.


Gau aretan, birigarro miragarri baten txorrotxio-otsera, neskatilleak bere logelako leioa zabaldu ebanean, ikuspenik alaiena izan eban. Ortzi (zeru) zabalean illargia eder-eder agertzen zan; eta, izar polit diztiratsuak zeruko mandatari bizkorak bai-litzazan, ixil-mixilka berbetez ztitsutan ziarduen.

Azkenez, urrin-urrindik etorren kantu eder baten berbots gozoak Ninbe-ren belarrietan durundi zoragarria egin eban: Zeruko Birjiñak, lurreko birjiñakaz batera, euren Egilleari abesten eutsoen Ereserki ederraren durundia...

Jesus, Birjiñen koroia,
Neskatx bakarrak ernca,
Ama garbiak egiña,
entzun zureen eskea.

Lili-artean zabilta
gazte garbiz esitua,
ezkongai eder dirdaitu,
emaztegaien saria.

Noranaï zoazen, ara
zure atzetik kantetan
doaz gazte garbi oiek,
betiko goratzarretan. (1)



(1) «Orixe»-ren bertsoak: «Urte guziko Meza-Bezprak», 773 orri.

39. AMETS-LOREA

Zerutiko mesede guztien bitarteko, Andra Maria dogu. Jaungoikoagandik datorkigun laguntza guztia, Andra Mariaren eskutik artzen dogu. Egia andi ori sarritan entzun izan dogu, eta Eliza Amak be baieztuta dauko.

Andra Maria, Jaungoikoaren Ama dan ezkeru, zeruan maillarik gorenengoan dago; enparadu zerutar guztien gainean, Jaungoikoaren ondoan, Irutasun Deunaren zoragarri.

Andra Mariaren arazorik nagusia Jaungoikoa maitatzea eta guri on egin eta laguntza emotea da. Golgotamendian, Jesusen Odol-isurteaz batera, neke-oiñaze zorrotzen artean sortu genduzan; eta, une aretante, bere seme-alaba egiñik geratu gintzazan. Arrezkeru, Amarik onenaren maitasun ezetsua geure alde izan dogu beti; Andra Mariak, amatasunaren eginbear arduratsuak, zintzotasunik andienaz beteten diardu: guri lagun egiten, geu maitatzen, geu zoriontzen.

Orretzaz argibiderik onena ta adibiderik egokiena ames bat izan neban.

Egun baten, geisorik nengoala, larritasunez nire biotza gora jasota, aal neban eraz otoitz egiten asi nintzan. Onetan, Jaunaren laguntzaz, nire min eta oiñazeak zerbañ gutxitu egin ziran, eta, era berean, lo gozoak artu nenduan. Eta lo gozo arek, amesaren beso samurretan, erriko elizara eroan nenduan. Eta an, altara nagusiaren ondoan, osasun-eske otoitz beroan asi nintzan.

Alako baten, Aingeru eder bat txirristada legunez jatsi zala konturatu nintzan. Eta Aingeru eder arek, irribarrez, zer bear neban itandu eustan. Osasuna bear nebala erantzun neustan nik. Eta orduan, bera, buruaz «baietz» esanda, zerurantz abiatu zan; nik begiakaz atzetik jarraitu neustan. Elizako teillatua beingoan edegi zan, eta odeiak urratu egin ziran, eta Aingerua zeruan sartzen ikusi neban. Zeruañ zatirik ederrena ikusteko zoria izan neban: Jaungoikoa eta Andra Maria egozan leku zoragarri. Jaungoikoa ta Andra Maria edertasunez beterik guztien zoragarri egozala baiño besterik ezin esan daiket, arein edertasuna bear danez azaltzekorik ez dago-ta.

Aingeruak, buru-makurtze andi bat eginda, Jaungoikoari eskumako belarrira berba egin eustan. Ori eginda, berealaxe jatsi zan, eta, neure ondora etorri zanean, buruaz «ezetz» esan eustan. Orduan, barriro eskatzeko esan neustan. Bigarreñean, ezkerreko belarrira, biotzaren aldeko belarrira berba egiteko arren egin neustan. Ori entzunik, Aingeruak, bere eskuak bular-ganean gurutzetuz, irribarrez auxe esan eustan: «Jaungoikoaren Biotza Andra Maria da. Beraz, Madra Mariagana noa.» Berbok amaitzean, joranez eta bizitasunez auxe esan neustan: «Bai, bai; zoaz zeruko Amagana, Ama dogu-ta.»


Beste bagarik, Aingerua leengo bideetatik beingo baten zeruratu zan, eta zeruko Amari nire alde otoitz beroa egin eustan. Otoitzean ziarduala, Andra Mariak Jaungoikoagana begiratu eban, eta, une berean, Jaungoiko

biozperatsuak Andra Mariari bere begi santu-santuak zuzendu cutsazan. Eta begirakune eztiitsu aren erdian, larrosa zuri-eder bat sortu zan eta larrosa zuri-ederra Aingeruaren eskuetan geratu zala konturatu nintzan. Orrenbestez, nire eskaria lortuta egoala igarri neban. Geiagoko bagarik, Aingeru liraiña eskuetan larrosea ebala jatsi zan, eta, lora ederra neuri emonik, irribarrez auxe esan eustan: «Or dozu Andra Mariaren mesedea. Zoaz beti Andra Mariagana».

Berbok entzutean, poz-pozez iratzartu nintzan, eta olan bearrez, nire gorputza geiso aretatik guztiz osatuta geratu zan. Lotan ikusi neban larrosa zuria, baiña, ni iratzartzean, ezereztu egin zan. Ez, ostera, bere guna ta bere

mamiña itzi bagarik. Lora zuriaren bidez, Andra Mariaren maitasuna ta bakea neure biotzean ezarri ziran. Eta nire biotzeko atsegiña zelanbait agertzeko, beiñola neure adiskide on bategandik ikasi neban kantutxoa Andra Mariari poz-pozik abestu neutsan:

Goizez eguzkiaren
diztira argitsuaz
zure gomutaz, Ama,
bizia zabaltzen da,
zugaz beti bizi izatea...
Au bai zoriona!



40. BELEN-GO LARROSAK (Gabon-ipuiña)

Gau zoriontsu aretan, Zuriñe eritxon Mañari-ko neskatilea, amalau urteko artzain neska samurra, bere artaldeko ardi zuri-ederrak billatzen ziarduan. Eta Mugarra-ko landa ederrean edur-artean sakabanatuta egozan ardi kutunak ezin txabolaratu izan ebazan ezkerro, neskatillatxo negarrez egoan.

Onetan, artzain neska arduratsuak goi-aldeetik aizean-zear etorritako abots legun-gozo bat entzun eban:

Aintza goietan Jaungoikoari!
Bakea lurrean
Aren gogoko gizonai!

Eta goi-abesti eder orren soiñu-otsean, zeru zabaletik argi- ditziz inguratuta egoala, aingeru zuri-eder bat agertu zan.

Zuriñe, aingerua ikustean, bildurrez beterik jarri zan. Aingeruak, baiña, neskatileari arean be ez bildurtzeko esanaz, maitekiro egin eutsan berba:

—Artzain neskato ori, arean be ez zaitez bildurtu: zuri barri on-on bat emotera zerutik etorritako aingeru bat naz-ta. Munduaren Salbatzaillea, Jaungoiko gure Jauna, Judea-erriak aspaldian pozez itxaroten izan dauan Mesias aintzagarria, oraintxe, gabeko amabi-amabietan, Belen deritxon erritxo politean giza-soiñez lurreratu da. Ori dala-ta, poztu zaitez eta poztu bedi lurbira guztia be bere Askatzaillearen oiñetan. Jaungoikoaren gizonaganako

errukia erri ta enda guztiak goratu ta txalotu begie... Zeuk be txalotu ta goratu egizu, ba. Oraintxe bertan goazan, ba, Belen-era, Jaungoiko gizon-egiñari aurpegi txikitxoan laztan gozo bat emotera. Erdu neugaz, Zuriñe... Goazan.

Eta beste bagarik, artzain gaztetxo, esan eder orrekaz arritu ta poztuta, aingeruagaz batera Belen-erantz abiatu zan. Eta erriak eta mendiak aingeru-egaz zearkatuta, egunsentia baiño leen, Belen-errira eldu ziran.

Gau orretan, erritxo ori zidar txipristiñez apainduta agertzen zan. Edur zuriz orniduta egoan. Iñoiz baiño politagoa ikusten zan.

Alako baten, erri-ertzetik joanda, mendi-egal batera urreratu ziran. Eta an, mendi-barrean, txabola zaar bat aurkitu eben. Zuriñe-ren ardi-txabolea baiño be txabola zaarragoa zan.

Orduan, aingeruak Mañari-ko neskatilea, oni bultzakada gozoa egiñik, bertatik txabolaratu eban. Eta neskatilea txabolearen barruan emakume zoragarri bat, itxura oneko gizon bat eta ume eder-eder bat ikusi ebazan. Umetxo, asto ta idiaren arnasa beroak artzen, erdi-billozik negarrez egoala. Ori zala-ta, Zuriñe-ren biotza errukiz minberatuta jarri zan.

Eta beste bagarik, aingeruak Belen-erako bidean irakatsi eutsan abesti polita, eskuak gurutzetuta ebazala, begirunez auxe abestu eban:

Umetxo maite, lora ederra,
zeru-lurraren jabea,
askatxo baten etzunik dago
Jaungoikoaren Semea,
gizon guztioi erakusteko
zeruetako bidea.

Kantu ori abestuta gero, Zuriñe-k umearen txirotasuna ta ezeukitasuna ikusita, negar egin eban, Andra Mariari itauntzen eutsala:

—Ume zoragarri orrek, ¿zegaitik egiten dau negar?

—Nire kutuntxu onek gizonen gaiztakeriakaitik egiten dau negar —erantzun eutsan Andra Mariak.

—Eta ume maitagarri ori, Jaungoikoa izanik, ¿zegaitik dago otzez dardarka?

—Gizonen biotzetan maitasunik aurkitu ez dauan ezkerero, otzak mingarriro igitzen dau nire semea.

—Eta ume eder-eder ori, zeru-lurren jabe izanik, ¿zegaitik agertzen da orren beartsu?

Ori entzunik, Andra Mariak, bere begi ederretatik nergar- malko diztiratsuak isuriaz, neskatiillatxoari abegi onez auxe erantzun eutsan:

—Gizonak aberaskerien zoro-bitsetan itsutu ez daitezcan agertzen da nire semea, zeru-lurren jabea izanik, etxe zaar onetan ezeukitasunik latzenean. Urre ta zidargosez itsututa dagozan guztiai apaltasunaren bidez zeru-bidea erakusteko.

Egiñiko itaun berarizkoen erantzuna artuta, Zuriñe, senetik urtenda lez, Jaungoikoaren errukia berba ederrez goratzen asi zan. Eta Mesias goragarriari oparirik ederrena egiteko asmoz, Mañari-tik Belen-eratu zala-ta, askatxoko Ume zoragarriari maitasunezko laztan gozoa orduantxe emotea erabagi eban. Eta aingeruak esan eutsanez, bere eskuak biotz-gaiñean ipiñita, Ume-Jaungoikoari bere aurpegi txikian mosu gozo-gozoa egin eutsan.

Une samur aretan, Umearen ezpan garbi-garbietan irribarre eztsua loratu zan. Eta Andra Mariak eta Jose deunak be euren biotzeko eskerrona Zuriñe-ri txera gozoz agertu eutsoen.

Orduan, Zuriñe-k antxe, txabola aretan, Sendi (Famili) deunagaz batera beti bizi izateko asmoa artu eban. Asmo ori arei agertzean, Andra Mariak neskatiileari eurakaz bizi izateko lain adorerik ez ebala izango esanez, berba maitekorrez auxe erantzun eutsan:

—Zure asmo ta gurari onak pozez beterik ikusten doguz... Baiña gure ondoan batera ta bestera ibilteko indarrik ez dozula izango jakiñerazoten dautsut. Neke ta atsekabe askoren erditik ibili bear izango dogu. Geu maite gozuzalata, ¿geugaz bizi bear dozula? Ondo dago. Orretarako, baiña, ez dozu gugaz ementxe egon bearrik. Oraintxe emongo dautsuguzan iru gauza maitatu ta bear danez zaintzen badozuz, antxe, Mugarra-ko landan, zeure artaldea zaintzen diarduzula be, ementxe geugaz batera bizi izango bizi-zintzaz egin aal izango dozuz lurreko egunak eta urteak...

Berbok amaitzeaz batera, Andra Mariak biotzera eskua eroanik, larrosa eder bat emon eutsan, garbitasunaren ezaugarria zan larrosa zuri-zuria. Jainko Ume egiñak, barriz, bere biotzeko maitasunik gozoenaz arnasa eztsua ezpaneratuz, larrosa gorri eder bat sortu eban: maitasunezko larrosa bikaiña zan. Eta larrosa ori artzain neskatoaren biotzean betiko ezarrita geratu zan. Eta Jose deunak, auts koloreko lora illun eta maitagarri bat esku zabalez emonik, irugarren larrosea abegi onez eskuratu eutsan: apaltasunaren larrosea zan. Sari eder orrekaz, artzaintxoa pozez ezti-bitsetan jarri zan, Andra Mariaren esana egiteko gertu.

Gerotxoago, larrosa eder orrekaz poz-pozik zala, Zuriñe on-ona, Jaungoikoa toki guztietan egoala-ta, leengo aingeruagaz batera barriro Mañari-ra etorri zan.


Eta ementxe, Mugarra-ko landa ederrean Sendi deunari adi-adi zala, artzain-bizitza apalean barrien-barri jarrita, Euskalerrian Jesusen barri onak zabaltzen ebazan

artean, Garbitasunaren, Jaun-maitasunaren eta Apaltasunaren
larrosa ederrak bere biotzean zaintzen ebazala, zoriontsu
bizi izan zan. Iru onomen (birtute) bikain orreik, berak alan
naita, Jesus, Maria ta Josegaz lokarri gozoz estutzen eben
gure Zuriñe.

Udabarrietan, barriz, Zuriñe maitagarriak, ardi zurien
atzetik bedar guri gaiñetan ebillen artean, bere begi urdiñak

Sortzalderantz ebazala, kantarik ederrenak abots gozoz eta
eztitsuz abesten ebazan...

Larrosa bat, larrosa bi, iru larrosa,
Belen-go txabolan ainbat larrosa;
onoimenetan bikaiñenak
Garbitasuna, Jaun-maitasuna, Apaltasuna.



41. URTEBARRIAREN BURUBIDEA

Gabonzaar-gabea, artzain morrosko gazte bat, Urtezaarrari agur egiñik, Urtebarria agurtzeko asmoz, Untzillaitz-txuntxurrera joan zan.

Artzain gazteak aitz jagi orretatik zerua izarrez beterik ikusten eban. Eta izartxo bakotxa ipar-aizearen soiñu-otsean berarizko txairotasunez dantzatzen zala konturatu zan. Mutilla dirdira polit orrekaz atsegintzen zala, bat, bi, iru, lau esanez, izartegiko arribitxiak aal eban eraz zenbatzen asi zan.

Onetan, gaberdi-gaberdian, oinkada narras batzuen zarata latza entzun eban. Zer edo nor ete-zeitekean begiratu ebanean, ule zuridun agura zaar bat arnasa larriz yoiala ikusi eban. Leku aretan alako agura zaarra, ikustean, ikaratu egin zan; eta, zerbait jakin guraz,

—Agura ezezagun ori, ¿nor zara? —itandu eutsan.

—Ni, Urtezaarra naz —erantzun eutsan agureak berbots ikaraz.

—¿Urtezaarra zara? ¿Nora zoaz? Gelditu zaitenez emen, berba egin bear dogu-ta.

—Ez, ezin jarri naiteke berba egiten, ezin gelditu naiteke-ta: neure azken-arnasea emotera, izentaturiko lekuraiño bear dan ordurako joan bearra dot. Orain arte. Jaungoikoak ipiñi daustazan eginbear guztiak zintzoro bete dodaz; eta beteteko daukadan azkenengo eginbearra, bear danez beteteko aalegiñak-aalegin egin bear dodaz. Azken

onaren onureak, leen egiñiko guztiak, iraupenaren sari ederraz aintzagarriri osotzen dabez-ta. Beraz, ba-noa aurrera...

Eta agura zaar maitagarriak, oinkada narrasez eta arnasoska, bere bidean aurrera egin eban. Artzain mutillak, baiña, zer jazoko-edo, zuur eta adi, agureari atzetik jarraitu eutsan.

Gaberdia, astiro-astiro, oinkada isillez urreratzen asi zan. Eta gaberdi-gaberdian altzo miragarrian, agura maitagarria mutikotxo potolo guri-guri bat maitekiro besarkatzen ikusi eban. Eta orretan ziarduan une berean, ule zuridun agurea artzain gaztearen begi-aurrean arrigarriri ezereztuaz, bat-batean ezkutatu zan. Eta mutikotxo potoloak, bere bidean jarrita, eskuakaz aurpegiko negar-malkoak legortzen ebazala, aurrera egin eban, artzaiñaren ondora eldu zan arte.

—¿Nor zara, mutiko? —itandu eutsan artzaiñak.

—Ni, aldia naz —erantzun eutsan mutikoak irribarrez.

—¿Aldia zareala? Egundo entzun ez dodan gauzea.

Nik mutikotxo bat baiño ez dot ikusten.

—Bai, aldia naz: Urtebarria. Or joan dan agura zaarraren semea: Urtezaarraren semea. Biok Jaungoikoak egiñak.

—Ene, bada! Beraz, Urtebarria zara. Urtezaarrari aguregiñik, Urtebarria —zeu— agurtzeko ustez aitz txuntxur onetara etorri naz-ta!

—Zaarra ikusi dozu, ba, eta barria be emen daukazu...

Orduan, artzaiña mutikoaren aurpegira arretaz begira jarri zan. Eta txikiaren aurpegia bustita egoala konturatu zan.

—Ene! Aurpegia bustita daukazu! —esan eutsan—. ¿Zer jazo yatzu?

—Ona, ba —erantzun eutsan mutikoak—: neure aita izan dan Urtezaarrak, atsekabearen negar-malkoz aurpegia busti daustala, nire etorkizuna begi-aurrean ipiñi daust. Nire aldiaren barruan jazoko diran gaiztakeriak alderreskan ipiñi daustaz. Ori esatean, arek negar egin dau bere aldian jazo diranakaitik eta nirearen barruan jazoko diranakaitik. Beraz, nire aitaren negar-malkoak neure aurpegian ezarri dira. Eta munduaren gaurko izate ta jokerara begiratu ezker, nire ostean agertuko danaren aurpegi samurrera nonbait isuri bearra izango dabe.

—Zure berba tamaltsu orrekaz ikaratu egiten nozu.

—Ikaratzea ez da arritzekoa. Geiago be esango neuskizu. ¿Zetarako, baiña? Jaungoikoa guztien gain.

—Ori bai! Olan be, zure kolkoan zer dagoan jakin gura neuke. ¿Onez ala txarrez zatoz?

—Esango dautsut zerbait orretzaz...

Onez ba-zabiz, onez;
txarrez ba-zabiz, txarrez.
Jaungoikoa dabil zuzenez.

Berba orrekaz, artzaiña ezin-geiago ikaratu zan. Eta Urtebarriari, bere aldian Jaungoikoaren bidetik zintzoro ibilteko burubideak eskatu eutsazan. Eta Urtebarriak, aregana arretaz eta gozaro begiraturik, auxe esan eutsan:


—Nire aldiak irureun eta irurogei ta bost mailla daukazana ba-dakizu. Beraz, aldi orretatik Jaunak gura dauanez igaroteko, mailla orreitan beti gorantz egin bear dozu. Baiña egun oro maillatxo bat igarotea naikoa dozun ezker, orretarako neke larregirik ez dozu izango, batez be oraintxe irakatsiko dautsudan otoitza goiz oro iratzartzean gogo beraz esaten ba-dozu.

Eta orduan, Urtebarriak artzaiñari gora begiratzeko arren egin eutsan. Eta begiratzeaz batera, an goian izarrak baiño gorago, urrezko berbaz idatzita, otoitz eder au irakurri eban:

«Jaungoiko ona: egun bakotxa zerura igoteko mailla izan dakidala. Zeuganako maitasunak eraginda, beti gorantz igo naitela, zure aurpegi ederra betiko argitan ikusi arte.»

Otoitz orreaz, artzaiña poz-pozik geratu zan, zeru-bideari zuzen jarraitzeko sendotasuna otoitz orretan izango ebala-ta.

Beste bagarik, Urtebarria, artzain mutillari besarkada gozoea egiñik eta «Jaunak amaibagako zorionez saritu zaizala» esanez, bere bidean joan zan.



42. OXIN BALTZA

Egun aretan, «Errota-zaarra» basetxeko etxekandra gazteak, bere etxeko labea goizean-goiz sutu eban: aste guztian etxean bear izango ebezan ogiak bertan egiteko asmoz.

Eta andra gazte arek, orretan ziarduala, ogi-orak labartzeko une-unean, «eup!» deadarra zoli-zoli entzun eban. «Ene, nor ete-da! —esan eban berekautan—. Onelakoxe ordu zeregintsuetan bai etorri be gurera nor-edonor...»

Eta, nor izan ete-zeitekean ikusteko, atea zabaldu ebanean, taiu oneko emakume gazte bat, umetxo polit bat besoan ebala, ikusi eban. Emakumea, bere umetxoagaz, eskeko-antzean agertzen zan.

—Emakume ezezaguna, ¿zer bear dozu, edo zer eskatzen dozu?—itandu eutsan artega etxekandreak.

—Andrea, etxeko labea oraintxe berton sutu dozun ezkerro, gosez negarrez dagoan umetxo samur onentzat ogi-opil erre-barria biotz-biotzez eskatzen dautsut. Opiltxo bigun bat bein emongo dautsazu, ¿ezta? Gosez negarrez dago gaisoa...

—Bai, zertxobait emongo dautsat, bai. Gosez dago, ¿ezta? Gaisoa! Ori umearen polita! Itxaron unetxo baten, ba, opiltxo bat-edo, geroago ekarriko dautsuet-eta —erantzun eutsan berbots artegaz errotako andreak.

Eta eskaratzera iraduz joanda, titara-bete urunaz ogi-opil txiki-txiki bat oztaz egiteko lain ora egin eban; eta

umetxoari emoteko ustez eta mustez, egiñiko opil-orea, enparadu ogien artean laban sartu eban.

Geroago, andreak, ogi-opillak naikoa erreta egongo zirala- ta, labearen agora iraduz joan eta, ondo erreta, aro onez egozan ogiak banan-banan ataraten asi zan. Batzuk eta besteak ederrak benetan! Areik bai ogien ederrak! Arelako labaldirik edo labakadarik andra arek bere bizian iñoiz be ez eban egin. Ori zala-ta, pozez beterik egoan. Ogiak labatik atara ta atara, eta arazo orri ekiñago eta pozago bera. Ekin eta ekin, alako baten, enparadu ogi-opillak atara ebazanean, titara-bete urunaz umearentzat egin eban ogi-opilla eskuratu eban. Eta, orduan andrearen ikarea! Titara-bete urunaz egiñiko opil-ora txikia, beste ogi-opil guztiak baiño askozaz andiagoo ta ederragoa zala ikusi eban.

«Onelakorik! —iñoan berekautan—. Au da opillaren ederren-ederra! Labako suak au eginda be, onelako ogi-opil ederrik begi-aurrean egundo ez dot euki. Beste guztiak baiño ederragoa ta andiagoo da-ta! Onelakorik eta onelakorik! Titara-bete urunaz egiñiko ora apurraz, onelako ogi ederra, ¿zelan egin daiteke, baiña? Orra or untzea ta muntzea... Tamaletan tamalena, barriz, umeari emon-bearra... Orri, umekondo orri emotea baiño etxerako gordetea obe izango da orraitño. Etxean zer bear izango be... Gaiñera, barriz, beti emoten jardute au baiño gauza gogaikarriagorik! Leengo urtean be, eskeko bati, berakatz-atal bat emon neutsan; igaz, ostera, beste bati lau baba-garau oso-osoak, eta atzo bertan aguratxo zaar-zaar bati pipia iziotzeko ilinti biztua eskuratu

neutsan erruki andiz. Olan ba, geiago iñori ezer emon ezarren be, nire biotz samurra emen inguruetako biotzik ederrena dala ulertu ta esango leuke edonok. Umetxo orri, opil onen orde, beste ogi txikiago bat be emongo neuskio, bere urdailleko gosea zelan-alan ase dagian be; baiña olan be, etxerako bat gutxiago... Ama-semeak-edo diralakook, beste etxe batera joanda, ango atea jo begie. Etxean zer bear izango be, orri emoterik ez dago...»

Eta andra zekenak, umeari ezer emon ala ez ebatzi eziñik aldi luzatxotan pentsatzen jardunda gero, iñori ezertxo be ez emotea erabagi eban. Eta atartera arin-arin joanda, emakumeari auxe esan eutsan:

—Jaungoikoa lagun! Emen ezertxo be ez daukazue; zoaze beste ate batera.

Ori entzunik, eskeko emakumeak, «bai, Jaungoikoa lagun» esanaz, umeari laztan gozo bat emon eutsan; eta, errotako andra zekenagana begi gozoz begiratuta gero, bere umetxoa eskuan ebalá, mendian-zear abiatu zan.

Beste egun baten be, emakume berbera, leen lez umetxoa besoan ebalá, «Errota-zaarra»ko basetxera joan zan. Eta, egun orretan be, «Errota-zaarra»ko etxekandra gaztea labako sua egiten ziarduala aurkitu eban.

Orduan be, eskeko emakumeak, «Gure Aita» otoitz eginda gero, barrura adi-adi zala, «eup!» abots gozoz egin eban deadar; eta, abots gozoz eskiñiko deadar berezi-leunak etxekandra gaztea, atean nor ikusiko, beingo baten erakarri eban.

—Gaur be emendik! ¿Zer dakazue? —itandu eutsan asarre-antzean etxekandreak.

—Onarentzat ona, eta txarrantzat txarra —erantzun eutsan eskeko emakumeak—. Gosez negarrez dagoan umetxo kutun onentzat, ¿ogirik edo artorik ba-daukazu? Nire semetxo au gosez dago, negarrez dago... Ori dala-ta, nire kutuntxo au, beronen gose mingarria kenduko leuskion biotz samurren billa, munduan-zear abiatu da. Eta au mundua! Biotzik onena atsekabez eta larrosarik ederrena samiñez...

eta... atea jo eta ezer be ez. Guztia emon dautsunari, ¿zertxobait ez ete-dautsazu emongo, ba?

Azkenengo berba ikutugarriok, errotako andrearen buru-barruan mataza berezia sortu eben; eta orregaitik, andra gazte-artegea, buruan eban mataza-naastua aritik-marira atondu gurarik, pentsakor be pentsakor jarri zan. Eta olan egoala, eskeko emakumeak, barriro be, aurpegi ben-gozoz auxe esan eutsan:

—Etxekandra maite orrek: nire loratxo onentzat, ¿ezertxo be ez daukazu, baiña?

—Zuri edo baltz, asko edo gutxi, ba-daiteke zertxobait egotea edo eukitea be —erantzun eutsan pentsakor errotako andreak.

Eta, bereala etxebarruratuta, barriro be, titara-bete urunaz, ogi-opil txiki-txiki bat oztaz egiteko lain ora gertatu eban; eta egiñiko opil-gaia, eskekotxoaren urdail-gosea aseteko ustez, beste ogi-opillakaz naastean sartu eban laba gorrian.

Baiña orduan be, leen jazo zana jazo zan: opil-ora txiki-txikia ogi andi ta eder biurtu zan; beste ogiak baiño amar bidar andiagoo, ederragoo ta apatzagoo* egin zan.

Barriroko jazopen arrigarri onek errotako andrea, «zuti ta muti», zuur eta lur eginda itzi eban; zer pentsatu ez zer esan ez ekiala, kokolatuta geratu zan. Ogi-opil miragarri a begi zabalez begiratzen eban. «¿Ze mirari dau au?», itauntzen eban berekautan artega ta ikaraz.

Eta begiratu ta begiratu, eta egon eta egon, bere biotz erkiñean aspaldian egoan zekenkeria astiro-astiro sendotzen asi zan.

Leenen, opillik ederrena umeari emotea tamalgarri izan yakon; gero, osterá, opillik txikiena ta kaskarrena etxetik bialtzeko gomuteak be, bere barruan alako «zertxua» egin eban. Irugarren gogaldian, barriz, andia naiz txikia, ederra naiz erkiña, gutxi naiz asko, iñori zerbait emoteak biotza apurtzeh eutsan. Alakoxe zeken gaiztoa zan!

Eta errotako andra zekenak, biotzean jira-biraka ebilkion zekenkeri iguingarriaren burubide kaltegarriari oso-osorik jaramon eginda, iñongo iñori «altzirik» be iñoiz ez

emoteko asmo berezia artu eban. Eta etxekandra zitala, «etxean zer bear izango be» bere betiko leloa ezpanetan ebala, eskeko emakumeagana joan zan; eta, emakumeari ta umeari begirakada zorrotza jaurtiaz, erremuskada latzez auxe esan eutsan:

—Zoaze ortik-zear, gogaikarriok alakook! Beti eskean-meskean etxe-inguruetan ibili bagarik, zoaze, zoaze eskeko zirtzillok... Joan, joan emendik beste leku batera; zeuek gura dozuen erriren batera-edo...

—Eta ezertxo be emon bagarik, ¿erremuskada latzez bialtzen gaituzu? —esan eutsan apal-apalik eskeko emakumeak—. Ba-daukazu, ba, zuk artoa, ogia ta abar, etxean gauzea ugari... «Errota- zaarra» basetxe eder au Jaungoikoak esku-zabalez emondako ogasunez gonburututa* dago-ta! Guztia emon dautsunari, ¿amarretik «batxu» be ez ete-dautsazu emongo, ba? Jaungoikoaren izenean zeure onerako eskatzen dautsut...

—Ez, ez... ez Jaungoikoaren izenean, ez beste iñoren izenean be ez dautsuet ezer emongo. Ogirik, artorik, ez beste gauzarik ez daukazue emen —erantzun eutsen etxekandra zitalak.

Ainbeste zekenkeria ikusirik, eskeko emakumeak negar eta negar egin eban. Errotako andrearen biotza zekenkeriaren arrak sendo jota egoala konturatu zan; eta ori zala-ta, aren etxearen ondamendia uru-urreean zala iragarri eban. Orregaitik, tamalez beterik, negar egiten eban, errotako andrea zekenkeriak galduko ebalako. Eta eskeko emakumea, biotz bagariko andra ari geiago berbarik egin bagarik (ari ezer esatea alperrik zan-eta), umetxoa bere bularrean maitekero estututa ebala, mendian-gora ta gora joan zan, mendi-txuntxurreko zeru urdiñean miragarriri urrunduz.

Urrengo illuntzean, eskeko emakume arek, «Errota-zaarra» basetxeko soloan neskatilla eder bat ikusi eban. Eta, basetxe aretako mirabea ete-zan itandu eutsanean, neska eder arek baietz, angoxe mirabea zala esan eutsan. Ori entzunik, emakumeak auxe esan eutsan:

—Neskatilla on ori: aldendu zaitex leenbaileen zoritxarreko etxe orretatik. Errubageak errudunagaz batera kalterik jaso ez dagian, biar goizean-goiz, egun barriak bere argia ekarteaz batera, zoaz zeure gurasoen basetxe maitagarriara. Zeure onerako agintzen dautsut dana. Neure esanak egingo zaitu zorioneko. Zoaz emendik...

Neskatilleak, emakume ezezagunaren burubidea, zerbait jazoko zalakoaren bildurrez-edo, oso-osoan bete eban. Biaramon-goizean, egun barriak bere argia ekarri ebaneko, bere jantzi-pardela besapean ebala, zoritxarreko etxe aretatik bere gurasoen etxera joan zan arin.

Eta ordu batzuk geroago, «Errota-zaarra» basetxe-inguruan, trumoi-ots itzelakaz, ekaitz bildurgarria sortu zan. Eta, oiñaztu, trumoi, euri ta txingor eta aize-biorra ugari zirala, «Errota-zaarra» basetxea ezarrita egoan lurra dardaraldi errimeak igituta, bat-batean edegi zan; eta orduantxe bertan, «Errota-zaarra» basetxe entzutetsua, bere etxekandra zekena barruan ebala, lurra bildurgarriro iruntsi eban.

Etxea ta etxekandrea ondatu ziran lekuan bertan, ur loiak eta zikiñak pilloan batuta, oxin zikin-zikiña sortu zan. Eta, inguruko lagunak jazopen areaz ikaratuta zirala, oxin zikin ari izena «Oxin-baltza» ezarri eutsoen.

Sarri aitatu dogun emakumea, Andra Mari izan zan; eta bere besoko umea, Jesus Umea.

«Errota-zaarra» basetxeko andra zekena, gosez egoanaz errukitu ez zalako eta arek eskekoari biotz gogorrez egin eutsalako berba, irabazi eban zigorraz zigortu eban Jaungoikoak; Berak esku-zabalez emon eutsazan aberastasunetarik, amarretik «batxu» be, Berari, edo bardin dana, eskeko errukarriari emon ez eutsalako. Andrearen zekenkeria, izan be, Jaungoikoaren begietarako iguingarria be iguingarria izan zan.

43. JENTILLEN BOLA-LEKUA

Oraingotan be ba-zala edo ez zala... esan bear dodana, aritik-marira, ipuiñetan esango dautsut.

Baiña leenen, ezetan asi baiño leen, «Jentillen bola-leku» miragarri ori non dagoan ikusi bear dogu, ezjakiñean edo —obeto esateko— itsumustuan ara ta ona oinkada zororik egin ez dagizun be. Gaiñera, barriz, gauzea, ikusirikoan, askozaz leenago ulertzen da.

Gura ba-do zu, zoaz oraintxe, astiro naiz arinka, zeuk aal dagizunez, Untzillaitz-erpiñera.

«Kapanagaburu»tik ba-zoaz, obe. «Odeieta»ko landara igō ezkerō, andik osterik oste, triski ta trauski joanaz, zerbait bizkorra ba-zara beintzat, beingo baten erpiñeratuko zara. An goian, txuntxur-txuntxurrean, egonalditxo bat be ederto egin daikezu; eta, neke-osteko atsedena zeru-ertzean gozoro artuta gero, Mañari-ko atxartean sortua ba-zara, Urkiola-alderantz eun bat oinkada ardura bagarik emon daikezuz; eta bestela, or beeko urietan jaiotakoa ba-zara, labar andi orretan arduraz ibili bearra izango do zu... Eta, barriro beste orrenbeste oinkada alborantz emon orduko, «zuti ta muti», Jentillen bola-lekuan «naikoa dot» egingo do zu.

Eta orduan...

—Ene! ¿Au dok «jentillen bola-lekua»? —esango do zu irri-destaiñez—. Bedar guriz ormiduriko landa txiki-txiki bat baiño ez dok-eta! Landa au, bere izenaren jabe, ezetara be ezin izan daitekek. Lekutxo onetan bola-jokoan,

¿nok jardun daikē, gero? Ez leen, ez gero, ez yagok olakorik...

Olantxe da, izan be: «Jentillen bola-lekua» deritxon tokia bedar guriz apainduriko landa txiki-txiki bat baiño ez da. Baiña jentillak, lamiñak eta sorgiñak gauza bakanak egiten ebezala esaten dabe sarritan emengo baserritarrak; eta, aitaturiko landatxo orretan be, antxiña, jentillak bola-jokoan jarduten ebela; eta, ori zala-ta, geroago errikoak leku orri izena «Jentillen bola-lekua» ezarri eutsoela.

Jentillak, beso ta anka luze-luzeakaz, areitz-tantaiak lako gizon andi-andiak ei-ziran. Indartsuak, barriz, eurak lakoak. Euren beso luzeak ikutzen ebezan zugatzak, sendoenak izanda be, txirikillan jausten ei-ziran; eta euren ankatzarrak zapaltzen eben arria, sarritan austuta geratzen ei-zan. Gizon bakan-bakanak ei-ziran benetan!

Erri onetako jentillak, gaur Martin deunaren baselizea dagoan inguruan bizi ei-ziran. Eta, euren jolas bakanetan jarduteko, gauoro-gauoro Untzillaitz-erpiñera joaten ei-ziran beti. Ona emen jolas orrei buruzko ipuintxoak.

I

Illargi eder-zurizkeak gau illuna bereziz argitzen eban gau zoragarri baten, Otzortia-ko gure jentillok Untzillaitz- txuntxurrera jolas egiten joan ziran.

—Gaur, ¿zetan jolastu bear yoagu? —esan eban orroka Jentil nagusiak.

—Gaur, bolan! —erantzun eutsoen enparadu jentillak.

—Tira, ba, bolan. Bolan jardungo yoagu, ba —esan eban Jentil-buruak—. Ekarri, ba, arin armokilla.

Orduan, areitariko batek «Bizkarra»ko labarrari arri-mokil andi bat kendu eutsan. Milla arrobako arri biribilla zan. Eta, armokilla besapean eukala, jentil-buruagana aurkeztu zan; eta, ben-ben, auxe esan eutsan:

Or dok, ba, bolea,
milla arrobako arria,
ankaz gora jaurtiteko
euk gura dokan guztia...

Eta bereala bola-jokoan asi ziran. Arri-mokillak keea ataraten eban; batera ta bestera indar andiz jaurtiten eben. Alako baten, armokilla bere lekutik kanpora joan zan, eta bere zartada errimeak ateko zugatz guztiak erroz-gora txirikillan jaurti ebazan. Alako triskantzarik!

Eta, atxean-beera bilin-bolaka etorri zan arte-zugatz batek, «Kukin» artzain-mutil errimea, buru-erdian jota, agoaz beera lurreratu eban. Jentillak «Kukin» mutilla oso maite be maite eben: egun oro ardi-esne gozoz janaritzen ebazan-eta. Ori zala-ta, ezbear itun orrek errime tamaldu ebazan. Eta guztiak batera, atxean-beera arrapaladan jatsirik, mutilla seneratzen asi ziran, orretarako osakai* batzuk egiñaz.

Jentil batek, asunakaz aurpegian joten eban; beste batek, barriz, bularra aker-koipeaz igortzi, eta urrengoak bere barruko arnasea mutillaren agoan sartzan eban. Baiña egiñata orreik orrela zirala be, mutillak zirkiñik be ez.

Onetan, areitariko bati, txistua jota, dantzan egitea otu yakon: mutilla, gazte alaia zan ezkerro, bearbada alaitasunak seneratuko ebala uste izanik.

Gerotxoago, zugatz-ganean gautxori batek, mozolo batek, auxe abestu eban:

Ujuju!

Ze jentil eta ze txistu:
bein mutilla il ezkerro,
ezin barriro biztu.

Ori entzunik, jentillak ikaratu egin ziran; eta, txorimozoloari ixil-mixilka auxe esan eutsoen:

—Gizon santzolari: ¿nondik orrenbeste jakituri?

Baiña mozoloak jaramonik be ez; bere egoakaz «plapla» otsa egiñaz, iges egin eban.

Jentillak, mozoloaren esanari jaramon egiñik, «Kukin» ilda egoala konturatu ziran. Eta, gau aretan bertan, beste artzain-mutil baten billa asi ziran; eta, ortik-emendik ibiliak-ibili eginda be, ezin mutillik idoro (aurkitu) izan eben. Orduan, besterik ezean, mutil barria euren eskuz egitea erabagi eben.

Ona, zelako soin-atalakaz egin eben mutil barria: leenen, zotzezko oin-beatzak ezarri eutsoezan; gero, barriz, sagar-ustelezko orpoak, kaiñberazko txankak, kipulazko belaunak, bildots-narruzko sabela, maats-aienezko esteak, arto-lastozko besoak, egurrezko eskuak, karrazpuztazko* bularra, aratxarrozko* bizkarra, igeltsuzko aurpegia, tomatezko matrailak, arrautza lokazko begiak eta jankuizko* burua...

Eta jentillak, curak egiñiko mutilla, lurrezko pipea musturrean eukala, mendian-gora bialdu eben. Baiña txorimozoloa, itxura aretako mutilla mendira igoten ikusi ebanean, barre-santzoka asi zan, eta arek izena «Sasi-berezi» ezarri eutsan.

II

Beste gau baten, gure jentillok, barrien-barri, euren bola-lekuan bola-jokoan asi ziran. Eta, iru edo lau, edo bost edo sei jokaldi egin orduko, barriro be milla arrobako armokil andia atxean-beera bilin-bolaka joanaz, «Intxalde»ko troka-sakonera jausi yaken.



JENTILLEN BOLA-LEKUA

«Zugatz-ganean mozolo batek auxe abestu eban:

Ujuju!

Ze jentil eta ze txistu...!

bein mutilla il ezkeru

ezin barriru biztu».

Ori jazotean, jentil arro batek illargi aurpegi-zabalari begirakada zorrotza jaurti eutsan, agin-artean amorruez auxe iñoala:

Illargi zirtzilla!
Bolearen saltoa
ik galduriko tantoa!

Eta orduan, illargi aurpegi-zabalak, jentil arroaren soin errimea armokilla bizkarrean eukala, «ene!» esateko be asti bagarik, indar bereziz beraganatu eban. Sorta astuna bizkarrean eukala, batetik-bestera munduan-zear ibilteko eroan eban.

Lagunaren zoritxar andiak, enparadu jentillak lau orrien ikaraz jarri ebazan. Eta, areitariko batek, illargi asarratua bigundu gurarik, armokilla jaustearen errua laino-zearka ebillen ego-aize ikuseziñari ezarri eutsan:

Aize, aize, eu az errudun.
Gure bolea aize-bitsetan euk eroan.
Ibili ta ibili, eta ikusi ez.
Oa, oa eure bidean-zear,
guztiok baketan itzirik...

Eta ego-aizea be, jentillaren berba garratzak entzunaz, asarratu egin zan. Eta indar andiz txistuka asita, Untzillaitz-ko jentil guztiak bere altzò miragarrian artuta eroan ebazan. Eta, aldi luzetan aize-putzetan lainoan-zear bakankiro erabilia, urrengo gabean inguruko aitz-mendietan sakabanatuta itzi ebazan: batzuk Mugarra-n, beste batzuk Arranaitz-en eta Artzate-n eta beste mendi erpin batzuetan geratzen zirala.

Gaberdiko illun-une itzal-bildurgarritan, jentil guztiak, santzoka asita,

—¿Ze arrano dok au? —iñoen—. Indartsuak eta errimeak gareala, baiña... or goian ba-yagok gogorragorik.

Eta guztiak, era batez mendi-txuntxurretan belaunikotuta, ego-aizeari bular-joka parkeskatu eutsoen.

Alako erregu beroaz, ego-aizearen txistu bildurgarria bat- batean isildu zan; ego-aize indartsua bigundu egin zan, adiskidetu egin zan. Eta, jentil guztiak barriri bere altzo miragarrian artuta, Untzillaitz-erpiñera ekarri ebazan.

Erpin aretan be guztiak era batez belaunikotu egin ziran, illargiari euren lagunaren alde erregu sutsua egiteko. Eta, ordu berean, illargi asarratuak be, bere asarre guztia beraganatuta eukan jentil arroa, beronen adiskideen erreguak zirala-ta, Untzillaitz-erpiñera armokilla ta guzti jaurti eban.

Orduan bai ango poza ta zaratea! Pozaren-pozez ikotika asita, luzaroetan «Kiribio-dantza»n jardun izan eben, euren barruko poza zelan-alan agertzeko.

Otzortia-ko jentillok, bola-jokoan bakarrik ez, baita palanka-jokoan be ederto baten jokutzen ei-eben. Palankari errimeak ei-ziran. Arein palanka astunak Untzillaitz-tik Anboto-ra ta Mugarra-ra jaurtiten ei-ebazan.

Bein, jentillik indartsuenak eta gogorrenak «nor-geiagoka» pala-joko errime bat egitea erabagi eben. Eta, matraka ta eztabaida asko eginda, gero, orretan jarduteko gertatu ziran.

Leenengoak, palanka sendoa eskuetan eukala, mendi-txuntxurrean gerri-zutik, auxe esan eban:

Oa, oa aize-putzetan,
oa arin Larrano-raiño.

Eta esku indartsuz jaurti eban palankea, Larrano-raiño bertaraño eldu zan.

Bigarrenak be, bestea lez jagita, gorantz begira, auxe esan eban:

Oa, oa aize-bitsetan,
oa Anboto-ko tontorreraño.

Eta beste bagarik, palankea, aize-bitsetan joanda, Anboto-ganeko labarrean beso-betez sartu zan.

Irugarren jentillak be, palankeak jaurtitean, bere guraria enparadu jentillen aurrean agertu eban:

Oa, oa odei-zearka,
oa Mari-ren kobaraño.


Eta irugarren palankeak be bere ugazabaren guraria oso-osorik bete eban. Ain zuzen be, jaurtiriko palankeak, irrintzi baten odeiak arin zearkatuta, Mari Urrika Anboto-ko dama ezagunaren bizitokian sartu zan. Eta palankearen zartada errimeak Mari Urrika kobatik kanpora jaurti eban; eta «dama» gaisoa, odeian-zeak su ta gar joanda, Mugarra-ko koba nagusian sartu zan.

Baiña gure jentillok, Mugarra-ra be, palankak jaurti ebezan. Eta Mari Urrika-k andik be nora edo ara anka-jokoa egin bear: Artzate-ko landara joanda, antxe aitz-baztarrean ezkutatu zan.

Urrengo egun baten, baiña, Mari Urrika-k jentil gaizkilleari «atzeko-martitxena» ederto ekarri eutsan. Jentillok, Oztortia-ko kandan «kontu-kontari» egozala, Mari Urrika odei-ertzetik, su ta gar, buztanetik suzko txinpartak eriozala igaro zan, buztaneko txinparta mingarriak jentil-artera jaurtiten ebazala.

Orduan, ango negarra ta ango ulua! Batari, begiak erre eutsazan; besteari, besoak; eta urrengoari, anakak, eta abar.

Jentillak urrengo egunetan, errearen miñak eraginda, negarrez eta garrasika ibili ei-ziran. Arrezkero, barriz, gure jentil errimeok Mari Urrika-ri palankarik jaurtiteko adorerik arean be ez ei-eben izan ez! Mari Urrika, Mari Urrika zala-ta, begiak gorantz zuzentzeko be bildurrez ei-egozan...



44. KOKOLO-MOKOLO

Amama Maluta-ko, aitaita Txarrantxa-ko zanaren emaztea, bere illoba bategaz bizi zan.

Amama Maluta-ko, atso zuurra ta bizkorra ba-zan be, bere semearen semea buruan argi larregirik ez ebala etorri zan mundu onetara.

Mutil ari, berak egiten ebazan tentelkeriak eta kokolokeriak zirala-ta, errikoak ago batez «Kokolo-mokolo» creisten cutsoen.

Egun baten, gure «Kokolo-mokolo», bere amamaren sakelean bost ogerleko oso-osoak artuta, Abadiño-ko periara txarri bat erostera joan zan.

Periara eldu zaneke, begi ta belarri, inguruetara adi-adi egoala, txarri eder bat begiz jo eban. Eta bertan, salneurriari buruz ortikoz-emendikoz eztabaidaka barregarri ibilita gero, azkenez, txarri eder aren jabe lau ogerleko ta erdigaitik egin zan.

Gure «Kokolo-mokolo», txarri ederra aurretik ebala, ba-etorren etxerantz; eta, egun aretan eroste on-ona egin ebala-ta, Durango-raiño bidea pozez beterik egin eban. Durango-ra eldu zanean, bertako ardanetxe baten aurrean geldituta, txarriari beronen ezkerreko belarriko zuloan sei erreal sartu eutsazan, auxe esaten eutsala:

—I, txarri: ik lau anka ta nik bi. Nor ariñago etxera... ¿gura dok postura?

Eta, ori esanda beste bagarik, «Kokolo-mokolo» arrapaladan ardanetxean sartu zan, an ardao apur bat edateko ustez.

Ardanetxean apur bar txuruplin eginda gero, gauleanean* etxerantzakoari emon eutsan. Eta, txarria noiz ikusiko, bideak ari-arin saltoka igarota, alako baten etxeko atea jo eban. Etxeratu ta bereala, amamari ea txarririk eldu ete-zan itandu eutsan; eta amamak, txarririk ez onen aztarrenik arean be ez ebala ikusi esan eutsan. Orduan, mutillak,

—¿Txarririk eldu ez? Oraindiño one!akorik! Belarriko zuloan sei erreal dauzala, nor ariñago etxera eldu, postura eginda bialdu dot ba-ta... Berak lau anka, eta nik bi baiño ez; eta olan be poztorea neuk irabazi. Olako arranokeriarik orraitaiño... Etxeratu daiten une berean, belarriko sei errealak laster kenduko dautsadaz, bai...

Ori entzunik, Maluta-ko atsoa geldota geratu zan; eta, bere illobearen ganorabagekeriaz gomutatuta, asarrentzean jarri zan, berba garratzez esaten eutsala:

—A, lelotzarra! Txarria etxera, ¿olan bakarrik elduko zala uste dok? Ona etorteko biderik be, ¿non yakik, ba? Eure ganorabagekeria dala ta ez dala, ez ogerleko ta ez txarri. Orra ezer bagarik non geratu garean! Olako txarria ondo etxeratzeko, soka batatz samatik ondo lotuta dala, norbere ondotoxan, norberagaz ekarri bear izatek dok...

Biaramon-goizean, «Kokolo-mokolo» gaztaiñak egosteko topin bat erostera Durango-ra merkatura joan zan. Eta, amamak aurregunean txarriari buruz esana gogora

ekarrita erosi eban topiña, kirtenetik soka lodi bat az lotuta, bide guztian dingili-dangalaka, tataras ekarri eban.

Etxera eldu zanean, erositako topiña, amamari, poztuko zalakotan, erakutsi eutsan; baiña amamak, topiña ainbestean maillatuta ta gauzeztuta ikustean, agiraka garratzak egin eutsazan:

—Ori dok ganorea, mutil! —esan eutsan—. Igaz gauza onik ezetara be ezin egin daitekek. ¿Topiña bidean dingili-dangalaka ekarriko euan, ba? Orain gaztaiñak jan bagarik egon bear izango dok, bai, ez dok ezer egosteko gauza-ta. Topiña, olan dingili-dangalaka bagarik, besoan sartuta polito-polito ekarri bear izaten dok...

Ganeko egun baten, asarrearen beroa otzituta gero, Maluta-ko atsoak, bere illobeari, Durango-ra joanda, uruna eralgiteko baea ekarri egiala agindu eutsan. Barriro be mutillak, bere amamaren esana zintzo-zintzo egitearren, Durango-ra joanbearra izan eban. Ogerleko zabala sakelean sartuta, Durango-rako bidean jarri zan, ba. Eta, uruna eralgiteko baea baiño beste asmorik barruan ez ebala, bidea aringa ta ikotika igarota, ordu-lauren baten barruan Durango-ko «Muski-andi»ren dendan, «tente-potente» burduntzi baltza baiño be artezago sartu zan. An, begi-zearka baztarrak ondo arakatuta gero, amalau txakurregaitik, errian zan baerik ederrena erosi eban.

Eta, orduan be, amamaren esanaz gomutatu zan: topiña, besoan sartuta, polito-polito etxeratu bear zala ez yakon aaztu; eta, ori zala-ta, baetxo barria be besoan sartuta polito-polito etxeratu bear izango ebala bururatu yakon. Orretarako, baetxoari, ukabillaz gogor jota, zulo andi bat egin eutsan, eta gero, bertatik besoan sartuta ipiñi eban. Eta, baetxoa besoan ondo sartuta ebala, alantxe-olantxe etxera elduta, egun aretan egiñiko erostea be amamari erakutsi eutsan. Amama, orduan be, asarratu egin zan:

—Ene...! Ori dok egin dokana! I lako kokolorik mundu guztian be ez yagok! Leen, topiña, eta orain baea: orra gauza guztiak zelan gauzeztuta itzi dokazan! Eta, ¿txarria, barriz? Ai, non ete-yagok bera...! Ire aitaita zanaren antz andirik ez daukok beintzat: gauzak artez eta zeatz

egiten, a zoan mutilla! Biar goizean, txiki-txiki ta andi-andi, neuk joan bear izango yoat bai Durango-ra, beste baetxo barri bat ekartera. I iñora bialtzea, pekatu egitea dok izan be-ta...

Esan eta egin, biaramon-goizean, Maluta-ko atsoak, Durango- ra joanda, beste baetxo barri bat ekarri eban.

Egun batzuk barru, amama Maluta-kok bere illobeari, bera basora egurretan yoiala-ta, gaberako taloak egiteko uruna eralgi egiala agindu eutsan.

Amama basorantz abiatu zaneokxe, «Kokolo-mokolo», baetxo barria artuta, eskaratzean uruna eralgiten asi zan. Baiña orretan ziarduala, basetxeko solora auntz-pillo andiak sartu ziran. Orduan, «Kokolo-mokolo»k, bere lana bertan-beera itzita, solora joan zan; eta andik auntzak uxatzeari ekin eutsan.

Geroago be, auntzak, barriren-barri, soloan sartu ziran. Eta, auntzak soloan egiten eben kaltea ikusirik, mutilla barriro be soloratu-bearra izan eban; eta, abere arekandik soloa obeto zaintzeko, baetxoa artuta, soloaren erdi-erdian uruna eralgiten asi zan.

Baiña, otoz-otoan jagi zan aize indartsuak «bur-bur» ots itzela eginda, baetxeko urun guztia soloan-zear eroan eban, baetxoan urunaren apurrik be geratzen ez zala.

Urun-galtze arek, «Kokolo-mokolo»ri tamal andia emon eutsan. Eta gure mutillak, bere ituntasuna kentzeko, eskaratzeo upa andira joanda, sagardoa edateari ekin eutsan. Alako baten, upearen giltza, bere lekutik kanpora urtenda, beeko kortara jausi zan, eta bertantxe sagardoa parrastaka urtetan asi zan.

Mutilla estu ta larri jarri zan; eta, upearen giltza aurkitzeko aalegiñak-aalegin egin ebazanarren, giltzaren aztarrenik be ezin idoro (aurkitu) izan eban. Orduan, «Tototxu».izēnaz etxeko txakurrari dei egin eutsan; eta, «Tototxu» eldu zanean, «Kokolo-mokolo»k txakurraren buztana upa-zuloan sartu eban, andik sagardoa geiago urten ez zedin.

Baiña txakurrak, auntzak soloan ikustean, upea ta «Kokolo- mokolo» bertan-beera itzita, basotxeko solora egin eban iges. Eta, txakurrak iges egiteaz batera, upa andiko sagardao guztia eskaratzean bat-batean zabaldu zan.

«Kokolo-mokolo», eskaratzean ainbeste sagardao ikustean, estutu egin zan, zearo ikaratuta geratu zan. Eta amama basotik laster be laster etxeratuko zala-ta, ora-maitik amar arto andi atarata, eskaratzearen erdian or-emenka polito-polito ipiñi ebazan: amamak, basotik etxeratu zeitenean, arto-ganeetatik oinkadak emonaz, bere oiñak busti ez egizan.

Alako baten, amama, basotik etxeratu eta etxe aretako ganora negargarria ikusirik, iñoiz baiño asarreago jarri zan.

—Kirten andia alako ori! —zirautsan asarrebisetan—. Arrano orrek, ¿zer egin dok, baiña? Etxe guztia ondatu dok-eta! Eure ganorabagekeriak dirala-ta, oraintxe gagozak egotekoak...! Ez, ez..., gaur ez dauat parkatuko, ezetara be ez dauat parkatuko. Ire obenaren ordaiña oraintxe berton artu bear dok...

Bitartean, mutillak berbarik be ez.

Onetan, amamak, kortara joanda, ango ate nagusia ekarri eban; eta, geiagoko bagarik, mutillari kortako ate andia bizkarreratuaz, auxe esan eutsan:

—Oa, oa sorta onegaz mendian-zear... Oa, oa eure obenaren parkamena jaristera...

Eta mutilla, kortako atearen sortea bizkarrean ebala, mendian-gora abiatu zan. Eta, egun guztian mendirik-mendi ibiliak-ibili eginda gero, illuntzean, nekatuta be ba-egoalata, gaba egiteko asmoz, bere ate ta guzti zugatz batera igo zan.

Gaberdian-edo, zugatzaren azpian lapur batzuk batu ziran, gau aretan egin ebezan lapurretak euren artean banatzeko. Euren artean gauzak banatu eziñik deadarka ta zarataka ibili ziran.

«Kokolo-mokolo» arekana begira adi-adi ule-zutik egoan. «Lapurrak, sorgiñak, edo zer demoniño dozak, gero, eurok? —iñoan ikaraz—. Oraintxe naiagok ni ona!»

Ori esanda gero, bizkarrean eban atea, ikarearen ikareaz zugatzetik beera jaurti eban. Eta, orduan izan zan izan zana! Ate andi ta astunaren zartada errimeak, zugazpean egozan lapur guztiak, «batxu» be itzi bagarik, il egin ebazan.


Lapur bildurgarri arein atzamarretatik bere burua askatuta ikusi ebanean, gure «Kokolo-mokolo» pozez beterik jarri zan; eta, zugatzetik oin-bardinka bereala salto andi bat egiñik, bere amamaren etxera ezti-bitsetan joan zan.

Maluta-ko atsoak, jazorikoaren barri jakin ebanean, bere illobeari esan be egin eutsan:

—Tirok ba, tirok, mutil... Beti ganorabagea izan bagarik, oraingotan beintzat zintzo jokatu dok. Erria gizon ankerren atzamarretatik ederto askatu dok beintzat. Aurrerantzean, zetako edo atako izango az...

Erritarrak be, «Kokolo-mokolo»-ren egintza bereziaren barri jakin ebanean, poz-pozez jarri ziran; eta, lapur gaiztoen eskuetatik aurrerantzean guztiz askatuta izango zirala-ta, guztiak batera sekulako erromeria ospatu eben.

Eta arrezkero, Maluta-ko atsoaren illobeari, beronen adorea saritzeko, txikitatik izan eban «Kokolo-mokolo» izena kenduta, «Adoretzu» izen andi ta begikoa ezari eutsoen.



45. GIZONA, GIZONTXO

Emakume luze-luze bat gizon txiki bategaz, polita zala-ta beste bagarik, ezkondu egin zan. Gizona, «Txautxiriko» izenaz ezagutzen eben, eta emakumea «Kukiñe» izen politaz.

Ezkon-ibiltea egiteko, Bilbo ikusi bearebela-ta, Bilbo-ra joan ziran; eta, Bilbo ondo-ondo ikusita gero, illuntze baten, azaltzeko andiakaz, mando-gaiñeetan etxeratu ziran.

Gaiñeko illuntzeetan, gure ezkonbarriok, eguraldi otzak eta motzak zirala-ta, sutondoko bero gozotan kontu-kontari egoten ziran. Emazteak goruetan egiten eban, eta senarra pipea erreten kee baten emoten eban astia.

Kukiñe-k, egunez, etxe ta solo, lanik asko egiten eban; au ta ori egiñaz, zeri edo ari beti-beti ekiten eutsan. Emakume langillea zan.

Txautxiriko, ostera, ez egunez, ez illuntzez, ez gabez, ezertxo ez eban iñoiz be egiten: etxetik kanpo otza ugari izaten zala-ta, eskaratzeko su andiaren inguruan jesarrita pipea musturrean ebalatzen egoten zan beti. Egunak joan eta egunak etorri, gure gizontxo beti olan egoten zan.

Senarraren patxadea ikusita, emazte gaisoak bere kolkorako auxe esaten eban: «Gizontxo au sutondoan «apatx» jesarrita egoteko baiño ez da... Alper arrano au ezetarako be ez da gauza! Ona orain beronegaz zelako bizimodua eroan bear dodan! Baiña polita zala-ta beste bagarik ezkondu nintzalako, neurea da errua, neurea bakarrik. Ai, gauzak sarritan egitekoak ba-litaz! Baiña, tira, egoera au eroapen geiagoaz eroan dagidan: udabarriko eguraldi epelakaz

adoretuta-edo, sutondo orretatik jagita lanean asiko da, bearbada. Ba-daiteke..., eta itxaron dagidan gaurtik ordurarte.»

Asteak joan eta illak etorri, udabarria bere txori ta loraz, aurpegi argiz agertu zan. Eta udabarriko egun alaiak sutondoko gizon txikia bere altzo gozora eroan eban.

Goiz argi baten, Txautxiriko-k bere emazteari auxe esan eutsan:

—Gaur solora joan bear dot, bertan zeri edo ari ekiñaz, lan apur bat egin dagidan be.

—Bai, zoaz, ene gizona, ekin lanari, lana egiteko da-ta —erantzun eutsan emazteak.

Txautxiritxo solora joan zan, ba; eta, an egun guztia atan-orretan eginda gero, gabea, nekatuta bai-legoan, benben etxeratu zan. Eta emazteari arazo andia ta garrantzitsua aurkitu ebalatzen eutsan.

—¿Zer arazo aurkitu dozu, ba? —itandu eutsan Kukiñe-k—. Laietan jardun dautsazu, urrean...

—Ez, gauza garrantzitsuagoa izan da.

—¿Zeri ekin dautsazu, ba?

—Begira, ba: soloratu nazanean, kerexa-zugatzen ganean, txori-pilloak txorrotxioka ebizala ikusi dodaz. Eta, arekana begira jarrita, nire barrurako auxe esan dot: «Txori orreik or dagozala, gure soloan ezer egitea alper-alperrik dok: ezer ereiten ba-yoagu, euren moko zorrotzakaz lurra

arakatuta, ereindako azi guztiak jateko gauza dozak-eta. Gari-aldian, barriz, sekulako betekadak egingo yoezak; eta igaletan-eta be, mesedetan baiño kaltetan geiago egingo dauskuek... Beraz, emen soloan, laietan eta atxurketan egitea alper-alperrik dok: guk egiñiko lan guztia beingoan gauzeztuko leukeek-eta. Olan obe izango dok, soloan lan egitea baiño soloa bera jagotea; bestela, ezertxo be ez yoagu artuko; eta emaztea ta ni goseak galduko gaiozak...» Eta ori esanaz, zugazpean jesarrita, makilla pilloak jaurtiz txoriak uxatzeari egin dautsat. Zati baterako lana ba-daukagu bertan: gaur joan diranak, bearbada biar barrero agertuko dira-ta...

Eta emazteak senarrari:

—Ene! Astia orretan emon dozu, ba? Soloan ainbeste lan egiteko-ta... Txori gaisoak bagarik, zure alperkeriak galduko gaitu gu, eta ez bestek...

Eta gizontxo arek, leenengo eguneko arloari ederto eretxita, urrengo eguncan eta urrengoan be bai, bardin egin eban. Txoriak makillakaz uxaturik, zugazpeko bedartza bigunean patxadaz-patxadaz jesarrita egoten zan.

Bitartean, Kukiñe arazoz beterik artega. Alako baten, kusoa* edo «txori-maloo» egitea bururatu yakon: bere senarraren arazoa lastozko gizon arek ebalata, kuso bildurgarria soloaren erdi-erdian ipiñi eban.

Gure Txautxiriko, kusoa ikustean, asarre jarri zan; eta emazteari agiraka egin eutsan, bera baiño lastozko gizona geiagotzat ete-eukan esanez. Baiña emazteak jaramonik be ez.

Lau eguneko ipar-aize ozkirriak gizontxoaren asarrea zearo aldendu eban, irribarrea sorrerazoteko poza ganeko egunetan emonaz.

Beste illuntze baten, barrero be soloan arazo onuratsua aurkitu ebalata, pozez beterik etxeratu zan.

—Oi, gaur soloan aurkitu dodan arazoa! Oi, gaur soloan aurkitu dodan arazo onuragarria...! —iñoan.

—Ze arazo aurkitu dozu, ba? —itandu eutsan Kukiñe-k.

—Begira —erantzun eutsan Txautxiriko-k—: arratsaldean, laiak eskuan daukadazala soloratu nazanean, muna-ganean, bedartzan, txindorri-pilloak ikusi dodaz; guztiak batera ta bestera iraduz ibili dira; lanean-edo jarduten eban, urrean. Eta txindorri areik, gure soloan egin leikeen kalteaz gomutaturik, errime ikaratu naz; eurok dagozan artean gauza onik ez dogu izango-ta, dardar jarri naz... Orduan, ¿zer egin? Eskuetako laiak bertan-beera itzirik, koko arekana begira adi-adi egon naz. Zenbatu be egin dodaz, eta urteak egunetan aña dagozala konturatu naz. Ori kusi dodanean, nire barruan asmo berezi bat artu dot: txindorri guztiak goiz edo berandu solotik jaurtitea. Beraz, biar goizean asita, txindorri baktxa beeko erre kara eroango dot, ango uretan leenbaileen ito daitezcan, orretarako lau orduko bidea egun oro egiñarren be; olakoai guztiz eta zeatz alde eragin bear yake-ta. Bestela, gauza onik ez dago. Egun oro bat kenduta, urtebete barru guztiak amaituko dira. Eta orduan, bakea.

Berbok entzunda, Kukiñe artegatu egin zan, estutu be estutu: «Nire senarra baiño alperragorik, nire senarra baiño alperragorik!» —esaten eban—. Ori ezetarako be ez da gauza, ezetarako be ez... Gizontxo orren lelokerietatik alde egiteko, gaur zerbait asmatu bear dot, bai, asmatu bear dot! Olan ezin bizi daiteke...»

Eta bere senarra Durango-ko merkatuan saltzea erabagi eban. «Iñok lauzirikorik emoten ba-daust emon, gizon txiki-petral ori an geratuko da plazaren erdi-erdian», iñoan

Orretarako, otzaragiñagana joanda, otzara andi bat erosi eban; eta urrengo zapatu-goizean, otzara andi aretan sartu zedilla agindu eutsan bere senarrari.

—¿Otzara orretan neu sartu? ¿Zer dala-ta? Arranoa, neu ez beintzat! —erantzun eutsan senarrak

—Bai, sartu zaitez, gizona... Gaur Durango-n merkatu andi bat ospatzen da, bai, eta merkatu orretara zeu be etorri zaitezala gura dot-eta. Ango gauzak zeuk zeure begiakaz ikusi dagizuzan, ementxe, otzara onetan, neure buru-ganean eroango zaitut. Olan, ara-osterea ezer be nekatu bagarik



GIZONA, GIZONTXO

«Jazopen guztiok ikusita, Kukiñe ikaratu egin zan, berekautan, iñoalaq: Otzara ta gizon, noian, noian etxera! Ezetarako gauza ez dala-ta ekarri dot, baina...

Gizona gizontxo:
prakak ba'daukaz, gizonto».

egingo dozu; ezer be ez yatzu kostako, eta ez yatzu damutuko.
Tira, gizon, sartu arin...

Eta beste bagarik, Txautxiriko, «rrast!», otzaran sartu zan. Eta Kukiñe, orduan, otzarea buru-ganean ebala, Durango-rantz abiatu zan. Bidean yoiala, neskato bat galtzerdigiñan ziarduala aurkitu eban.

—Ene, ori da otzaratzarra! —esan eban neskatoak—.
¿Zer daroazu or? ¿Kerexa gorriak?

—Ez.

—¿Okaranak?

—Ezta.

—¿Zer daroazu, ba?

—Gizon txiki-txiki bat, ontza biko bizarraz.

Neskatoak, ori entzunik, «ajaja!» egiñaz, irri ta barre egin eutsan. Orduan, Txautxiriko-k, otzaratik burua jasota, agiraka egin eutsan; eta neskatoa, bildurrez izututa, ariñeketan aldendu zan andik.

Gerotxoago, Kukiñe-k mutiko bat intxaur-zugatzari arika ebillela ikusi eban. Eta mutiko arek, otzarea ikusi ebaneko, auxe esan eban:

—Ene, ori otzarea! Mugarra ta Arranaitz, biak osoan artuko leukez. ¿Ze arrano daroazu or?

—Gizon txiki-txiki bat, kanaterdiko bizarraz...

Mutikoak be irri ta barre egin eutsan, eta arri batzuk be jaurti eutsazan. Andreak, mutikoari asarre egiñarren, mutiko okerrak jaramonik be ez.

Orduan be Txautxiriko-k, otzaratik burua jasota, agiraka egin eutsan:

—Mutiko, eltzen ba-dauat eldu, zapuztuta itziko aut...

Mutikoak be, gizonaren erremuskadak entzunda, igesiari emon eutsan. Eta Kukiñe-k bidean aurrera egin eban.

Arantzago txakur zuri bat ikusi eban; eta txakurra, aausi ta aausi egiñaz, emakumeari orkatillatik oratzera joan yakon; eta emakumeak erremuskadak egiñarren, txakur oker arek aurrera egiten eban. Gure gizontxoak, bakea izango ba-zan, bere burua irugarrenez atara bear izan eban.

—Txakurto! Isilik eta geldirik ez ba-ago, zati-zati eginda itziko aut...

Txakurrak be, gizonaren abots lakarra entzun ebanean, lauoinka anka egin eban: belarriak eta buztana beerantz ebazala, ugazabaren etxean begi larri-larriakaz sartu zan.

Jazopen guztiok ikusita, Kukiñe ikaratu egin zan, berekautan iñoala: «Otzara ta gizon, noian, noian etxera! Ezetarako gauza ez dala-ta ekarri dot, baiña... zetako edo atako ba-dok bai gauza... Sutondoan jesarrita dagoala be, etxea ederto zainduko daust beronek. Ai, oni dautsoen begirunea! Bestela, berau bagarik, andra, gizon, neskato, mutiko ta aberek barre egingo leuskide... Bidean jazoak, etorkizunaren barri ederto emon dauste; atzean zer datorren, zerbait gora-beera ba-dakit. Noian, noian etxera...»

Eta Kukiñe luze-luzea, egiñikoaz damututa, bere gizona otzaran ebala, etxerantz abiatu zan: eskaratzeko su-baztarrean be gizona gizon zala-ta.

Gizon gizontxo:
prakak ba-daukaz, gizonto...



46. ERROTAZURI

Nik ez dakit noiz be, Anboto-aldean Eneko izeneko artzain gazte bat bizi zan. Artalde eder baten jabe zan. Irureun ardi ebazan; eta ardi bakotxa edurraren arnasatik sortu zala zirudian: zuri-zuriak eta eder-ederrak ziran.

Udabarrietan, gure mutilla, «Uletsu» txakur zolia bere ondoan ebala, mendi-landa ederrean jesarten zan; eta, ardi zuriakana begira, alboka-joten poz-pozik jarduten eban.

Egun areitan, bateko esne ta besteko gaztae salduaz, Eneko- ren sakelak polito-polito beteten asten ziran. Udabarria ta udea, artzaiñaren lagun izan oi dira beti. Neguaren mustur baltzak ikaratzen ez dauan artzaiñik ez dala esaten dabe, baiña.

Olan dala, Anboto-aldeko artzaiñari be, neguak lerrenak eragiten eutsazan. Aldi aretako negu batek, atan be euri, txingor, edur eta aize-biurrakaz, kalteak-kalte egin eutsazan. Bere artalde ederra gauzeztuta itzi eutsan. Ori zala-ta, gure mutillak, negar-aldi luzea eginda gero, bere bizibidea aldatzeko asmo sendoa artu eban.

Ain zuzen be, goiz baten, «Uletsu» txakurra lagun ebala, Anboto-ko andereagana, Mari Urrika-gana, burubide-eske oinkada ariñez joan zan; eta Anboto-ko anderea, bere koba miragarrian urrezko aulki eder baten jesarrita goruetan ziarduala aurkitu eban. Bere inguruan, iru morroe ta iru neskatilla, euren etxeoandarearen gurariak ondo beteteko zuur eta adi-adi egozan. Bitartean, andereak, goru-ardatzari «firi-firi» eragiñez, urre-mataza ikusgarriak egiten ebazan.

Marik mutillari, bere bizitokian ain goiz ikustean, irribarrez,

—Oi, Eneko! —esan eutsan—: onen goiz etorteko, ¿zer dok?

—Andera aaltsu orregana burubide-eske etorri naz, nire bizibideaz aspertuta nago-ta.

—¿Ire bizibideaz aspertuta? —erantzun eutsan Marik—. ¿Zer dala-ta? Leenen, beintzat, alboka-soiñua jo bear daustak, eta... gero, gerokoak...

Anboto-ko Anderea alboka-soiñu zale-zalea zan; eta Eneko, ari atsegin emotearren, soiñua jotzen asi zan.

Orduan, iru morroeak eta iru neskatillak alkarregaz dantzan asi ziran. Baita «Uletsu» txakurra be, arein erdira joanda, dantzan asi zan: besoak gorantz ebazala, atzeko oiñen ganean, sekulako dantzak egiten ziarduan. Ori ikusirik, anderea, barrearen-barreaz, konorte bagarik geratu zan. Ene, bada!, a zan bear zana! Iru morroeak eta iru neskatillak, etxekandrea senera ekarteko «amargarren aalegiña» egiten asi ziran. Neskatilla batek berakatz-saldea sartu eutsan; bigarren neskatilleak igurtziak egin eutsazan, eta irugarrenak, barriz, piparmiñaz sur-puntan ikutu eutsan. Guztia alperrik, baiña: anderea, bere sentzunera ezelan be ezin ekarri. Guztiak negarrez asi ziran, iru morroeak batez be: oneik, arrantzaka lez egiten eben negar.

Onetan, albokea jo bear ebala esan eban Enekok: bearbada, alboka-soiñuak konorteratuko ebala-ta. Alantxe

jazo be: anderea, soiñua entzutean, beingoan sentzuneratuta, barreka asi zan. Eta bere neskatiñai, Enekori bazkaria emoteko agindu eutsen.

Bazkaria jaten ziarduala, andereak artzaiñari auxe esan eutsan:

—Ea, ba, orain: agertu egidak ire bizibideatzazko asmoa.

—Artzain-bizitzaz aspertu nazan ezker, beste bizibide bat artzea erabagi dot —erantzun eutsan artzaiñak.

—Olako asmorik ez egik artu, mutil. Udabarriaren erdian, artzain-bizitza dan ederra! Bedar guri-ganean ipar-aiseak egiten dauzan laztan gozoak, ¿ez ete-dozak gogoratzen, ba?

—Bai, Mari, gogoratzen dodaz; baiña... aurtengo neguak guztiz aspertu nauan ezker, nire asmoan iñortxok be ez nau atzeratuko. Negu anker onek egin daustazan kalteak ba-zekiz, orraitioño, zerbait esango zeuke: artalde guztia triskatuta itzi daust-eta.

—Bai, Eneko; olan dala, bizibidea aldatzeko errazoaia ta eskubidea ba-dokazala ikusten yoat. ¿Ze bizibide gura dok? ¿Argin, ala arotz?

—Ez, ez dodaz bizibideok gura. Niretzako bizibiderik onena, errotari izango nintzakela uste dot. ¿Zer deritzazu?

—Ederto, ederto; urun on eta ederraz jentea janaritzen dokan artean, errotaritzaz dirutza polita egin aal izango dok-eta.

—Bai, baiña... niretzako errotatxo bat, ¿non aurkitu? Emen, inguruko errota guztiak artuta dagozan ezker, niretzat bat bera be ez dago utsik... Orregaitik, Mari, jakintsua ta zuurra zarean ezker, niretzako errotatxo bat zeuk billatu bear daustazu.

—Ori baiño ez ba-dok, billatuko yoagu, bai...

Orduan, Marik, iru morroeak palanka bana sorbaldetan ebezala, Anboto-erpiñera bialdu ebazan. Mari ta artzaiña be arein atzetik joan ziran. Andik lastertxora, morroerik zaarrenak, aitz-erpiñetik palanka sendo bat berealako baten jaurti eban. Eta palanke, zeru urdiña arrigarriri zearkatuaz, tximistea baizen arin Mugarra-

alderantz joan zan. Beste morroe biak be, eskuetan eukezan palankak era berean jaurti ebezan. Eta arein palankak be Mugarra-aldera jausi ziran.

Enekok, iru morroeen trebetasunaz ikaratuta,

—Ori trebetasuna! —esan eban—. Ori jasa ta indarra!

¿Non ikasi dabe orren egoki palanka-jokoan?

—Ementxe berton —erantzun eban Mari Urrika-k—

. Eguzkiaren urtenaldietan eta sartzaldietan, egun oro palanka-jokoari ekiten yautsoek... Onein trebetasunaren zusterre, beraz, ementxe Anboto- ganean yagok.

—Bai orixe trebetasuna! Jasaus! —esan eban ikaraz artzaiñak—. Eskola errimea dabe berton, gero! Eta orain, jaurtitako palankok, ¿non aurkituko doguz?

—Errotari izan gura ba-dok, palankok euk aurkitu bear dozak —erantzun eutsan Marik—. Oa, ba, bizkor...

Gure mutilla, «Uletsu» txakurra alboan ebala, Mugarra-alderantz joan zan. Leenengo palanke aitz-erpiñean aurkitu eban, eta aren ondoan errotarri eder bat ikusi eban. Bigarren palanke egoan lekuan be, beste errotarri bat aurkitu eban. Eta irugarrena egoan lekuan be, beste bat aurkitu eban. Beraz, iru errotarri.

Eneko, iru arri arekaz poz-pozik jarri zan; eta, ezti-bitsetan zala, ariñeketa baten Anboto-ra biurtu zan, Mari Urrika-ri aurkitzearen barri emotera. Eta Mari Urrika-k, aurkitzearen barri entzutean, gorantz begiraturik, mutillari auxe esan eutsan:

—Orain, errotarriok Mugarra-erpiñetik beera jaurti bear dozak, eta, arriak geratzen diran lekuan bertan, iretzako errotea eragi bear dok. Ondo egiteko, baiña, gabeko amabi-amabietan jaurti bear izango dozak...

Artzaiña, Mari-k agindu eutsanez, Mugarra-ra joan zan; eta gabeko amabi-amabietan, ango erpiñetik beera iru arriak bilin-bolaka jaurti ebazan. Eta, arrigarria!: ain zuzen be, iru arriak erreka andi baten ertz-ertzean geratu ziran.

Ori ikustean, Eneko pozez zoratu bearrean jarri zan. Eta bere errotearentzako lekuri onena axe zala-ta, gizon pilloak lanean asita, etxe polit bat beingo baten egin eben.

Eta etxea amaitu zan egunean bertan, edurra zara-zara jausten asi eta etxetxo barria, berealako baten zuri-zuri ikusgarriro geratu zan. Edurraren laztan gozoa etxearen ganetik kentzeko, eguzkiaren arnasea ez zan iñoiz be gauza izan. Orregaitik, erriko lagunak errota barriari izena «Errotazuri» ezarri eutsoen.

Iru arriak urun bikaiña emoten asi ziran. Alako urun gozo ta ederrik iñoiz be ebela jan guztiak ago batez esanda, «Errotazuri»-ra lagun askoak asi ziran joaten. Etxearen inguruan, egun oro eunkada astoak zorroz beteak ikusten ziran. Errotari barria, lanari aurpegia emon ezinda, artega ebillen; baiña, atan-orretan dirua polito egiten asi zala-ta, poz-pozez jarri zan. Alan, urte gutxi barru, aberats andia egin zan; eta diruaren-diruz, inguru areitako errota guztiak erosi ebazan: guztiak giltz-pean itxita, «Errotazuri»k bakarrik lanari ekiteko.

Luzaroetan, Enekoren egiñaz eta «Errotazuri»ko urunaz jentea pozik ibili zan. Urteak joan eta urteak etorri, baiña, Eneko aberats okitu egin zan, eta... urrez beteriko gela baten loak artuta, urre-artean lozorroan geratu zan.

Bitartean, erria aren etxe-inguruan negarrez eta atejoka:

—Eneko, edegi eiguk atea, eta emon eiguk uruna, goseak il bear gayozak-eta...!


Errotariak, ostera, jaramonik be ez. Azkenez, etxe-aurrean egozan agura zaar batzuek be deadar egin eutsoen: Zabaldu eiguk atea, eta emon eiguk uruna...!; bestela, ire galdua...!

Deadar orri be jaramonik be ez.

Ganeko egun baten, euria, txingorra ta aize-biur andiak izan ziran; euria, uriol-antzera, «Errotazuri»ren ganera bildurgarriro jausi zan; eta uriroleak «Errotazuri» etxea, bere ugazaba barruan egoala, sustar-sustarretik itsasora eroan eban. Erriaren negarrak, zeruraiño elduta, Jaungoikoaren zigorra eratsi eban, antza.

Ganeko egun baten, baiña, Eneko barriro bere errian agertu zan: uretatik «Uletsu» txakurrak atara ebala esaten eban. Baiña orain, beartsurik zirtzillena baiño zirtzillago jantzita, bere txakurra alboan ebala, aterik-ate eskean ibili bearra izan eban. Eta «Errotazuri» egon zan lekutik igaroten zanetan, bere zoritxarra gogoraturik, negar eta negar egiten eban.

Eneko-ren diruzalekeria ta zekenkeria Jaungoikoak esku gogorrez zigortu ebazan.



47. LAMIÑAK ETA NESKATILLEA

Bein, goizalde baten, Gotxu ta One, «Bolunzulo»ko etxagun alargunaren seme-alaba on eta begikoak, Iñungane-mendira iratan joan ziran.

Goizalde aretan, Mugarra-aldean izarrak kolore politez ikusgarri be ikusgarri agertzen ziran. Arein diztirak zerua ikusgarriri apaintzen eben; eta izar polit areik, batera ta bestera birak bizkor-bizkor egiñaz, neska-mutillen pozgarri, jolasean ziarduen.

Ori ikusita, zeruko izar duztiratsuak zenbatzen ziarduen gazteak, urrengo bertsook abestu ebezan:

Biotz eder bat dago
odeien ganean;
an da nire maitea
izarren artean.

Ori kantatzen ziarduela, neska-mutillak Erliabe-ko aitz-bide luzera beingo baten eldu ziran. An neskeak, bere nebea burdi ta guzti atzean itzita, bidean aurrera egin eban, irak aalbait lasterren pillatuaz, burkadea ariñago gertatzeko.

Aurrera jarraitu eban, ba; eta Kobagorri-ingurura eldu zanezkoxe, arbolartetik lamiña dotore bat beraganuntz etorrela ikusi eban. Lamiñeak soiñean, txingarra baiño be jantzi gorriagoa eban; bere semea idustun (collar) ederrez apainduta agertzen yakon; buruan eukan orrazi dotoreak, barriz, iñon diran kolore politak egiñez, lamiñearen soiña dotoretasun berarizkoz apaintzen eban.

Lamiña, ondoratu ta laster, sekulako berba gozo ta labanakaz, neskatillea atsegindu gurarik asi zan; eta soiñean eukan idustun ederra One-ren samatik dingilizka ipiñi eban; baita arribitxidun erestun dotore bat be, neskeari ezkerreko atzamar nagusian sartu eutsan.

Erestun dotorea atzamarrean sartzean, neskearen biotzak taupada berarizko bat egin eban; eta taupadearen indarrak erestun miragarria neskatillearen eskuan urtu ta ezereztuta itzi eban.

Orduan, lamiñeak, asarre-antzean, «maitasunen baten berotasuna ala zer don?», esanda, neskeari eskumako eskua biotz-ganean ipiñi eutsan.

Onetan, Gotxu mutilla, bere burdi ta guzti urreratu yaken; eta, ara eldu zanezkoxe, lamiñeari akuluaz zartada errime bat emon eutsan; eta zartada andi areaz, lamiña, negarrez eta garrasika asita, beingoan aldendu ta Kobagorri-ra joan zan.

Geroago, neba-arrebak bidean aurrera egin eben. Eta Iñungane-mendira eldu ziranean, ira-batzeari ekin eutsoen. Eguerdian-aldean, Solobil-go iturrita jatsita, burduntzikoja jaten asi ziran. Eta orretan ziarduela, beste lamiña dotore bat agertu yaken.

Arek be neskeari idustun eder bat samaratu eutsan; eta Gotxu mutillari be gerriko gorria ipinten asi yakon.

Bolunzulo-ko mutilla, lamiñeagaz ezetariko artu-emonik ez ebalu gura-ta, asarre bizitan jarri zan; eta,



LAMIÑAK ETA NESKATILEA

«Mutil biak, Gotxu ta Atxin, lamiña artera jatsi ziran: eta, eskuetako makillakaz, or-emenka zartada errimeak emonda, lamiña guztiak beingo baten il ebezan».

arrapaladan jagita, lamiñeari matrailletatik burduntzi goría sartu eutsan.

Orduan, lamiñeak, negarrez eta uluka asita, begirakune zorrotzak egiñez, mutillari urrengo berbok esan eutsazan:

—Ire biotza ez al yok iñok gozotuko...! Eta ire bizitza guztian, ara ta ona bape atsedean bagarik ibiliez, zoritxarrekoa izango al aiz beti...!

Eta lamiñearen negar-aienak entzunda, Kobagorri-ko lamiña guztiak, aida baten, Sorabil-erantz egin eben. Guztien artean, mutillari lepoa ederto berotu eutsoen; eta neseka, eskuetatik oratuta, eurakaz batera Kobagorri-ra eroan eben.

Orduan, Gotxu-k, negar baten asita, etxerantzakoari emon eutsan; artutako zartadak baiño bere arrebearen gimuteak negar geiago eragiten eutsan. Illundu ta laster, etxeko atea jo eban.

Bolunzulo-ko etxaguna, ordu aretan bere semea bakarrik ikustean, ikaraz jarri zan. «Gaba, eta alabarik ez...», iñoan. Eta, mutilla bere arreba bagarik etxeratzeko, zer jazo ete-zeitekeanez, berbots dardaraz,

—¿Non dok arrebea? —itandu eutsan.

—Or geratu da... —erantzun eutsan semeak aurpegi minduaz.

—¿Non, baiña? Eguna illunduta... eta... ordu onetan eure arreba bagarik ator? «Landaluze»n, «Arridu»n, ala non geratu dok, ba?

—Ez... Kobagorri-ko lamiñak eroan dabe.

Kobagorri izena entzutean, Bolunzulo-ko etxaguna, dar-dar, ikara baten jarri zan; eta, bere aurpegia esku biakaz estalduta, berbots larriaz,

—Neure alaba kutuna —esan eban—. ¿Non ete-da? ¿Barriro bera ikusteko atsegiñik izango ete-dot? Ala, lamiñen zigorra ete-daroat aldean? Lamiña orreik, mutil gaztea nintzala, nire artaldeagaz etxerantz etorri nintzan baten, artaldeko bildotsik ederrenak eskatu eustezan; eta, bildots bat be emon ez neutselako, iñon diran iraiñak eginda gero,

izengo neban alabarik kutunena ostuko eustela esna eusten... Oi, nire zoritxarra!

Era negar baten asi zan.

Aita alan negarrez ikustean, Gotxu-ri be biotza samiñez bete yakon. Baiña, Arridu-ko etxagun gaztea lagun arturik, barriro etorri eta aitari auxe esan eutsan:

—Aita, gaur gabeko amabietan, Kobagorri-ko lamiñak, Iñungane-mendiak guztiak batuta, jai andi bat ospatzen ei-dabe, iloro-illoro egiten daben jai apartekoa. Eta onan dala, «Arridu»ko Atxin lagun dodala, gabeko amabi-amabietan mendi orren inguruan izango gara... Eta zure alaba kutuna... guztien ganetik etxeratzeko dogu.

Eta mutil biak, bakotzak eskuan makilla bat arturik, an aldendu ziran mendirantz. Eta gaberdia beiño leen, Ezkubaratz-eko landatik Iñungane-ra adi-adi jarri ziran. Gabeko amabien dangadan, zarata bakanak entzun ebezan; eta euren begiak, zaratearen otsera, Amilla-ko zelaira zuzendu ebezan. Amilla-zelai ederretik Iñungane-mendira lamiña pilloak yoiatzala ikusi ebezan. Areitariko batzuek ago-soiñu ta maniurak joten ebezan; beste batzuek, panderuak eta abar, guztiak batera kantaka ta santzoka.

Mendira elduta, euren jolas bakanak, kanta ta ujuju askoren artean atondu ebezan. Eta, iñon diran dantzak eta jolasak eginda gero, izar-jolas politean asi ziran. Lamiña guztiak ara ta ona saltoka ebizala ikusten ebezan. One, Bolunzul-ko etxagunaren alabea be, soiñeko eder-ikusgarri bat ebalá ikusi eben.

Orduan, mutil gazte biak, mendian belaunikotuta, illargiari erreguka asi ziran: «Illargi eder-eder ori! I baiño askoz ederragoa ta andiagoa dan Jauna aaltsuagandik, adoretu egizak gure biotzak...!»


Eta illargia, mutillen eskariáz bere Egilleagana joan ba-litzan, odei-arteán ostendu zan. Inguru guztia, bat-batean, illundu egin zan; ixillune bakana ta itzela izan zan. Mutil bien biotzak, bildurrez dardar egin eben. Alako baten, illargi betea, iñoizko argien agertu zan, eta gabak egunaren antz osoa artu eban.

Goitiko argi berarizkoa euren biotzak adoretuta bezala, Gotxu ta Atxin lamiña-artera jatsi ziran; eta, eskuetako makillakaz, or-emenka zartada errimeak emonda, lamiña guztiak beingo baten il ebezan. Eta ori eginda gero, One, Bolunzulo-ko alabea eurakaz ebela, saltoka ta santzoka mendiak pozez beterik igarota gero, egunsentia orduko Bolunzulo basetxean egozan.

Bolunzulo-ko etxaguna, bere alabea lamiñen eskuetatik askatuta ikusi ebanean, iñoiz ez lako pozaz atsegindu zan.

Eta egun batzuk barru, Bolunzulo-ko etxagunak bere alaba ona Arridu-ko etxagun gazteari, ezkontzaren bidez emon eutsan.

Auzo ta inguruetao lagunak bertan batuta, sekulako eztegu eder eta alaia egin eben; eta luzaroen-luzaroetan zoriontsu bizi izan ziran...



48. TXIRRIKIZ-EN TXILIBITUA

Mikel eta Peli eskola-mutikoak, egun baten, erriko enparantzán intxaurrakaz «bibika» jolasten ziarduela, «Txirrikiz» gaitzi-izenaz ezagutzen zan eskeko aguratxoa enparantzearen erditik elizarantz igaro zan.

Mutiko biak, Txirrikiz ikustean, euren jolas polita bertan- beera itzita, arlosa baten ganean jarri ziran, agurea arretaz begiratzeko ustez.

—Ene!, or non doan Txirrikiz agura zaarra! —esan eban Peli-k barre-destaiñez—. Gure kortako asto zaarra baiño be narrasago yabik agura ori-ta...! Orrek yaukok itxurea, osterá! Olako agura zaarrari irri ta barre egin bear yautsaguk, Mikel. Gaur arratsaldean, «bibika» josten aspertu garean ezkeró, zetán edo atan astia emon bear yoagu-ta...

—Ni ez noak zaarrari eta batez be eskekoari irrik egiten —erantzun eutsan Mikel-ek, eskekoari begirunez begiraturik—. Eskekoa ta agurea iraintzea oben andi-andia dala esaten yok beti gure amamak. Ia-ia Jaungoikoari berari irri egitea lakoxe oben dala esaten yok arek. Beraz, ni ez noak orretan.

—A, leloa! ¿Amamaren esanak buruan-eta abil oraindiño be? Nik, olako atsoen esanai katuak sagarrari aiña jaramon egiten yautseat. Atsuen esanak zeatz egiten ba-abil, orraitíño, oillo ta erdi izango az beti.

—Atsoen esana dala naiz ez dala, ire esanak dirala naiz ez dirala, ni ez noak eskekoari irrik egiten eta kitu. Naiz arek esan, naiz orrek esan, txarra dana, txarra, eta ona

dana, ona izango dok beti. Ik be, barriz, Peli, Txirrikiz-i irrik eta barrerik egingo ez ba-cuskiok obe...

Baiña Peli mutikoak, bere lagunaren esanari jaramon egin bagarik, atzetik arinka joanda, eskeko agureari irri ta barre egin eutsan, onela zirautsala:

Txirrikiz mirrikiz
sabela-bete txarrikiz...

Baiña Txirrikiz-ek, destain-berba iraingarriok entzunarren, mutikoari ez eutsan asarrerik egin; bestetara bai: aurpegi otzan-otzanaz begirakune gozoa egiñaz,

—Mutiko polit ori —esan eutsan—: ez adi orren okerra izan. Agura zaarrari, eta batez be eskekoari, irri ta barre egitea, ¿ez ete-dakik oben itsusia dana?

Eta sabeletik txilibitu polit bat atarata, beste au esan eutsan:

—Olako destaiñik ez egiok iñori barriri egin: Jaungoikoak be, olako destaiñarik egitea, arean be yok naita. Ikusi egik, barriz, eskuetan yaukoadan gauza polit au: txilibitu mñragarria dok. Tresnatxo oni, mutiko zintzo ta onen agoetako putzak ots zoragarriak eragiten yautsoezak; orretarako, ona izan bear dok, baiña. Eta, zarata zoragarriaren ots gozotan, persona ta abere, andi ta txiki, agiri diran

guztiak, soiñuaren gozotasuna geldirik jasan ezinda, pozaren-
pozez dantzan egin bear izaten yoeke. Olakoxe soiñu
atsegingarria dok, izan be. Bera entzun ezkeru, gurata be
iñor geldirik ezin egon: iru milla txilibitu joten diarduela
eta izaten yoeke-eta. Begira, ba, mutiko, eta entzun arretaz
eta ulertu ondo: on-ona izaten ba-az, gauza miragarri au,
oraintxe berton, eurentzat izango dala diñostat. Beraz, mutiko,
zintzoa izango az, ¿eztok?

Mutikoa, alako txilibitu polita ikusi eta agurearen
esanak entzun ebazanean, pozez ezitan jarri zan; eta,
txilibituaz jabetzearen, une baten bere barruan ona izateko
asmoa artuta, barretxo apala egiñaz, ona izango zala esan
eutsan. Eta orduan, agureak txilibitu miragarria eskuetan
ipiñi eutsan.

Baiña iru-lau miñutu igaro orduko, Peli-ri barriro be
eskekoari irri ta barre egiteko gogo sartu yakon. Txikitatik
asita eban ekandu txarrak, mutikoaren asmo onari geiago
egin eutsan; olako okerkeriak egiten txiki-txikitatik oitua
zan.

Eta mutiko okerrak, agureari leenen arri-koskor bat
edo beste jaurtita gero, erdi-kantatzen barre-santzoka auxe
esan esan eutsan:

Zaarra da eta il bedi,
ez dau balio lauziri...

Olako okerkeria entzunda, Txirrikiz-en eroapenak
eten egin eban; aguratxo artetsua asarratu be asarratu egin
zan. «Onen bigun eta maitekiro mutikoari berba egin berak,
eta ganera erregalua be aren onerako gogo onez egin, eta,
olan eta guzti be, mutikoaren gogo ezin ezetara be irabazi
—iñoan agureak bere kolkorako—. Orrentzat, esan onak eta
bezuzak eta abar, alper-alperrik dira guztiak...»

Eta agura asarratuak, mutikoari dei zolia eginda,
begirakune zorrotzez,

—Peli —esan eutsan—: nik egiñiko bezuza, eure
zoritxarrerako izango al dok!

Agurea aldendu zaneko, Peli txilibitua joten asi zan,
Baiña, bere bularreko arnasa guztiaz putz eta putz egiten
eutsanarren, tresnatxo arek berak uste eban lako ots politik
ez eban egiten. Orretarako aalegin guztiak egin ebazanarren,
adar zaarraren zarata lakarra baiño besterik ezin eragin izan
eutsan.

Ori ikusita, mutikoak, agin-artean ikaraz,

—¿Ze arrano dok au? —esan eban—. Adar zaar
baten zarata lakarra baiño ez yok egiten-eta! Belarriak
mintzeko alagalakoa dok! Agura arek esan daustazak
guzurtzarrak! Gauza ona izateko asko bear yok, orraitino,
berak...

Eta mormorka baten jardunda gero, barriro be
txilibitua joten asi zan; iru milla txilibituen ots miragarria
entzungo ebalakotan ekin eutsan. Baiña dana alperrik: barriro
be adar zaarraren zarata lakarra bakarrik egiten eban.

Alako baten, orretan gogait egin eban. Eta, esku-
artean erabillen tresnatxoa ezetarako be ez zala izango-ta,
errekara jaurtiteko asmoa artu eban. Baiña gerotxoago, urari
emona urak daroala-ta, bere txilibitua Mikel lagunari emotea
erabagi eban.

—Ona emen Txirrikiz agura zaarraren bezuza
miragarria —esan eutsan Mikel-i destaiñez.

—Ondo gauza polita dok, izan be —erantzun eutsan
Mikel-ek, txilibitua pozez arturik.

—Polita edo motza, or daukak, ba, eskuan. Ba-ekik
zelako adartzarra dokan...! Putz egiok bereala eta jo egik
bertan.

—Ez, orain ez; orretarako ez yoat orain astirik:
onezkero etxean aparitarako itxaroten egongo dozak-eta.
Biar-edo ikusiko yoagu.

Eta Mikel, ori esanda, arinka etxera joan zan.

Biaramon-goizean, mutiko biak alkarregaz basora
joan ziran. Mikel-ek, aurregunean Peli-k emoniko txilibitua
beragaz eroan eban. Eta, mendi-txuntxurrera eldu ziranean,

txilibitua jo ta jo asi zan Mikel. Orduan, aren soiñuaren gozoa! Entzun eben guztiai iru milla txilibituren ots gozoa iruditu yaken.

Ori zala-ta, persona ta abere, soiñua entzuten eben guztiak, dantza baten asi ziran. Mendian larratzen ziarduen abelgorriak, landetan bedarra jaten ziarduen ardi zuriak eta aitz-arteetan ikotika ebizan auntz bizkorrak eta abar, santzo baten ziarduela ikusi ebezan. Mendi-egalean agiri zan basetxe zuriko soloan egozan lairiak be, laiak alde batera jaurtita, guztiak batera dantzan asi ziran. Azkenez, Peli mutikoa bera be dantzan asi zan. Ango dantzearen-dantzea, eta ango zaratea! Alako erromeriarik iñoiz be ez zan iñon egin.

Alako baten, luzaro joten jardunda gero, Mikel-ek, dantzarik naikoa izango zala-ta, soiñua isildu egin eban.

Eta soiñua gelditzeaz batera, dantzan ziarduenak be gelditu egin ziran. Eta, nekatuta egozan ezkerro, guztiak atsedena artzera jarri ziran. Peli be, bere gorputza zelanbait atsedendu nairik, Mikel bere lagunaren ondotoxoan jesarri zan.

Olan egoala, Peli-ri ixilka-mixilka ikusiezin kaltegarria sortu yakon; egun aretan ikusi eban gauza miragarria ikusita, bere lagunari txilibitua emona osorik damutu yakon. Eta, barruan eban ikusieziñiak eraginda, emoniko gauzeaz barriro jabetzeko aalegiñetan asi zan.

—I, Mikel: ekak txilibitu ori —esan eutsan Peli-k negar-muskurioz.

—Ez, ez dauat emongo —erantzun eutsan Mikel-ek.

—Bai, emongo daustak, neurea dok-eta.

—¿Irea? Bai, zereko irea...! Emona, emona dala, ¿ez al dakik? Leen izango zoan irea, baiña orain ezetara be ez.

—Leen be bai, eta orain be bai. Ori beti neurea. Eta neurea dokan ezkerro, gura ta ez oraintxe berton emon bear daustak. Bestela...

Eta, ori esanda beste bagarik, arrapaladan joanda, Mikel-i eskuetan eukan txilibitua kendu egin eutsan. Mikel-ek, orduan, zarataka asita, «emona, emona» zala-ta, kendutako gauzea barriro emon egiola eskatu eutsan. Esan guztiak alperrik, baiña. Peli, txilibitua besapean ebalá, bere etxera joan zan.


Orrenbestez, Mikel asarratu egin zan; eta, asarre be asarre zala, bere lagunari «emona kentzea»ren zemaia jaurti eutsan:

Arek emon, naiz orrek emon,
emona, emona dok...
Emon eta kendu
sapoak beatzak kendu...

Gau aretan, Peli, txilibitu ta guzti pozez beterik ogeratu zan; bere lagunaren esan bildurgarriak arean be ez eban ikaratu; txilibitu miragarriaz jabetu zan ezkerro, txarrik ez onik ez eban pentsatzen. Txirrikiz-ek esandakoaz be ez zan gomutatzen.

Baiña gabeko amabietan, etxe-aurreko arri baten azpitik urtendako sapo andi batek Peli-ri, lotan ziarduala, oiñetako beatz nagusiak jan eutsazan. Peli, sapoaren aginkadeak iratzartuta, negarrez asi zan. Aren negarrak eta aren uluak! Eta, anketako miñak zirala-ta, ganeko egun-gabetan be etenbagarik negar eta negar egiten eban. Eta, tantaka-tantaka negar-malkoz upa andi bat bete arte ez zan gelditu be egin.

Mutiko oker arek eskeko agureari irri ta barre egin eutsan ezkerro, Jaungoikoak zigortu egin eban.



49. NORBERA ONDUAZ, BESTEA ONDU

Senarra ta emaztea etxe txiki-polit baten bizi ziran. Urtebete zala ezkondata bizi ziranarren, ez eben alkarganako maitasunik ez begirunerik. Maitasun bagarik bizi ziran, ganora bagarik!

Emazteak etxea garbitzeko ardurarik ez eban iñoiz artzen; bere burua larregi apainduaz, enparadu gauzai «or konpon» egiten oitua zan gaztetarik. Ori zala-ta, euren etxe txiki-polita beti zikin-zikiñik egoten zan. Etxeko beste arazoakaz be ez zan iñoiz be arduratzen.

Ez ur ez ardao, eta ez gatz ez berakatz, amaika ganora bagako bazkari janerazo eutsan bere senarrari!

Gure emakumea auzietan naaste-borrasteak ipinten be nagusi zan. Bere moduak eta orduak orretantxe ziran beti. Au batu, ta ori banandu, «batu-banantzaille» errimea zan. Aren miiñaren bidez, ango etxe-inguruetakoa naastea ta zarraparrea ugari izaten ziran. A lako sasirik!

Senarra be alako emakumeari egokion gizona zan: alperra, jokolaria, moskortia, biraolaria, eta abar.

Orrenbestez, etxe aretan ez egoan maitasunik, ez egokitasunik, ez ganorarik, ez bakerik, ez zorionik. Jaungoikoaz aaztu egin ziran, eta zorionak iges egin eutsen.

Illuntze baten, senar-emazteak sutondoan egozala, etxeko atea esku zabalez jo eben. Gaba, illun-illuna zan. Euria zaparrada andiz jausten zan; eta, oiñastuaz batera, trumoiak orro itzela egiten eban.

Ate-jotaillea nor izan zeitekean, bildurrez egozan.

—¿Nor da? —egin eben deadar.

—Etxe onetan ostatua gura leukean bidazti bat —erantzun eutsen.

Eta, atea zabaldua, gizon gazte-eder bat ikusi eben. Eta, barruratzeko esanaz, eskaratzera, sutondora eoaan eben. Ari aparria emonda gero, emaztea logelara joan zan, bidaztiari* ogea atontzera. Bitartean, bidaztia senarragaz sutondoan geratu zan. Au ta ori, eta angoa ta bestea berba batzuk egin ostean, bidaztiak gizonari auxe esan eutsan:

—Eta, ¿zelan bizi zaree?

—Oso txarto —erantzun eutsan gizonak—. Nire emaztea baiño alperragorik eta ganorabageagorik ez dauko lurra ganean. Bera lako beste bat aurkitzeko, munduan-zear ibili bear izango zintzakez, bai. Nire esanari ez dautso iñoiz be jaramonik egiten, emakume orrentzat iñoren esanak ez dau balio-ta. Batzuetan-batzuetan, dana bertan-beera itzita, etxetik iges egiteko asmoa be artzen dot... Emakume orregaz, ¿zer egin bear dot? ¿Ze onu, ze burubide emoten daustazu?

Bidaztia, berari esaniko guztia entzunda, isilik geratu zan. Alako baten, bere aurpegia gora jasota, gizonagana begi errukitsuz begiraturik, auxe esan eutsan:

—Norbera onduaz, bestea ondu...

Gure gizona, orin entzunik, lotsatu egin zan; eta, ausnartzen jarrita, bere kolkorako auxe iñoan: «¿Profetaren bat, santuren bat, ala zer ete-dok berau? Begi gozo orrekaz, neure barru naastua aztertzen ez ete-yabik, gero... Ene! Au lotsea!». Eta ori esanaz, pentsakor jarri zan barriro be.

Onetan, emaztea eskeratzera etorri zan, eta bidaztiari logelea gertu eukala esan eutsan. Orduan, bidazia, «gabon» esanda, logelara joan zan. Eta senar-emazteak sutondoan geratu ziran.

Gizonak, berba gutxi egiten eban; pentsakor zirauan. Emazteak, ostera, jazorikoaren barri ezertxo be ez ekian ezkerro, berba ta berba egiten eban.

—Bidazti ori, santuren bat-edo dala esango neuke — iñoan emazteak—. Orren irribarrearen ezta ta begirunearen gozoa! Bere begiak, beruntz dagozala be, gauza guztietan adi dagozala iruditzen yat. Olakorik egundo ez dot iñon ikusi.

—Ezta neuk be ez dot ikusi —erantzun eutsan senarrak—. Azal eta barru, danean dabil ori.

Eta barriro be senarra pentsakor jarri zan.

Biaramon-goizean, gosaria janda gero, bidaztiak, beste baten be etorriko zala esanaz, «agur» egin eutsen. Etxekandreak atarteraiño lagundu eutsan. Eta, etxetik kanpora yoiala,

—¿Zelan bizi zaree? —itandu eutsan bidaztiak emakumeari.

—Txarto be txarto bizi gara —erantzun eutsan emakumeak—. Ezkondu nintzan arte, gizonak obeagotzat neukazan. Nire senarra baiño txarragorik! Alperra, erremuskalaria, jokolaria, moskortia, biraolaria, eta abar.

«Biraolaria» berbeak bidaztiaren gorputza dardara baten ipiñi eban, bere begi ederretatik izar disdiratsuak lako negar-malko andi bi jausten zirala.

—Olan ezin bizi naiteke —esan eutsan emakumeak—. Ezelan be ezin bizi naiteke gizon orregaz. Bidazti on orrek, ¿ze burubide damostazu?

Orduan, bidaztiak, burua gora jasoaz eta begirakune errukitsuaz, auxe esan eutsan:

—Norbera onduaz, bestea ondu...

Berba orrekaz emakume gaisoa itun-itun jarri zan; bere bizitza ganora bagea bat-batean bururatu yakon. Utsegin guztiak begien aurrean eukazan. Lotsatu egin zan, pentsakor jarri zan. «Santuren bat dala esaten izan dot nik, santuren bat dala—iñoan—. Nire gauzak igarri egin daustaz. Au lotsea!»

Bidazia bidean-zear abiatu zan. Bere oinkada bakotzak bide- ertzean larrosa ederrak sortzen ebazan. Udabarri guztiak alako larrosarik iñoiz be ez eben ekarri. Emakumeak larrosa miragarri areik pillatzen jardun eban. Eta, sorta galanta eginda gero, bidaztiari dei egin eta auxe esan eutsan:

—Bidazti!: larrosak bidean jausten yatzuz...

—Ondo dago —erantzun eutsan bidaztiak—. Eroan egizuz etxera. Eta ea... urrengo etorri naitenerako, zuk eta zure senarrak beste orrenbeste larrosa batzen dozuezan.

Emakumeak, bidaztiaren esana egiñik, lora-sorta ederra senarrari eroan eutsan, etxera, bidaztiaren oiñetan sortutako larrosak zirala esanez.

—Oneik dira larrosak! —esan eban senarrak, geldota—. Olakorik begi-aurrean egundo ez dot ikusi! Eta onein usaiña! Negarra legortuaz, beatzunaren mingotsa gozotuko leukee. Zorionaren usain miragarria dala esango neuke...

Eta larrosa eder areik Andra Mariari eskiñi eutsoezan. Aren irudi politaren aurrean ipiñi ebezan.

Urrengo egunean, emaztea, bidaztiaren esanari jaramon eginda, ontzen be ontzen asi zan. Etxea garbitzeari eta bazkari-apariak ganoraz gertatzeari gogoz ekin eutsan. Eta geiago dana: Jaungoikoari ta senarrari buruzko éginbearrak oso ondo beteten be egun orretantxe asi zan. Ezkontzako eginbear garrantzitsuak beteten, Jaungoikoaz gomutatú zan, eta ohea izatea gura izan eban: norbera onduaz, bestea ontzeko.

Senarra be, bidaztiaren esana gogora ekarrita eta bere emaztearen aldakuntza onuratsuak adoretuta, egun batetik bestera ontzen asi zan. Biraorik ez eban jaurtiten, jokorik ez eban egiten, moskorrik ez eban artzen, eta alperkeritan ez zan egoten. Jaungoikoaz gomutatu zan, eta Jaungoikoak agintzen dauanez bizi nai izan eban..., norbera onduaz, besteak ontzeko be.

Emaztea ona izaten zanean, senarra be ona izaten zan; eta senarraren ontasuna ikusten ebanean, emaztea obeagotu egiten zan. Olan, bata-bestearen eredu zirala, onbidezko larrosa eder-onuratsuak egunoro-egunoro sortzen ebezan. Aurrerantzean, etxe aretan maitasuna ta bakea ugari be ugari ziran; asarre kaltegarriak eta gorroto iguingarriak betiko urrindu ziran. Arekandik aldendutako zoriona ames gozoz beterik agertu zan.

Gau argia ta ederra zan; senar-emazteak leioan zerurantz begira adi-adi egozan. Illargia ortzian andikiro egurasten ikusi eben; izarrak, batetik bestera, dantzan ziarduen. Gau argia ta ederra benetan! Maitasun andia bidean etorren oinkada isillez.

Onetan, ate-joka norbait. Atea zabaldu, eta aspaldiko bidaztia zala ikusi eben. Poztu be poztu egin ziran: «Geure zoriona zu!» esanaz, eskaratzera eroan eben. Bidaztia be, batera ta bestera begira, pozez beterik jarri zan. Gauza guztiak aldatuta eta etxea txukunduta ikusi ebazan.

Orduan, emazteak, onbidez batutako larrosa pilloak ekarri eutsazan. Bidaztiak atseginez artu eutsazan; eta, usain egiñaz eta ederrak zirala esanaz, ba-dirautse:

—Larrosa eder oneik euren arantzak dabez. Ori dalata, miñik artu izango dozue, bai...

—Min, bai, artu dogu —erantzun eben—; gora begira ondo eroaten dan min gozoa, baiña.

—Batu ta pillatu, ba, olako larrosak ugari: emengo

larrosen ordez, an goian, zeruko Aitak arantza bagariko larrosa betikorrez sarituko zaitue-ta.

Gaba igarota, biaramon-eguna argitu zaneko, bidaztiak, gosari arin bat artuta, agur au egin eutsen:

—Agur, senar-emazte zintzook; agur eta eskerrik asko. Agur; eta aurrerantzean olantxe bide on eta zuzenetik jarrai, zeruko aintza baketsura eldu arte.

—Geratu zaituzte geugaz —esan eutsoen senar-emazte gazteak—. Geratu geugaz emen, zeu bagarik ezin bizi izango gara-ta, gure zoriona zeu zara-ta...

—Ni bagarik ezin bizi izanango zaree, ¿ezta? Ene maite-maiteok, neugaz bizi nai ba-dozue, orra or zuen elizatxoa: ortxe naukazue, gau ta egun, zeuei itxaroten, zeuek maitatzen, zuek zorioneko egiten. Neugaz bizi gura ba-dozue, joan bertara ta artu nagizue. «Nire aragia jaten eta nire odola edaten dauana, neugan dago, eta ni aregan».

Berba orrekaz, bidazti santuaren soiñekoa edurra baiño zuriago biurtu zan, eta aren aurpegia eguzkia baiño argiago.

Senar-emazte gazteak bere aurrean belaunikotu egin ziran, maitekiro zirautsoela: «Jesus ona, Jesus gozoa, Jesus maitagarria, Jesus Jaungoikoa...»

Une zoragarri aretan, iparraldeko aize ozkirriak abesti bikain baten durundia ekarri eutsen belarrietara:

Ogi zerutik etorria,
Zeu zara gure poz guztia.


Leenengo Jaunartzerako gertatzen ziarduen erriko umeen abots gozoa zan...





AURKIBIDEA





HITZ BI	3	25. Orratzontziko sorgiñak	62
1. Dima-ko Pedro Deuna	5	26. Urrezko larakoa	65
2. Amargarren aalegiña	7	27. Eriotzaren sagarra	70
3. Azeri gaztae-zalea	9	28. Basa-koipatsu	71
4. Mari Urrika ta artzaiña	14	29. Artzaiña ta basajauna	73
5. Mutilla ta muskerra	16	30. Arrizabal-go jauna eta bidaztia	76
6. Txikitako ipuiña	18	31. Mañari-ko kerexak	78
7. Otsoa ta azeria	20	32. Bide-ipinteak	81
8. Sorgin-liburua	23	33. Birkiña-ren egurra	83
9. Emakume txiroa	25	34. Maluta-ko atsoa	85
10. Prakagorriak	27	35. Aitaitordearen leenengo ipuiña	88
11. Artzaiña ta Epaila	30	36. Ementxe be Jaungoikoa dago	90
12. Aingeru arri-aldatzaillea	32	37. Jesus-en maitatzaille zintzoa	92
13. Lamiñearen orrazia	34	38. Maitasunik ederrena	95
14. Lamiña dantzaria	35	39. Ames-lorea	97
15. Jesus-egaitik	38	40. Belen-go larrosak	99
16. Petralanda-ko sorgiñak	40	41. Urtebarriaren burubideak	102
17. Atramin-go lamiñak	43	42. Oxin baltza	104
18. Lamiñearen ostikadea	46	43. Jentillen bola-lekua	107
19. Eiztaria ta deabrua	48	44. Kokolo-mokolo	112
20. Abadea ta deabrua	50	45. Gizona gizontxo	115
21. Mugarra ta Arranaitz	53	46. Errotazuri	119
22. Deabru-labarra	55	47. Lamiñak eta neskatillea	122
23. «Lorrin» lamiña ta mutilla	58	48. Txirrikiz-en txilibitua	126
24. Lamiñearen gerrikoa	60	49. Norbera onduaz, bestea ondu	129



JAIME KEREXETA

Elorrion bizi da, bere errian. Eta laster elduko dira 52ra berak idatzi edo itzulitako liburuak.

Euskal Biblia bizkaieraz, Eguneroko Mezak, Diccionario heráldico y onomástico vasco... dira garrantzitsuenetakoa.

Luzaroan ezagutu eban Errose eta baita sarritan kemendu eta zeaztasun egokiz bultzatu bere euskal lanetan.

Jaime Kerexetak sortatu dausku 49 ipuiñ auek, eta azken ikutua emon.



JOSU UNZUETA ETXEITA

Abadiñon jaio zan 1969. urtean. 21 urteaz. Odontologia ikasten da Euskal

ERROSE BUSTINTZA, MAÑARIKOREN 49 ipuin multzozen dira liburu onetan eta berba zaar-barritzen dausku euskara oso mamitsuan.

Urteetan egon dira euskaldun asko ipuiñ onen egarriz. Ez eben beste askok Erroseren barririk. Gaurtik denak liluratu daitezkez erriaren aotik jasoriko ele zaarrak bizikiro ausnartuz.

Bizkaieraz eta batuaz argitaratzen da ipuiñ bilduma au. Jaime Kerexetak eratu dau Erroseren esku idatzia, eta bizkaieraz izango da beti Mañarikoren jatorrizko liburua.

Ez da erraza bizkaierak dauen arnasa batuaren erritmoan ezarritzea, baino lantxo onetaz bizkaitarrak batuan ohitzea gura dogu, eta bizkaierak batua aberastea.

783 berben itzulpena dauko liburu onek atal bakoitzaren ostean, euskaran aurreratzen doaztenei irakurketa errazteko.

Gure asmoa irakurleei laguntzea da teknikotasunari eustea baino geiago. Mañarikok irabazita daukon «batua» Euskaltzaindiko norbaitek edo teknikotasunez eta zeaztasunez eta amesetan emongo ote...

Liburu au irakurten asten dan bakoitzak, naiz euskara urrikoa izan, amaitzeraino jarraitzea izango litzateke gure helburua lortzea.



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
DIPUTACION FORAL DE VIZCAYA
KULTURA SAILA - DEPARTAMENTO DE CULTURA



GERO 
EDICIONES MENSAJERO